# BAPATEAN 2007

Grabaketak: Amaia Agirre, Ainhoa Agirreazaldegi, Joxe Mari Altuna, Ion Ansa, Martin Aramendi, Joxe Anjel Aranburu, Gorka Azkarate, Laxaro Azkune, Ion Barrocal, Xabier Begiristain, Unai Elizasu, Xabier Enbeita, Mixel Etcheverry, Xabier Gaztelumendi, Oskar Ibarguren, Jexux Mari Irazu, Felix Irazustabarrena, Joxema Leitza, Irati Lotina, Mikel Mendizabal, Ihintza Ostolaza, XDZ.

Hautaketa eta transkribaketa: Amaia Agirre eta Martin Aramendi.

Dokumentazioa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Irizpideak eta koordinazioa: Bertsozale Elkartea.

Doinuen izendapena: Martin Aramendi, Bertso Doinutegian oinarrituz.

Azken orrazketa: Ainhoa Agirreazaldegi eta Juanjo Respaldiza.

EHBE

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
© LANKU BERTSO ZERBITZUAK S.L.
Maketazioa: LANKU Bertso Zerbitzuak, S.L.
Argitaratzaileak:
LANKU BERTSO ZERBITZUAK S.L.
Astigarraga bidea, 2, 2.
Oiartzun

BERTSOZALE ELKARTEA
Igeldo pasealekua, 25
Donostia

I.S.B.N.:978-84-89283-54-1
I.S.B.N.:978-84-936159-3-2
L.G.:

AURKIBIDEA

Hitzaurrea
Argibideak eta irizpideak
Bertso saioen mugimendua
Tauletako kontzeptuen azalpena
Txapelketa eta sariketak
1. Herrialde mailako txapelketak
2. Eskolarteko txapelketak
3. Bat-bateko sariketak
4. Bertsopaper lehiaketak
Bat-bateko bertso hautatuak
Bat-bateko sariketak
Saioen aurkibidea
Bertso hautatuak
Bertsolarien aurkibidea
Izen eta izengoitien deskribapena

# HITZAURREA

-Afari bat egin behar genuke elkarren agendak alderatzeko...

«Gure agenda gara» esango zukeen jasateko gai garen guztia merezi dugula idatzi zuenak. Kariñoz betetzen joaten garen liburu gorrotagarriak dira agendak. Zabaltzen ditugunero sustoak ematen dizkigute, kontrol batean harrapatuz gero ordu parea alferrik galduarazi. Beldurgarriak dira beteegiak daudenean, etsigarriak zurian. Gure esku ez dagoena apuntatzen dugu bertan. Pentsa, oporretako gurutzeak ere halaxe markatzen ditugu, egunerokotik burua altxa, eta perspektiba hartzera ausartzen garenetan.

Sukaldeko egutegian apuntatzen ditu abisuak Joxe Agirrek. Agenda hasierako kalendario bertikala gustatzen zaio Maialen-i. Andonirena arte-obra abstraktu batetik oso hurbil omen dago, gezia hemen, mamarratxoa han. Peñari ez zaio tatxoiak egitea gustatzen. Ametsek kantukideen izenak idazteko ohitura du... Eta Xebastianek ez du agenda beharrik.

Niri abenduaren 31n gustatzen zaizkit agendak. Sofan eseri, eskuetan hartu, errepaso bat eman, eta zaharragoen ondoan jasotzea bezalakorik ez baitago urtearen balantzea egiteko. Halako herritan ezagutu zenuen jende kuriosoa, beste hartan nahigabe botatako parrandatxoa, ermitadun auzo hartan kantatutako bertsoa, auskalon izandako despiste barregarria, etxerako buelta amaiezin hura... Gutxi behar du memoriak historia idazteko. Bakoitzak idatziko du berea, gogoratzen duenaren arabera, agendan daukanaren arabera. Hola baizik ez nezake ulertu gure txikitako andereñoak agendari buru-laguna deitzeko zuen mania jatorregi hura.

Buru-lagunak, horixe dira Bapatean-ak. Bidaia luze bateko argazkiak. Jatetxe ospetsu bateko pintxoak. Balore antroplogiko bat izan dezakete. Antolatzen diren saioak, iristen garen herriak, urteetako ohiturak, plazetan dabilen gutxi gorabeherako entzule kopurua...Hasiera-hasieratik, ale guztiak pilatzen joan direnentzat balore sentimentala izango du aurtengoak. Ez besteak baino hobea delako, kolekzionistak hurrengoaren zain bizi direlako baizik. Ezer ikertu nahi duenak izango du nondik ekin. Ikertu gabe ekin nahi dionak ez du zer irakurri eta zer kantaturik faltako. Eta bertso-eskoletarako...

Gogoan dut, hasiberritan, zenbat lagundu ziguten Bapatean-ek. Gai-jartzailea falta edo alpertuta zegoenean, Bapatean 91-a erditik ireki, eta “Murua ala Sorozabal?” galdetuko genion kantukideari. Erantzunaren arabera paperak banatu, saioa egin, eta Murua eta Sorozabalek kantatutakoak irakurriko genituen gero. Ez da ikasbide txarra.

Gerora beste ikasbide asko eman dizkigu, ordea, Bapatean-ek. Bertsolarion agenda konpartitu ofiziala baita liburuki hau. Bakoitzak bere abenduaren 31ko errepasotik utzitako kolorez marraztutako murala. Andoniren mamarratxoak eta Joxeren gurutzeak. Maialenen bertikaltasuna eta Peñaren txukuntasuna. Ez da izango balantze per-tsonala bezain zehatz eta apetatsua. Deus gutxi jakingo du bide-zidorren sigi-sagaz. Baina zer arraio! Zer zentzu du memoria pertsonalak memoria kolektiboaren makulu ez bada?

Afari bat egin behar genuke elkarren agendak alderatzeko. Pertsonaletik kolektiborako saltoan zer galdu eta zer irabazten dugun ikusiko genuke denok, bertso zirkuitu eta bertsokerak nola aldatzen doazen, zer jartzen dugun eskaparatean, zer uzten bazterrean. Aukera ederra litzateke urteko batallitak kontatu eta Bapatean estraofiziala egiteko. Ez garelako gure agendak, baina gure agendak ere bagarelako.

Antzeko zeozer gertatzen da Bapateanekin. Ez gara Bapatean, baina Bapatean ere bagara. Hortik aurrera, gozatu, hunkitu, larrutu, amorrazi, tarareatu, irakurri, potoak kontatu, eszenak irudikatu, “Murua ala Sorozabal?” galdetu, ireki, itxi, bota, oroitu, pentsatu, aztertu, ikertu, ekin... Egizue nahi duzuena. Guk afari bat egin behar genuke.

Sustrai Colina

# ARGIBIDEAK ETA IRIZPIDEAK

1.- Urtean urteko bat-bateko bertsogintzaren lekuko izateko helburuarekin Bertsozale Elkarteak urtero argitaratzen duen bertso bilduma da Bapatean liburua.

2.- Bapatean liburuak 600 bertso inguru jaso ohi ditu, 1995ekoak izan ezik, hura 300 bertsokoa izan baitzen; 2007ko honek 636 bertso dakartza.

3.- Urte batzuetan liburua 2 CD gehigarriz osatu bada ere, oraingoan entzungarri dauden bertso sortak www.bertsozale.com webgunean jarriko dira. Horretarako, liburuan, musika ikur bat (Ø) itsatsi zaie entzungarri dauden bertso sortei.

4.- Liburu hau antologia bat dela esan daiteke hein batean, baina ez bere osotasunean. Liburuaren corpus nagusiak, herritarrek antolatutako bertso-saioetan bat-batean kantatutako bertsoak jasotzen ditu, bertsolariak eta horien saio kopuruak kontuan harturik.

5.- Jakin badakigu egiten diren bertso saio guztien informazioa biltzea ia ezinezkoa dela, baina ziur gaude ehuneko handi batean jasota dagoela. Besterik da grabatzen dena: 2007an 233 saio grabatu dira entzuteko euskarrian, 350 bat ordu guztira.

6.- 2007. urtean, bat-batean kantatutako bertsoak hartu dira kontuan liburu hau egiterakoan, txapelketetakoak izan ezik. Bertsopaperen alorrekorik ere ez da jaso, baina bai bat-bateko gazte sariketetakoak.

7.- Bat-bateko bertsoak idatziz emateko irizpideak (Bertsozale Elkartea, 2004) hartu dira oinarri bertsoak transkribatzerakoan; eta bertan aholkatzen den modura jaso dira kokapen irizpideak. Doinuak, berriz, J. Dorronsorok bildutako Bertso Doinutegiaren arabera izendatu dira.

8.- Xenpelar Dokumentazio Zentroan jasotako informazioa, grabazioak eta horien fitxak baliatu dira liburu hau egiteko.

9.- Hau guztia gauzatzeko oso garrantzizkoa izan da erakunde hauek emandako diru laguntza: Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailordetza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskararen Normalkuntzarako Zuzendaritza Nagusia.

Bertsozale Elkartea

PROBINTZIAK Jaialdiak Plaza Lagun Sari- Hitzal- Ekital- Bereziak Lehia- Txapel-
Didak- Eske- Denera
librekoak artekoak ketak diak dipekoak ketak ketak tikoak
koak

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gipuzkoa | 116 | 174 | 269 | 53 | 20 | 45 | 133 | 11 | 26 | 13 | 17 | 877 |
| Bizkaia | 75 | 90 | 88 | 13 | 10 | 15 | 86 | 9 | 4 | 7 | 1 | 398 |
| Nafarroa | 13 | 37 | 71 | 8 | 3 | 7 | 21 | 1 | 10 | 1 | 1 | 173 |
| Araba | 12 | 13 | 12 | 4 | 2 | 4 | 10 | 0 | 10 | 0 | 0 | 67 |
| Iparraldea | 10 | 12 | 31 | 6 | 2 | 15 | 11 | 0 | 8 | 8 | 9 | 112 |
| Denera | 226 | 326 | 469 | 84 | 38 | 86 | 261 | 21 | 58 | 28 | 28 | 1627 |

GIPUZKOA Jaialdiak Plaza Lagun Sari- Hitzal- Ekital- Bereziak Lehia- Txapel-
Didak- Eske- Denera
librekoak artekoak ketak diak dipekoak ketak ketak tikoak
koak

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bidasoa Beherea | 1 | 9 | 8 | | 4 | 0 | 6 | 0 | 2 | 3 | 0 | 33 |
| Debabarrena | 7 | 22 | 25 | 3 | 2 | 2 | 11 | 3 | 1 | 0 | 5 | 81 |
| Debagoiena | 7 | 9 | 21 | 2 | 3 | 4 | 9 | 0 | 4 | 0 | 0 | 59 |
| Donostialdea | 25 | 35 | 70 | 7 | 5 | 16 | 38 | 2 | 4 | 4 | 3 | 207 |
| Errenterialdea | 18 | 12 | 18 | 6 | 1 | 6 | 14 | 0 | 2 | 3 | 4 | 84 |
| Goierri | 16 | 27 | 48 | 17 | 5 | 6 | 20 | 3 | 7 | 1 | 1 | 151 |
| Tolosaldea | 24 | 26 | 42 | 2 | 0 | 3 | 19 | 1 | 1 | 0 | 2 | 120 |
| Urola Kosta | 18 | 33 | 36 | 16 | 0 | 8 | 17 | 2 | 5 | 2 | 2 | 139 |
| Denera | 116 | 174 | 269 | 53 | 20 | 45 | 133 | 11 | 26 | 13 | 17 | 877 |

BIZKAIA Jaialdiak Plaza Lagun Sari- Hitzal- Ekital- Bereziak Lehia- Txapel-
Didak- Eske- Denera
librekoak artekoak ketak diak dipekoak ketak ketak tikoak
koak

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Arratia Nerbioi | 5 | 3 | 7 | 1 | 0 | 0 | 6 | 0 | 0 | 0 | 0 | 22 |
| Bilbo Handia | 36 | 28 | 32 | 5 | 4 | 4 | 38 | 2 | 1 | 6 | 1 | 157 |
| Durangaldea | 11 | 22 | 14 | 2 | 3 | 4 | 15 | 2 | 0 | 1 | 0 | 73 |
| Enkarterri | 1 | 1 | 7 | 0 | 0 | 1 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 12 |
| Busturialdea | 5 | 9 | 10 | 1 | 1 | 4 | 10 | 2 | 1 | 0 | 0 | 43 |
| Lea-Artibai | 10 | 19 | 8 | 4 | 0 | 2 | 9 | 2 | 2 | 0 | 0 | 56 |
| Plentzia Mungia | 7 | 8 | 10 | 0 | 2 | 0 | 6 | 1 | 0 | 0 | 0 | 34 |
| Denera | 75 | 90 | 88 | 13 | 10 | 15 | 86 | 9 | 4 | 7 | 1 | 398 |

NAFARROA Jaialdiak Plaza Lagun Sari- Hitzal- Ekital- Bereziak Lehia- Txapel-
Didak- Eske- Denera

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | librekoak | | artekoak | | ketak | diak | dipekoak | | | ketak | ketak | tikoak | |
| | koak | | | | | | | | | | | | | |
| Bidasoa | | 3 | 20 | 34 | 7 | 0 | 2 | 1 | 1 | 2 | 0 | 0 | 70 | |
| Erdalgunea | | 7 | 7 | 14 | 0 | 1 | 2 | 15 | 0 | 3 | 1 | 0 | 48 | |
| Mendebaldea | | 3 | 10 | 20 | 1 | 2 | 3 | 5 | 0 | 5 | 0 | 1 | 50 | |
| Pirinioak | | 0 | 0 | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2 | |
| Denera | 13 | 37 | 71 | 8 | 3 | 7 | 21 | 1 | 10 | 1 | 1 | 173 | | |

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ARABA | | Jaialdiak | | Plaza | Lagun | Sari- | Hitzal- | Ekital- | Bereziak | | Lehia- | Txapel- | | |
| | Didak- | Eske- | Denera | | | | | | | | | | | |
| | | librekoak | | artekoak | | ketak | diak | dipekoak | | | ketak | ketak | tikoak | |
| | koak | | | | | | | | | | | | | |
| Aiaraldea | | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2 | |
| Arabako Errioxa | | | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 2 |
| Zuia-Gorbeialdea | | | 1 | 2 | 6 | 1 | 0 | 2 | 2 | 0 | 3 | 0 | 0 | 17 |
| Kantauri arabarra | | | 2 | 4 | 1 | 0 | 2 | 1 | 2 | 0 | 2 | 0 | 0 | 14 |
| Lautada | | 8 | 6 | 3 | 3 | 0 | 1 | 5 | 0 | 4 | 0 | 0 | 29 | |
| Mendialdea | | 0 | 0 | 2 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3 | |
| Denera | 2 | 13 | 12 | 4 | 2 | 4 | 10 | 0 | 10 | 0 | 0 | 67 | | |

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IPAR EUSKAL | | | Jaialdiak | | Plaza | Lagun | Sari- | Hitzal- | Ekital- | Bereziak | | Lehia- | Txapel- | |
| | Didak- | Eske- | Denera | | | | | | | | | | | |
| EUSKAL | | | librekoak | | artekoak | | ketak | | | | | | | |
| BAB | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 2 | 0 | 1 | 3 | 3 | 14 | | |
| BNafarroa – Zuberoa | | | 3 | 4 | 14 | 3 | 0 | 4 | 5 | 0 | 2 | 1 | 1 | 37 |
| Lapurdi barne | | 6 | 7 | 16 | 3 | 1 | 10 | 4 | 0 | 5 | 4 | 5 | 61 | |
| Denera | 10 | 12 | 31 | 6 | 2 | 15 | 11 | 0 | 8 | 8 | 9 | 112 | diak | |
| | dipekoak | | | ketak | ketak | tikoak | koak | | | | | | | |

Tauletako kontzeptuen azalpena

Jaialdia: lau bertsolari edo gehiago eta gaiak emanda.
Plaza librekoa: bi-hiru bertsolari, librean, plazan, jaietan...
Lagun artekoa: jatordu giroan edo antzekoetan gehienbat.
Sariketak: Bat-batekoak: elkarteek, udalek antolatuak edo motibo jakin baten inguruan jokatzen direnak.
Hitzaldiak: Bertsolaritza gai izanik edozein markotan antolatuak.
Ekitaldipekoak: Bertsotarako ez den ekitaldian egindako saioak (omenaldi, ezkontza...).
Bereziak: Saio musikatuak, esperimentalak eta bertso jarriekin eginak.
Lehiaketak: Bertso idatzien lehiaketen ingurukoak.
Txapelketa: Bat-batekoak: Euskal Herrikoa, herrialdeetakoak edo eskolartekoak.
Didaktikoak: Bertsolaritzaren helburu didaktikoa dutenak.

Eskekoak: Etxez etxe eskean egindakoak.

Herrialdeak:

Herrialdeetako sailkapen berritua, azken urteetan, euskararen azterketa soziolinguistikoak egiteko erabiltzen den sailkapenean oinarritu da.

GIPUZKOA
Bidasoa Beherea: Hondarribia eta Irun.
Debabarrena: Deba, Eibar, Elgoibar, Mutriku, Soraluze, Mendaro eta Gatzaga.
Debagoiena: Arrasate, Antzuola, Bergara, Elgeta, Leintz-Gatzaga, Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaleta.
Donostialdea: Lasarte-Oria, Donostia, Astigarraga, Hernani, Andoain, Urnieta eta Usurbil.
Errenterialdea: Pasaia, Lezo, Errenteria eta Oiartzun.
Goierri: Mutiloa, Ordizia, Beasain, Lazkao, Itsasondo, Idiazabal, Zegama, Urretxu, Zumarraga, Legazpi, Segura, Gabiria, Altzaga, Zaldibia, Zerain, Ataun, Olaberria...
Tolosaldea: Aduna, Tolosa, Alkiza, Amezketa, Altzo, Anoeta, Bidegoian, Ibarra, Larraul, Ikaztegieta, Lizartza, Zizurkil, Villabona, Irura, Albiztur, Asteasu, Abaltzisketa...
Urola Kosta: Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Beizama, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia, Aizarnazabal, Errezil eta Aia.

BIZKAIA
Arratia-Nerbioi: Areatza, Artea, Dima, Igorre, Zeanuri, Zeberio, Orozko, Otxandio, Ugao-Miraballes, Arakaldo, Arantzazu, Ubide, Urduña...
Bilbo Handia: Arrigorriaga, Berango, Muskiz, Bilbo, Derio, Erandio, Galdakao, Getxo, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Portugalete, Sondika, Etxebarri, Loiu, Basauri...
Durangaldea: Durango, Abadiño, Berriz, Elorrio, Mallabia, Ermua, Iurreta, Mañaria, Igorre, Amorebieta-Etxano, Zaldibar, Zornotza, Atxondo, Lemoa...
Enkarterri: Galdames, Balmaseda, Zalla, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta...
Busturialdea: Arratzu, Bermeo, Gernika-Lumo, Muxika, Nabarniz, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Gerrikaitz, Sukarrieta, Morga, Ibarrangelua, Kortezubi, Forua...
Lea-Artibai: Amoroto, Berriatua, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Aulesti, Mendexa, Ispaster, Gizaburuaga, Etxebarria, Munitibar-Arbatzegi, Gerrikaitz.

Plentzia-Mungia: Gatika, Mungia, Plentzia, Sopelana, Urduliz, Lemoiz, Gorliz, Bakio, Laukiz, Gamiz-Fika, Arrieta, Barrika, Fruiz, Maruri-Jatabe, Meñaka.

NAFARROA
Bidasoa: Oitz, Donamaria, Ituren, Eratsun, Beintza-Labaien, Arizkun, Elizondo, Anitz, Arantza, Bera, Etxalar, Lesaka, Amaiur, Doneztebe, Irurita, Igantzi...
Erdalgunea: Iruñea, Barañain, Burlata, Berriozar, Zizur Nagusia, Tutera, Antsoain, Arre, Etxauri, Atarrabia, Gares, Noain, Tafalla, Lizarra, Uxue...
Mendebaldea: Altsasu, Urdiain, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Arbizu, Lizarrraga, Lakuntza, Uharte Arakil, Etxarren, Gartzaron, Leitza, Areso, Goizueta, Arano, Uitzi,

Lekunberri...
Pirinioak: Garralda, Orreaga, Orbaizeta, Aribe, Hiriberri, Izaba, Erronkari, Burgi, Agoitz, Zangoza, Zubiri, Erro, Eugi, Otsagi...

ARABA
Aiaraldea: Izarra, Aiala, Arrespaldiza eta Artziniega.
Errioxa Arabarra: Bilar, Oion, Eskuernaga, Eltziego, Kripan, Labastida, Lantziego, Laguardia, Lapuebla de Labarca...
Gorbeia inguruak: Aramaio, Legutio, Zigoitia, Urkabustaiz eta Zuia.
Ibarrak: Zanbrana, Añana, Armiñon, Berantevilla, Kuartango, Lantaron...
Kantauri arabarra: Amurrio, Artziega, Aiara, Laudio eta Okondo.
Lautada: Agurain, Gasteiz, Alegria-Dulantzi, Iruraiz-Gauna, Asparrena, Barrundia, Iruña Oka, Donemiliaga, Burgelu...
Mendialdea: Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Harana, Lagran eta Urizaharra.

IPARRALDEA
BAB: Baiona, Angelu eta Biarritz.
Nafarroa Beherea-Zuberoa: Jatsu, Irulegi, Baigorri, Sohüta, Amikuze, Donaixti, Urdiñarbe, Donibane-Garazi, Aiziritze, Ortzaize, Izpura, Arrosa, Banka...
Lapurdi barnealdea: Hendaia, Urruña, Ziburu, Sara, Azkaine, Senpere, Uztaritze, Ezpeleta, Kanbo, Itsasu, Basusarri, Hazparne, Bidarrai, Lekorne, Larresoro...

# TXAPELKETAK, SARIKETAK,  LEHIAKETAK…

TXAPELKETAK, SARIKETAK,    LEHIAKETAK…

1.- Herrialde mailako txapelketa

Arabako VI. Bertsolari Txapelketa

Txapelketa hiru fasetan egin da: kanporaketak, finalaurrekoak eta finala.

Kanporaketak:

2007-02-24  Amurrioko Xarmant txakolindegia

- Zigor Enbeita
- Asier Otamendi
- Serapio Lopez
- Alberto Martinez Beittto
- Iker Agirre
- Ekaitz Samaniego
- Jagoba Apaolaza
- Xabier Lasa

2007-03-02 Villabuena de Alavako Luis Cañas bodega

- Oihane Perea
- Izar Mendiguren
- Juan Mari Juaristi
- Ruben Sanchez
- Hodei Lopez de Arkaute
- Unai Atxa

2007-03-03 Araia sagardotegia

- Manex Agirre
- Iñaki Viñaspre
- Andere Arriolabengoa
- Rikardo Gonzalez de Durana
- Felipe Zelaieta
- Iosu Ormaetxea

Finalaurrekoak:

2007-03-18 Ondategiko Zigoitia aretoa

- Zigor Enbeita
- Iñaki Viñaspre
- Manex Agirre
- Ruben Sanchez
- Izar Mendiguren
- Felipe Zelaieta

2007-03-25 Aramaioko Kultur Etxea

- Oihane Perea

Asier Otamendi
Juan Mari Juaristi
Rikardo Gonzalez de Durana
Andere Arriolabengoa
Serapio Lopez

Finala:

2007-04-21 Gasteizko Jesus Guridi auditorioa
Oihane Perea (txapelduna)
Iñaki Viñaspre
Asier Otamendi
Manex Agirre
Juan Mari Juaristi
Zigor Enbeita

Epaimahaia: Ekaitz Elorriaga, Felix Irazustabarrena, Mirari Azula, Patxi Aizpurua, Xabier Ormaetxea.

Gai-jartzaileak: Amaia Lopez de Bergara, Garazi Eriz, Gillen Agirre, Irati Errasti, Irati Lotina, Lierni Altuna, Pablo Pagegi.

Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkartea.

Gipuzkoako IX. Bertsolari Txapelketa

Txapelketa lau fasetan egin da: sailkapena, final-laurdena, finalaurrekoa eta finala.

Sailkapen fasea:

2007-09-22 Orioko Kultur Etxea
Agin Rezola
Oskar Alberdi
Joseba Barandiaran
Beñat Gaztelumendi
Iker Alustiza
Joanito Mitxelena

2007-09-22 Legazpiko Latxartegi antzokia
Mikel Arrillaga
Xabier Sukia
Mirari Martiarena
Beñat Lizaso
Iñigo Arzelus
Jokin Sodupe

2007-09-23 Hernaniko Biteri kultur etxea
Joxe Luis Barandiaran
Unai Agirre
Gorka Etxeberria

Uxue Alberdi
Arnaitz Lasarte
Manex Mujika

2007-09-23 Zaldibiko Herri antzokia
Aritz Zerain
Iñigo Izagirre
Haritz Casabal
Joxe Munduate
Unai Guijarro
Zigor Iriondo

2007-09-29 Usurbilgo Sutegi kultur etxea
Felix Zubia
Unai Muñoa
Karmele Mitxelena
Iñaki Petxarroman
Arkaitz Oiartzabal Xamoa
Iñigo Gorostarzu

2007-09-29 Zumarraga-Urretxuko Zelai Arizti aretoa
Iker Zubeldia
Iban Urdangarin
Urko Egaña
Iñaki Apalategi
Beñat Iguaran
Aritz Garin

2007-09-30 Hondarribiko Amuteko kultur aretoa
Nerea Elustondo
Iñaki Zelaia
Unai Gaztelumendi
Hodei Iruretagoiena
Gorka Azkarate
Josu Oiartzabal

2007-09-30 Arrasateko Kultur Etxea
Aitor Sarriegi
Ainhoa Agirreazaldegi
Asier Iriondo
Iker Goñi
Aitzol Barandiaran
Ander Lizarralde

2007-10-06 Ataungo Herri antzokia
Jokin Uranga
Mantxi
Egoitz Eizagirre
Imanol Lizarazu
Arkaitz Zelaia

Maialen Velarde

2007-10-06 Getariako Iturzaeta H.E. antzokia
Andoni Otamendi
Bixente Gorostidi
Oier Aizpurua
Jose Joakin Aizpurua
Jokin Labayen
Aitor Urbieta

2007-10-06 Elgetako Kafe Antzokia
Nahikari Gabilondo
Xabi Astigarraga
Eñaut Uriarte
Egoitz Alkorta
Alaia Martin
Manu Goiogana

2007-10-06 Errenteriako Hiria K.G
Iker Osa
Ibon Miner
Odei Lopez
Ion Ansa
Ibai Esoain
Migel Anjel Aiertza

FInal-laurdenak:

2007-10-20 Azkoitiko Baztartxo antzokia
Iñaki Gurrutxaga
Jexux Mari Irazu
Xabier Sukia
Agin Rezola
Unai Agirre
Joxe Munduate

2007-10-21 Irungo Amaia antzokia
Jon Martin
Uxue Alberdi
Iñigo Izagirre
Unai Muñoa
Aitzol Barandiaran
Josu Oiartzabal
2007-10-27 Eibarko Coliseo antzokia
Amaia Agirre
Iker Zubeldia
Iñaki Zelaia
Arkaitz Oiartzabal Xamoa
Ainhoa Agirreazaldegi
Hodei Iruretagoiena

2007-10-28 Zumaiako Maria eta Jose ikastetxea

- Ekaitz Goikoetxea
- Aitor Sarriegi
- Jokin Uranga
- Bixente Gorostidi
- Mantxi
- Joxe Luis Urdangarin

2007-11-04 Tolosako Usabal kiroldegia

- Aitor Mendiluze
- Jon Maia
- Nahikari Gabilondo
- Ibai Esoain
- Iñaki Apalategi
- Beñat Gaztelumendi

Finalaurrekoak:

2007-11-17 Eskoriatzako Kiroldegia

- Jexux Mari Irazu
- Uxue Alberdi
- Jon Martin
- Ainhoa Agirreazaldegi
- Unai Agirre
- Beñat Gaztelumendi

2007-11-24 Oiartzungo Elorsoro kiroldegia

- Amaia Agirre
- Mantxi
- Jon Maia
- Iker Zubeldia
- Xabier Sukia
- Arkaitz Oiartzabal Xamoa

2007-12-01 Ordiziako Majori kiroldegia

- Aitor Sarriegi
- Aitor Mendiluze
- Iñaki Zelaia
- Unai Muñoa
- Joxe Munduate
- Iñaki Gurrutxaga

Finala:

2007-12-16 Donostiako Ilunbe zezen-plaza

- Aitor Mendiluze (txapelduna)
- Beñat Gaztelumendi
- Jon Martin
- Jon Maia
- Jexux Mari Irazu

Aitor Sarriegi
Unai Agirre
Iker Zubeldia

Epaimahaia: Aitzol Astigarraga, Asier Oiarbide, Bakarne Urreaga, Eneritz Azkue, Felix Irazustabarrena, Iñigo Legorburu, Ioritz Imaz, Jon Agirre, Josu Garate, Joxe Anjel Oiartzabal, Joxe Kruz Labaka, Julian Albistur, Karlos Ibarguren, Martin Aramendi, Miel Mari Imaz, Mikel Aizpurua, Patxi Petrirena, Urtzi Basterrika, Zigor Leunda.

Gai-jartzaileak: Egoitz Aizpuru, Iker Iriarte, Inaxio Usarralde, Jon Agirresarobe, Jon Zaldua, Saroi Jauregi, Unai Elizasu.

Antolatzailea: Gipuzkoako Bertsozale Elkartea.

Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxa.

XXXVII. Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Txapelketa bi fasetan burutu da: finalaurrekoak eta finala.

Finalaurrekoak:

2007-02-24, Etxarri Aranazko Kultur Etxea
Iñigo Olaetxea
Jon Barberena
Bittor Elizagoien
Julio Soto
Eneko Lazkoz
Oier Lakuntza

2007-03-03 Goizuetako Udaletxea
Etxabe
Julen Zelaita
Iñigo Ibarra
Jon Elizetxe
Diego Riaño
Iñaki Aleman

2007-03-10 Goizuetako Musika Eskola
Xabier Silveira
Erika Lagoma
Migel Mari Elosegi
Oskar Estanga
Aritz Saragueta
Alazne Untxalo

Finala:

2007-03-24 Elizondoko Lur dantzalekua

Xabier Silveira (txapelduna)
Jon Barberena
Iñigo Olaetxea Altzugarai
Erika Lagoma
Julen Zelaieta
Etxabe
Migel Mari Elosegi
Bittor Elizagoien

Epaismahaia: Ekintza Landa, Gaizka Sarasola, Jon Abril, Joxe Urroz, Mikel Bujanda, Saioa Mitxelena.
Gai-jartzaileak: Alaitz Rekondo, Manu Legarra, Miren Bidarte, Nerea Bruño.

Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkartea

Babeslea: Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea erakundea.

Laguntzaile Nagusia: Nafarroako Aurrezki Kutxa.

2.- Eskolarteko txapelketak

Urtero bezala udaberrian jokatu ziren eskolarteko txapelketak, lehenik herrialdez herrialde eta gero Euskal Herri mailakoa. Hona emaitza:

Arabako Eskolarteko XI. Txapelketa

Kanporaketak:

Txikiak:

2007-05-19 Gorbeialdeko finalerdia
2007-05-26 Lautadako finalerdia
2007-05-27 Aiara

Handiak:

2007-05-25 Elosua

Finala:

2007-06-02 Armentia

Txikiak:

Guillermo Vegas (txapelduna)
Elyem Chej (bigarren)
Paula Amilburu
Antton Karretero
Lierni Balanzategi
Maialen Mateo

Handiak:

Ander Solozabal (txapelduna)
Ekaitz Samaniego (bigarren)
Xabier Igoa
Joana Kamara
Jagoba Apaolaza
Beñat Goitia

Antolatzaileak: Arabako Bertsozale Elkartea eta Arabako Ikastolen Elkartea.

Bizkaiko eskolarteko XXIV. Txapelketa

Kanporaketak:

14 urte artekoak:
2007-05-23 Bermeo
14-16 urte artekoak:
2006-05-24 Markina-Xemein
17-18 urte artekoak:
2006-05-25 Ondarroa

Finala:
2006-06-01 Bilboko El Carmen aretoa
Gaztetxoak:
Nerea Ibarzabal (txapelduna)
Elene Lejarzegi (bigarren)
Imanol Uria
Maialen Markaida
Andutz Zulaika
Garazi Agirre

Gazteak:
Jone Uria (txapelduna)
Miren Amuriza (bigarren)
Arrate Illaro
Eñaut Uruburu
Aitor Beitia
Xabier Iturraspe
Irati Erkizia
Pello Ormazabal

Antolatzailea: Bizkaiko Ikastolen Elkartea.

Gipuzkoako Eskolarteko XXVII. Txapelketa

Kanporaketak:2007-05-04 Andoain
2007-05-11 Zumaia
2007-05-18 Ordizia
2007-05-25 Legazpi

Finala: 2007-06-1 Bergara:

Gaztetxoak:
Zumarraga-Urretxu A taldea (txapelduna)
Amaia Iturriotz, Maialen Akizu, Leire Akizu
Asteasuko taldea
Haritz Mujika, Imanol Irazustabarrena, Maddi Labaka
Hernaniko taldea
Eñaut Martikorena, Aingeri Otxotorena, Elixabet Pagola, Jon Iturbe
Zumarraga-Urretxu B taldea
Mikel Iturriotz, Ane Agirre, Beñat Torres

Gazteak:
Hodei Iruretagoiena (txapelduna)
Mikel Olaizola (bigarren)
Eneritz Arzallus
Aritz Garin
Ane Labaka
Arnaitz Lasarte
Maialen Velarde
Nekane Zinkunegi

Gai-jartzaile eta aurkezlea: Andoni Egaña.

Epaimahaia: Nagore Soroa, Nahikari Gabilondo eta Mikel Aizpurua.

Antolatzailea: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea.

Iparraldeko Eskolarteko XIV. Txapelketa

Gaztetxoak:
Kanporaketak: 2007-05-10 Donaixti
2007-05-14 Donibane Lohitzune
2007-05-15 Uztaritze

Finala: 2007-06-01 Baiona:

Kanbo A taldea (txapelduna)
Eztitxu Oillarburu, Paxkal Iriart, Amaiur Renteria
Garazi B taldea
Mikel Cherbero, Eñaut Zaldunbide, Jon Irazabal
Hendaia A taldea
Oneka Jauregi, Maddi Ane Txoperena, Ilazki Ortego
Sohüta taldea
Gillen Negueloua, Johaiñe Sarraillet, Ibai Thornary

Gai-jartzailea: Karlos Aizpurua.
Epaimahaia: Beñat Soule, Jokin Arregi, Eneko Bidegain.
Antolatzailea: Iparraldeko Bertsularien Lagunak Elkartea.

Gazteak:
Kanporaketak: 2007-06-02 Senpere
2007-06-09 Izura

Finala: 2007-06-16 Kanbo

Gaztetxuak:
Maddalen Arzallus (txapelduna)
Kristiñe Txoperena (bigarren)
Txomin Elosegi
Maiane Irigoyen
Maindi Murua
Bixente Luku
Elorri Amestoi

Gai-jartzailea: Eneritz Zabaleta.
Epaimahaia: Beñat Soule, Eneko Bidegain, Aitor Renteria.
Antolatzailea: Iparraldeko Bertsularien Lagunak Elkartea.
Nafarroako Eskolarteko XXXI. Txapelketa

Finala: 2007-06-02 Larraintza

Gaztetxoak:
Josu Sanjurjo (txapelduna), Irati Majuelo (bigarren), Ibon Txoperena, Garazi Conde, Adur Yanci, Itziar Baztarrika, Irati Arrieta, Garbiñe Olazar, Eider Azkoaga, Sara Blanco, Haizea Beruete, Amaia Elizagoien, Irati Majuelo, Idoia Saez, Sarai Robles, Miren Valdes, Josu Sanjurjo, Ane Insausti, Sukil Etxenike, Xabier Mayordomo, Irati Arretxea, Uhaina Apezetxea, Iraitz Apezetxea, Ainhoa Zabaleta, Iñaki Ansa.

Gai-jartzaile eta aurkezlea: Joxema Leitza.
Epaimahaia: Ekintza Landa eta Erika Lagoma.

Finala: 2007-05-19 Lesaka

Gazteak:
Alazne Untxalo (txapelduna)
Iker Gorosterrazu (bigarren)
Saioa Alkaiza
Maialen Belarra
Patxi Castillo
Unai Artieda
Egoitz Gorosterrazu

Maite Mendibil
Ioar Tainta

Gai-jartzaile eta aurkezlea: Alaitz Rekondo.
Epaimahaia: Gaizka Sarasola, Ekintza Landa.

Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkartea.

XVIII. Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa

Finala: 2007-06-23, Altsasu

Gaztetxoak:

Amaia Iturriotz (txapelduna)
Imanol Irazustabarrena (bigarren)
Guillermo Vegas
Elyem Chej
Nerea Ibarzabal
Elene Lejarzegi
Ortzi Murua
Paxkal Iriart
Josu Sanjurjo
Irati Majuelo
Eñaut Zaldunbide
Mikel Cherbero
Gillen Negeloua
Johaiñe Sarrailet

Gazteak:

Maddalen Arzallus (txapelduna)
Kristiñe Txoperena (bigarren)
Jone Uria
Mattin Luku
Miren Amuriza
Alazne Untxalo
Bixente Luku
Iker Gorrosterrazu
Mikel Olaizola
Hodei Iruretagoiena
Ander Sorozabal
Ekaitz Samaniego

Gai-emailea eta aurkezlea: Alaitz Rekondo
Epaimahaia: Ekaitz Elorriaga, Mirari Azula, Nahikari Gabilondo, Eneko Bidegain, Jon Abril eta Erik Etxart.
Idazkaria: Igor Muniategi.
Antolatzailea: Ikastolen Elkartea Bertsozale Elkartearen laguntzarekin.
3. Bat-bateko bertso sariketak:

VI. Abra saria
Herria: Algorta (Getxo)
Antolatzailea: Algortako Bertsolari Eskola
Mailak: Bakarra
Finala: 2007-02-24
Finalistak: Aitzol Barandiaran (lehenengo), Odei Barroso (bigarren), Maialen Velarde, Izar Mendiguren,
Ander Elortegi, Peru Vidal.

X. Argi Berri saria
Herria: Ordizia
Antolatzailea: Argi Berri elkartea
Mailak: Bakarra
Finala: 2007-03-10
Finalistak: Alaia Martin (lehenengo), Aitzol Barandiaran (bigarren), Patxi Iriart, Karmele Mitxelena, Mizel
Mateo, Manu Goiogana.
Lehen biak Osinalde sarirako sailkatu ziren: Alaia Martin, Aitzol Barandiaran.

X. Axari saria
Herria: Idiazabal
Antolatzailea: Axari elkartea
Mailak: Bakarra
Finala: 2007-03-16
Finalistak: Arkaitz Oiartzabal Xamoa (lehenengo), Ander Lizarralde (bigarren), Julio Soto, Itsaso Paia, Unai
Gaztelumendi, Erika Lagoma.
Lehen biak Osinalde sarirako sailkatu ziren: Arkaitz Oiartzabal Xamoa, Ander Lizarralde.

VIII. Aztiri saria
Herria: Gabiria
Antolatzailea: Aztiri elkartea
Mailak: Bakarra
Finala: 2007-03-24
Finalistak: Beñat Gaztelumendi (lehenengo), Uxue Alberdi (bigarren), Izar Mendiguren, Iker Agirre, Ibai
Guridi, Aitor Urbieta.
Lehen biak Osinalde sarirako sailkatu ziren: Beñat Gaztelumendi eta Uxue Alberdi.

XV. BBK saria
Herria: Bizkaia
Antolatzailea: BBK, BBE, BIE
Mailak: A maila: 18 urte arte (1988an jaioak barne)
B maila: 18-23 urte (1982an jaioak barne)
Kanporaketak: 2007-02-27 Markina-Xemein
2007-02-28 Igorre
2007-03-06 Arratzu
2007-03-07 Durango
2007-03-13 Bilbo

2007-03-14 Derio
Finala: 2007-03-23 Durango
Sailkapena: 1. Ipar-Uribe
2. Busturialdea
Finalistak: Ipar-Uribe:
A: Imanol Uria, Maialen Markaida, Jone Uria
B: Arrate Ilaro, Peru Vidal, Itsaso Paia
Busturialdea:
A: Aitor Beitia, Beñat Romero, Amaia Aurrekoetxea
B: Amaia Uribe, Olatz Ibarluzea, Ander Elortegi

XII. Berritxu saria
Herria: Berriatua
Antolatzailea: Herriko bertsozale taldea
Mailak: Bakarra
Finala: 2007-06-30
Finalistak: Hodei Iruretagoiena (lehenengo), Kristiñe Txoperena (bigarren), Eñaut Uruburu, Izar Mendiguren, Iñaki Iturraspe, Aimar Karrika, Itxaso Paia, Garikoitz Salcedo.

I. Bertxoko sariketa
Herria: Araba
Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkartea
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2007-11-10 Aramaio
2007-11-17 Etxabarri Ibiña
2007-11-23 Agurain
Finala: 2007-12-01
Finalistak: Jokin Labayen (lehenengo), Itsaso Paia, Eneritz Artetxe, Manex Agirre, Iñaki Viñaspre, Maindi Murua.

GR-12
Herria: Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa
Antolatzailea: Azpetia, Mallabia, Xenpelar, Lasarte, Goierri, Oiartzun, Zumaia, Orio, Zumarraga-Urretxu, Hernani eta Lesakako Bertso-Eskolak
Mailak: Bakarra
Finala: 2007-07-20 Zarautz
Finalistak: Zarauzko Bertso-Eskola: Oier Aizpurua, Hodei Iruretagoiena, Aitor Urbieta (lehenengo)
Zumaiako bertso-eskola: Josu Manzisidor, Manex Elola, Joxe Joakin Aizpurua (bigarren).

III. Hernandorena saria
Herria: Iparraldea
Antolatzailea: Iparraldeko Bertsularien Lagunak
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2007-11-03 Barkotxe
2007-11-10 Larresoro
2007-11-16 Baigorri
2007-11-23 Sara
Finala: 2007-12-08 Aiherra
Finalistak: Maddalen Arzallus (lehenengo), Unai Gaztelumendi, Patxi Iriart, Kristiñe Txoperena, Ekhi Erremundegi, Arrate Illaro, Jone Uria, Eneritz Zabaleta.

I. Larraldea Bertsu saria
Herria: Senpere
Antolatzailea: Iparraldeko Bertsularien Lagunak eta Amotzeko Besta komitea
Mailak: Bakarra
Finala: 2007-07-14
Finalistak: Kristiñe Txoperena (lehenengo), Odei Barroso, Ekhi Erremundegi, Gillen Hiribarren, Patxi Iriart, Karmele Mitxelena, Maindi Murua, Arkaitz Oiartzabal.

XXXI. Lizardi saria
Herria: Zarautz
Antolatzailea: Zarauzko Udala
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2007-09-03
2007-09-04
Finala: 2007-09-07
Finalistak: Beñat Gaztelumendi (lehenengo), Oihana Bartra (bigarren), Aitzol Barandiaran, Unai Muñoa, Jokin Labayen, Mizel Mateo, Karmele Mitxelena, Aitor Urbieta.

IV. Oiartzungo bertsolari txapelketa
Herria: Oiartzun
Antolatzailea: Oiartzungo Bertso-Eskola, Xenpelar Bertso-Eskola
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2007-03-09
2007-03-16
2007-03-23
Finala: 2007-04-28
Finalistak: Arkaitz Goikoetxea-Belda (lehenengo), Aitor Errazkin-Manu Goiogana, Esteban Martiarena-Oskar Ibarguren.

IV. Oñatiko bertsolari txapelketa
Herria: Oñati
Antolatzailea: Oñatiko Bertso-Eskola, Oñatiko Gazte Asanblada
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2007-03-03
2007-03-10
2007-03-17
Finala: 2007-04-07
Finalistak: Josu Igartua (lehenengo), Andoni Goitia (bigarren), Ioseba Lasagabaster, Egoitz Aizpuru, Beñat Alberdi, , Iñaki Olalde.

XI. Orixe saria
Herria: Donostia
Antolatzailea: Añorga kultur eta kirol elkartea
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2007-02-16
2007-02-23
2007-03-02
Finala: 2007-03-11

Finalistak: Unai Agirre (lehenengo), Iker Zubeldia (bigarren), Nahikari Gabilondo, Iñigo Izagirre, Iker Zubeldia, Ibai Esoain.

XXXV. Osinalde saria
Herria: Gabiria
Antolatzailea: Osinalde elkartea
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2007-03-10 Argi Berri
2007-03-16 Axari
2007-03-24 Aztiri
Finala: 2007-04-14
Finalistak: Aitzol Barandiaran (lehenengo), Alaia Martin, Arkaitz Oiartzabal Xamoa, Beñat Gaztelumendi, Unai Gaztelumendi, Karmele Mitxelena. Ander Lizarralde eta Uxue Alberdi Osinalde sarirako sailkatuak bazeuden ere, ez zuten etortzerik izan eta beraien ordez Karmele Mitxelenak eta Unai Gaztelumendik hartu zuten parte.

VI. Plazatik Gaztetxera
Herria: Mutriku
Antolatzailea: Mutriku eta Deba-beheko Bertso-Eskolak, Ondarroa, Deba, Soraluze eta Mutrikuko Gaztetxeak.
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2007-05-11 Deba
2007-05-19 Soraluze
2007-05-25 Ondarroa
Finala: 2007-06-02 Mutriku
Finalistak: Agin Rezola (lehenengo), Alaia Martin (bigarren), Mikel Arrillaga, Beñat Gaztelumendi, Uxue Alberdi, Oier Azula.

IV. Urretxu-Zumarragako txapelketa
Herria: Zumarraga, Urretxu eta Legazpi
Antolatzailea: Urretxu eta Zumarragako Bertso-Eskola
Mailak: Bakarra
Kanporaketak: 2007-06-02 Zumarraga
2007-03-03 Zumarraga
2007-03-09 Legazpi
2007-03-10 Zumarraga
Finala: 2007-03-23 Zumarraga
Finalistak: Ok taldea: Ibon Sotil, Igor Inurritegi, Joseba Barandiaran (lehenengo)
Egin kantu taldea: Amaia Iturriotz, Edurne Plazaola, Gorka Azkarate
Klasikoak taldea: Gorka Erostarbe, Gorka Ganuza, Gorka Ojanguren

IX. Zumaiako txapelketa
Herria: Zumaia
Antolatzailea: Zumaiako Bertsolari Eskola
Finala: 2007-04-20
Finalistak: Unai Gijarro (lehenengo), Josu Manzisidor (bigarren), Joxe Joakin Aizpurua, Manex Elola, Maddi Gallastegi, Jokin Gijarro, Markel Peñalba.

4.- Bertsopaper lehiaketak:

**II. Alegiko bertsopaper lehiaketa**
Herria: Alegia
Antolatzailea: Zazpi astoren gainean Bertsozaleen Taldea
Mailak: A- Gaztetxoak
B-16 urte gorakoak
Sarituak: A: 1. Aratz Irazustabarrena
2. Jone Garmendia
Aipamen berezia: Iurgi Goñi
B: 1. Iñaki Artola
2. Imanol Irazustabarrena

**XII. Arabako eskolarteko bertsolari txapelketa (idatzizkoa)**
Herria: Araba
Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkartea, Arabako Ikastolen Elkartea
Mailak: A: 14 urte arte
B: 15-18 urte
Sarituak: A: 1. Elyem Chej
2. Guillermo Vegas
B: 1. Estitxu Saratxo
2. Ander Solozabal

**VIII. Balendin Enbeita bertsopaper lehiaketa**
Herria: Getxo (Algorta)
Antolatzailea: Algortako bertsolari eskola
Mailak: Helduak: 18 urte bete dituztenak barne
Gazteak: 2007an 18 urte bete dituztenak barne
Sarituak: Helduak: 1. Alaia Martin
2. Amaia Agirre
3. Aitor Albisu
Gazteak: 1. Jone Uria
2. Amaia Iturriotz
3. Mattin Luku

**I. Balendin txiki bertsopaper lehiaketa**
Herria: Getxo
Antolatzailea: Algortako Bertsolari Eskola
Mailak: Bakarra
Sarituak: Zabala eskola: Lide Bretos, Markel Dominguez,
San Nikolas ikastola: Ainhoa Urkitza, Leire Izagirre
Gobela ikastola: Ane Eguren, Ane Gutierrez.
Erromo eskola: Ainhoa Baños, Nahia Bedialauneta
Zubilleta eskola: Julen Fulgencio, Maider Ruiz.
Andra Mari eskola: Garazi Murua, Iratxe Agirregoikoa

Orokorra: Haizea Latxaga, Gorane Veloso, Unai Ruiz de Luna.

**XXIII. Basarri saria**
Herria: Zarautz
Antolatzailea: Zarauzko Udala. Euskara zerbitzua
Mailak: Bakarra
Sarituak: 1. Xabier Azkue “Algorri, harri gorri”
2. Mantxi “Azken sorgin muxua”

**III. Bermeoko bertsopaper lehiaketa**
Herria: Bermeo
Antolatzailea: Bermeoko Udala. Euskara saila
Mailak: A: 12 eta 14 urte bitartekoentzat
B: 14 eta 18 urte bitartekoentzat
Sarituak: A: Amaia Zapiain
B: Aitor Beitia
Aipamen bereziak: Asier Martinez, Imanol Etxeberria

**XXV. Bizkaiko eskolarteko txapelketa: bertso idatziak**
Herria: Bilbo
Antolatzailea: Bizkaiko Ikastolen Elkartea
Mailak: A: LH 5. maila
B: LH 6. maila
D: DBH 1. maila
E: DBH 2. maila
F: DBH 3. maila
G: DBH 4. mailatik 18 urtera
Sarituak: A: 1. Aissa Intxausti
2. Aitor Bizkaia
B: 1. Jon Etxebarria
2. Irati Etxezarraga
D: 1. Josune Aramendi
2. Andutz Zulaika
E: 1. Teresa Lopez de Larruzea
2. Inazio Vidal
F: 1. Oihane Garmendia
2. Irati Astondoa
G:1. Jone Uria
2. Eñaut Uruburu

**XXVII. Gipuzkoako eskolarteko txapelketa: bertsopaperak**
Herria: Donostia
Antolatzailea: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea
Mailak: A: LH 3. eta 4.
B: LH 5. eta 6.
D: DBH 1. zikloa
E: DBH 2. zikloa eta DBHO

Sarituak: A: Itsaso Landa
B: Haritz Mujika
D: Amaia Iturriotz
E: Hodei Iruretagoiena

**IX. Ibon Zabala bertsopaper lehiaketa**
Herria: Errenteria
Antolatzailea: Lau Haizetara. Xenpelar bertso eskola
Mailak: Bakarra
Sarituak: 1. Ane Labaka “Ez dira betiko garai onenak”
2. Amaia Iturriotz “Kaixo Olentzero”
3. Maialen Artetxe “Zuretzat gordeta nituen hitzak usteldu zaizkit”

**XIV. Iparraldeko bertsupaper lehiaketa**
Herria: Euskal Herriko Iparraldea
Antolatzailea: Iparraldeko Bertsularien Lagunak Elkartea
Mailak: A: 3. urtea
B: 4. urtea
D: 5. urtea
Sarituak: A: Joanes Ustaritz, Naia Ollarburu, Naia Corbineau, Olaia Yriarte, Elena Haira, Idoia Iriart
B: Miren Etxeberri, Ttele Hiriart, Haize Arribillaga, Aitzol Sancho, Ibai Thornary, Leire Iribarne
C: Xabi Tenet, Xalbat Dirassar, Armelle Etxenike, Belen Ihidoy-Perez, Lur Renteria, Zuriñe Etxeberria

**X. Joanito Dorronsoro bertsopaper lehiaketa**
Herria: Zumaia
Antolatzailea: Zumaiako bertso-eskola
Mailak: Bakarra
Sarituak: 1. Maddi Gallastegi
2. Aitor Albizu

**XVIII. Koldo Mitxelena literatur sariak: bertsopaperak**
Herria: Donostia
Antolatzailea: Donostiako udalaren euskara patronatua
Mailak: C: 10-12 urte
D: 12-14 urte
E: 14-16 urte
Sarituak: C: Joseba Amiano
D: Maddi Labaka
E: Kepa Matxain

**XVI. Lazkao Txiki bertsopaper lehiaketa**
Herria: Ordizia
Antolatzailea: Argi-Berri elkartea
Mailak: A: 13 urte arte
B: 14-18 urte bitartekoak

C: 1986an edo aurretik jaiotakoak
Sarituak: A: 1. Jone Alberdi
2. Ane Agirre
3. Maialen Akizu
3. Iñaki Dorronsor
B: 1. Ane Labaka “Lazkao-Txiki, okotsetik kopetara”
2. Aritz Garin “Bizitza ez da dirua eta dirua ez da bizitza”
3. Hodei Iruretagoinea “Betini”
3. Amaia Iturriotz “Heriotzaren korridoretik”
C: 1. Amaia Agirre “Gogoan zaituztet”
2. Iñigo Legorburu “Etorkizun hipotekatuak”
3. Ander Lizarralde “80 kandela”

**XIX. Nafarroako eskolarteko bertsolari txapelketa**
Herria: Nafarroa
Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkartea
Mailak: A maila: LH 3. eta 4.
B maila: LH 5. eta 6.
C maila: DBH 1. eta 2.
D maila: DBH 3. eta 4.
Sarituak: A maila: 1. Yoni Salaberria Zabala
2. Itsaso Elizetxe
3. Xabar Matikotxe
B maila: 1. Ainara Etxebide
2. Sukil Etxenike
3. Ainhoa Juanikorena
C maila: 1. Josu Sanjurjo
2. Haizea Huarte
3. Haize Beruete
D maila: 1. Maialen Belarra
2. Ioar Tainta
3. Saioa Alkaiza

**V. Neguko bertsopaper lehiaketa**
Herria: Beasain
Antolatzailea: Arrano kultur elkartea, Bertsoaren Beasaingo lagunak
Mailak: A: 2007an 18 urte baino gutxiago beteko dituztenak
B: 2007an 18 urte edo gehiago beteko dituztenak
Sarituak: A: Uxue Alberdi “Yan Xiaoren azken zigarreta”
B: Ainhoa Mujika “Kriskitin bat egin eta…”
Lehen goierritarra: Ane Labaka “Sutondoan, garai zaharrak gogoan”

**VII. Okelar saria**
Herria: Mutriku
Antolatzailea: Mutrikuko Bertso-Eskola
Mailak: A gazteak: 16 urte arte
B helduak: 16 urtetik gora
Sarituak: A:1. Maialen Artetxe

2. Jone Alberdi
B: 1. Egoitz Alkorta
2. Julen Zelaieta
Saritu gabeko lehenengo mutrikuarra: Joseba Palenzuela

**IV. Sabino Arana bertsopaperen lehiaketa**
Herria: Bilbo
Antolatzailea: Sabino Arana kultur elkargoa
Mailak: A: LH 2. zikloa 3. eta 4. mailak
B: LH 3. zikloa 5. eta 6. mailak
D: DBH 1. eta 2.
E: DBH 3.A eta 4.A
Sarituak: A: 1. Paul Iruretagoiena
2. Bertol Murua
3. Oier Begiristain
B: 1. Jone Alberdi
2. Maialen Akizu
3. Manex Lazkano
D: 1. Elene Lejarzegi
2. Amaia Iturriotz
3. Imanol Irazustabarrena
E: 1. Xabier Iturraspe
2. Eneritz Arzallus
3. Izaro Zinkunegi

**XIII. San Andres bertsopaper lehiaketa**
Herria: Eibar
Antolatzailea: ... eta Kitto! Euskara taldea
Mailak: A: 14 urte arte
B: 14 urtetik aurrera
Sarituak: A: 1. Ibrahim El Moussaoui
2. Leire Garate
B: 1. Arkaitz Mujika
2. Igor Madariaga

**XI. San Antontxu bertsopaper lehiaketa**
Herria: Mungia
Antolatzailea: Mungiako Taket Bertsolaritza Alkartea
Mailak: A: Gazteak (18 urte arte)
B: Helduak (18 urtetik gora)
Sarituak: A: 1. Aritz Garin “Ez dut iraungo beste egun bat gehiago”
2. Ainhoa Mujika “Kaixo Olentzero maitia”
3. Maialen Artetxe “Trena noiz iritsiko zain nago”
B: 1. Julian Albistur “Mohamed eta Amadou”
2. Julen Zelaieta “Gorilarenak”
3. Miel Mari Elosegi “Txantxangorria entzun dut”

**XVI. Xabier Munibe Bertsopaper lehiaketa**

Herria: Azkoitia
Antolatzailea: Udaberri eta Indarlan guraso elkartea
Mailak: A maila: DBH lehen zikloa
B maila: DBH bigarren zikloa
Sarituak: A:
1. Irati Artetxe "Mundua arrano baten ikuspuntutik"
2. Naroa Aiertza Nire ikastola berrian oso gaizki tratatzen naute
3. Miriam Etxaniz "Lehen bat-bateko saiaren aurreko egunak"
4. Amaia Sudupe eta Ane Alberdi "Anorexia"

B:
1. Eneritz Arzallus "Minbizia daukadala esan didate"
2. Izaro Zinkunegi "Amestu nahi nukeena"
3. Tibalt Alberdi "Neu txapeldun edo…"
4. Aitzol Astiazaran "Pobrezia"

Azkoitiar onena: Maialen Artetxe

**XIX. Zapirain anaiak bertsopaper lehiaketa**

Herria: Errenteria
Antolatzailea: Lau Haizetara. Xenpelar Bertso Eskola
Mailak: Bakarra
Sarituak:
1. Karmele Mitxelena "Bizitzari"
2. Xabier Silveira "Guztiek maite naute, ta ez nau inork nahi"

# BAT-BATEKO
# BERTSO HAUTATUAK

AMURRIO (2007-01-06)

Bertsolariak: A. Mendiluze, S. Colina,
A. Arzallus, A. Egaña, U. Iturriaga,
I. Elortza eta J. Maia.

Gai-emailea: Naroa Sasieta.

Amurrioko Herri Antzokian izan zen saioa, berrehun eta berrogeita hamar entzule zeudela. Barakaldoko BECen jokatu zen finalaren ostean, iaz antolatu zuten lehen aldiz saio hau, eta aurten, beraz, bigarren aldia izan zen. Maialen Lujanbiok ez zuen etortzerik izan, baina beste zazpi finalistak han izan ziren. Saioa hotz antzean hasi zen, eta giroa poliki-poliki berotu egin zen.

A. Mendiluze-S.Colina

Gaia: Aitor aita eta Sustrai seme txikia. Gabonetan, Sustraik opariak espero ditu, baina ez du zuhaitz azpian oparirik aurkitu. Honela galdetu dio aitari: “Gaizki portatu al naiz ba?”

Neurria: zortziko handia
Doinua: Hamaika aldiz daukazu lehendik

A. Mendiluze: Ai ene seme, ai ene kuttun
ene bihurri mukizu
“Gaizki portatu al naiz?” galdezka
zatoz kezkati ta izu
beste azalpenik ez nuke behar
baietz esango banizu
baino aita batek opari bat ta
errespeto bat zor dizu.

S. Colina: Hemen ohitura holakoa da
Olentzero opari truk
izaia hutsik ikusi dut ta
sortuak galdera batzuk
gainera zintzo jardun naizela
aitortu berri duzu zuk
zuk nahi duzuna kontatu baina
nik opariak nahi ditut!

A. Mendiluze: Bai bai badakit nahi dituzula
ez dezu esan beharrik!
Nik eman nahiko nizkizuke ta
arren ez egin negarrik
ez det ordea ahalbiderik
ez det nahi nukeen indarrik
ta ulertzen det ez konformatzea

intentzioaz bakarrik.

S. Colina: Joan den urtean aurkitzen nintzen
ni aurten baino hobeto:
bihurrikeri mordoa eginda
ta hala're opariz lepo.
Ahalbiderik ez omen duzu
oparirik egiteko
baina ez zaizu dirurik falta
San Mamesera joateko.

A. Mendiluze: Arrazoi dezu berriro ere
ez nizuke ukatu nahi
zu oparirik gabe zaude ta
ni San Mamesera lasai
bietarako aina diru ez
biak bete ezin ta ai!
Zure ilusio hori hutsa ta
orain neurea ere bai.

S. Colina: Ez da portatu erregerik ta
ez da etorri Olentzero
gaur egunari so diozunez
aurten zero zapatero!
Izaia hutsik dago gaurkoan
eta gaurkoz hala bego
baina berdin zait opari eder bat
bihar ekarri ezkero.

A. Mendiluze: Serio ari zatzaizkit seme
ez da broma ez da burla
ta lekzio hau jaso beharrik
ez nuen uste sekula.
Ziur izan bai opari eder bat
bihar jasoko dezula
baina badakit opari onena
zeuk egiten didazula.

S. Colina: Esan duzunez dirurik gabe
zabiltza azken boladan
lanpostu hura galduz geroztik
onik ez duzu iragan;
eta egunak hegan dijoaz
ondotik ta txandan-txandan...
Erregalorik ez bada ere
San Mamesera eraman!

I. Elortza-J. Maia

Gaia: Jon taxista da, eta Jon Maia miresten du. Gaur, nor igoko taxian eta Jon Maia igo da taxira. Igor Elortzak egingo du Jon Maiarena.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Dama gazte xarmant bat

J. Maia: Joe hau da sorpresa
hara, hara, hara!
Ez dakit irten edo
bolantea laga.
Zu nere idoloa
beti izan zara
bota idazu firma bat
Unai Iturriaga. (bis)

I. Elortza: Lehendik igarri dizut
nahikoa interes
baina niri Unai esan...
Mesedez, mesedez!
Jon Maiak egiten du
dena ala ezer ez;
ni ez naiz segundoi bat
Iturriaga legez! (bis)

J. Maia: Banekien zinela
beti horren apal
horren jatorra eta
horren eskuzabal
baina beste gauzarik
ezin egin ahal
askoz guapoagoa
zera al natural. (bis)

I. Elortza: Azkenean beroa
taxian nagusi
keinua ere egin dit
honek kutxi-kutxi.
Natural antza ez nauzu
ikusten itsusi...
Ba oraindik ez duzu
erdia ikusi. (bis)

J. Maia: Zure disko guztiak
hartu ditut jada
7 eskalerekin
ezin da konpara.
Iaz Riomundo zen
ta aurten Kanada…

Atsedena hartu gabe
nola bizi zara? (bis)

I.Elortza: Artista batek ez du
ez hartzen atseden
orain pentsatu eta
ondoren hasperen.
Atzo korroskada bat
nik grabatu nuen
zuretzako opari
CD baten hemen. (bis)

J. Maia: Ta esaten ez badizut
lehertuko naiz hemen
iazko finalean
ere ze pasa zen?
Juradu eta bestek
hori esan arren
gutxienez bigarren
merezi zenuen. (bis)

I. Elortza: Halaxe joan zen bai
iazko finala
nik badakit hobea
ni baino bat dala
ta Andoni Egaña
hor pasa da hala!
Harrapatu ezazu
nahigabe bezala. (bis)

J. Maia: Utzi zazu total ja
noraezean dabil
bakarrik erortzen da
eta ezin da hil.
Bueno a ze plazerra
eukitzea hain hurbil!
Tori bostekoa ta
segi umil-umil! (bis)

I. Elortza: Despedida hau ezin
nik hartu aintzako
"tori bostekoa" esan
duzu baina txarto
bota kartera hori
taxia por sako!
Txofer partikularra
nahi dut neuretzako. (bis)

OIARTZUN (2007-01-07)

Bertsolariak: A. Arzallus, A. Oiartzabal “Xamoa”, J. Martin, J. Maia, A. Egaña,
J. Zelaieta, X. Paya eta S. Lizaso.

Gai-emailea: Laxaro Azkune.

Etxerat taldeak urtero antolatzen duen bertso jaialdia. Elorsoro kiroldegia ezin gehiago betetzen da. Arratsaldeko seietan hasi eta bi ordu pasatxo iraun zuen.

A. Arzallus-A. Egaña-J. Martin-J. Maia

Gaia: Zuek iaz leku bat baino gehiagotan izan zineten arrazoi ezberdinak medio. Zer-nolako fama daukagu euskaldunok munduan zehar?

Neurria: zortziko handia
Doinua: Elizan sartu ziradenian I

A. Arzallus:
Uda honetan kasualitatez
Bolivian izan nintzan
Euskal Herria ezagutzen zen
galdezka betiko gisan.
Zenbat abizen euskaldun dagon
lapur politikagintzan
gu ere nahiz ta guk bestela nahi
beti ez gara onak izan.

J. Maia:
Gu Kanadara joan ginan ta
han ezin zan imajina
ze eratako izango zuten
euskaldunen imajina.
Orain geranaz deus ez zekiten
iraganaz bai pittina...
Esango nuke gure artean
gertatzen zaigun berdina.

A. Egaña:
Izan liteke irudi txarra
edo imajin xarmanta
baina jendeak gutaz zer dion?
Informazioa falta.
San Franciscora, Bartzelonara
nahiz Parisa aterata
euskal etxeta joaten gera
gu holakoak gera ta.

J. Martin:
Udan nik Kuban pasa nituen

jakina denez lau aste
hara ta hona ibili nintzen
euren iritzien eske.
Aurreiritzi, estereotipo
fede edotа sineste
mirespen asko dugu haietaz
haiek gutaz ez hainbeste.

A. Arzallus: Boliviar askok ez du entzuna
inun euskaldunen hotsik
ta gutxi batzuk “¡Ah terroristas!”
esaten ziguten pozik.
Beraz ez dute deus ezagutzen
beste hori izan ezik
baina hori ez da beraien kulpa
hedabideena baizik.

J. Maia: Ni Parisera joan izan naiz
iaz bidai bat o beste
Asturiaseko Villabonara
ere gutxitan ez uste;
Carabanchela ta Ocañara
ere joanda nago triste
han gu zer geran ez jakin arren
erraz juzgatzen gaituzte.

A. Egaña: Madrilen ere behin egin gendun
bertsotarako debuta;
ederki asko zorroztu gendun
gure mingainaren punta!
“Edo” nahiz “ala” sartzen genuen
nahiz ta ez izan arrunta;
badaezpada ere kantatu gendun
“eta” guztiak kenduta!

J. Martin: Mundua txiki bihurtu dugu
denak denaren ezagun
edozein lekuk edozein leku
ezagutzen du gaur egun;
mundu miope triste honetan
guztiak betaurrekodun
ta kontua da betaurrekoak
zeinek graduatzen ditun.

J. Martin

Gaia: Nola ase behar dugu bake egarria?

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

Abenduaren hogeita hamarra1
benetan egun goibela
aurreko denak ere halatsu
ez zen pasako bestela.
Egia da bai Euskal Herrian
bake egarriz gaudela
egia da bai txorrota denak
hondatu egin direla...
Iturriraino joan beharko da
garai batean bezela.

Nahiz ta eskatu sarri bakea
ez dakit azkar heltzen dan
pazientzia ta batasuna
hartu ditzagun aukeran.
Baina hala're hausnarketa bat
ea egin dezakedan!
Edanda ere ez baitakit nik
asetuko ote geran...
Egarri gehio ematen baitu
zenbat ta gehiago edan.

J. Zelaieta

Gaia: Eguraldi goibel samarra utzi duzu gaur Lesaka aldean.2

Neurria: zortzikoa, molde handia, lau puntuz
Doinua: Sorlekua utziz geroz

Unai mendira joan zinen
gailurra zenuen xede
irrist egin ta gelditu
zinen naturaren mende.
Lesaka aldean eguraldia
goibel zegon alafede
eta tamalez ez du ematen
argituko dunik ere.

Lesakatik etorrita
agurtu berri oraintsu
bihotzaren gailurrera
heldu zarela jakizu.
Bidean bertan denbora doa
aurrera ez gaude itsu
gero arte zuri Unai ta
besarkada bat Estitxu.

A. Arzallus-A. Oiartzabal

Gaia: Neska-mutilak. Mutilak serio samar hasteko gogoa dauka eta neskari proposamen hori egin dio. Neskak, ordea, lagun bezala jarraitzea nahiago du.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Praixku Galtzazarreta

A. Arzallus: Batzutan hor hasten zait
gerritikan heltzen
hurrena kasorik ez
beltzenetan beltzen.
Nahiz eta behin ta berriz
saiatu agertzen
"lagun"-ak ze esan nahi dun
nik ez det ulertzen.

A. Oiartzabal: "Lagun" da zauden baino
pixkat urrunago.
Haseran txolinduta
ninduzun zeharo;
morboa badaukazu
badakizu klaro!
Baina urrundik duzu
askozaz gehiago.

A. Arzallus: Konbentzitzen saiatu
hala ere alperrik!
Nik bota dizkiot ba
hain bertso ederrik…
Urrutitik morboak
ez dula indarrik
orduan begiratu
gertutik bakarrik.

A. Oiartzabal: Nola jarri zalantzan
Ametsen nibela?
Orain artean ondo
geunden dena dela.
Nik badakit ederki
zabiltzan bezela
nik nahi dudan guztitan
nirea zarela.

A. Arzallus: Nahi duzun egunetan
etortzeko parrez
ta ez zatozenetan
uzteko negarrez.
Erabakia hartu

beharko da aurrez:
kantuak dion gisan
dena ala ezer ez!

A. Oiartzabal: Baina eskatzen duzu
Jesukriston pila!
Asko daukazu eta
gehiagoren bila.
Hala bada kontua
adio mutila.
Portzierto ba al daukazu
Sustrairen mobila?

A. Arzallus: Orain emango dizut
hemen daukat klaro:
sei, bat, bost, hiru, zero
apuntau gorago;
lau, bost eta zazpi, sei
ipini lehenago
Ah ta portzierto Sustrai
okupauta dago.

DONOSTIA (2007-01-27)

Bertsolariak: A. Arzallus, M. Lujanbio, S. Lizaso, A. Agirre, A. Egaña, J. Maia,
X. Silveira eta X. Paya.

Gai-emailea: Ander Lipus.

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak urtero antolatzen duen Bertso Eguna. Kursaalen izan zen, arratsaldeko seietan hasita. Oholtzatik sei bertsolari aritu ziren kantari, eta Paya eta Silveira jende artetik. Ander Lipus gidari zela, Txan magoak emanaldi bat egin zuen eta Gu eta Gutarrak taldekoek hiru abesti jo zituzten jendaurrean lehenengo aldiz. Zirko baten itxura eman zitzaion oholtzari, eta dekoratuak asko edertu zuen.

M. Lujanbio-S. Lizaso

Gaia: Mende luzetan izan da kaiola hau emakumeen eredu. Aintzina emakumeek arimarik ba ote zuten eztabaidagai zen jakintzaren guneetan. Sebastian, har ezazu kaiola. Kaiolatik kanpo zaude orain, Maialen. Kontuak kitatu nahi? Nola sentitzen zara, Sebastian, kaiola barruan?3

Neurria: zortziko handia
Doinua: Adixkidia Andoaindikan

M. Lujanbio: Derrepentean aklaratu da
urtetako panorama:
kaiola erdian jarria eta
gero hara eramana.
Ze metafora! Ze laburpena!
Zein zen gizonaren plana?:
nerea bazan nerea dena
ta zurea erdibana.

S. Lizaso: Metaforakin gure bizitza
ez daiteke konparatu
nahiz aldakuntzak heldu direla
egin behar den onartu.
Zurea biontzako omen zen
ez dezu ondo kontatu
zuk lehen erdia eskatzen zendun
ta beste erdia hartu.

M. Lujanbio: Nik bai baitakit kaiola baten
egoteak dakarrena
aizu zuretzat ez det desio
nik izan nuen herrena.
Zure gorputza ez da kabitzen
kaiola hortan barrena
baino buruan kabitzen zaizu

ta hori da okerrena.

S. Lizaso: Buruan soilik sartuko banu
agian nuke mejora
hor sartu eta nere burua
ez da joango inora
ta hor nagola pentsatzeko ere
izan nezake denbora;
pentsamentuak joango dira
reja artetik kanpora.

M. Lujanbio: Emakumea atera bada
zernahi eran, edonola
ba orain berak ez du egin nahiko
lehen izan zuen kontrola.
Garai batean kaiola hola zen
burnizko zakarra hola
gaur egun igual fibrazkoa da
baino halere kaiola.

S. Lizaso: Kaiola gora, kaiola behera
zergatik jarri trantzeko?
Burnizko edo fibrazko izan
beira kopeta beltzeko.
Aginpidea dugun garaian
ar ta emeak antzeko
ez da gizona sartu beharrik
andrea ateratzeko.

M. Lujanbio: Lehen gizonak zun zerraila, giltza
gizonak zun maratila;
lehen gizona zen dominantea
emakumea debila.
Aspaldi gabiltz parez pareko
berdintasunaren bila
jira lurrera, bultza aurrera
ta gurpil izan dedila.

S. Lizaso: Neurriz kanpoko indarkeria
beti behar da gorrota
eta agintzen nor aurkitzen dan
nori ez zaio inporta?
Berdintsu dio kaiolai bultza
edo ostikoz jota bota
bila dezagun berdintasuna
kaiola hutsik dago-ta.

ANDOAIN (2007-01-28)

Bertsolariak: S. Colina, A.M. Peñagarikano,
A. Agirre, J. Sorozabal,
A. Mendiluze eta I. Alustiza.

Gai-emailea: Jose Manuel Oiartzabal.

Bastero kulturguneko beheko aretoan egin zen bertso saioa, igande eguerdiko hamabietan. Ikurrina eta saharar herriaren bandera zeuden oholtzan ikusgai, bildutako dirua saharar herriarentzat janaria erosteko baitzen. Ehun lagun inguru elkartu ziren, eta giro gertukoa eta beroa izan zuten bertsotan egiteko

A. Agirre-J. Sorozabal

Gaia: Amaia Leitzarango autobidearen aurkako borrokan aritu zen lehen, eta orain berriz, AHTren aurka ari da. Jokin, berriz, alde dago, lehen autobiaren aurka aritu zirenak orain berau erabiltzen ari direla dio.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Basatxoritxu moko luzia

A. Agirre: Hamaika jende gu izorratzen
aritu ohi da apropos
errepiderik ez det sekula
nik neuk hartu ilusioz:
lehen kontra nengon, orain ere bai
ta zu kontu eske zatoz
onartu, onar dezaket baina
hala're ez nago ados.

J. Sorozabal: Jende ugari inguratzen da
zenbait gauza esatera
esanak esan, garrantzitsua
izan behar da jarrera.
"Autobiarik ez eta trenik ez"
kaleetako esaera
ta Zumeatik Goiko plazara
kotxian juaten gera.

A. Agirre: Errepideak suntsitu ohi du
aurreko eta atzeko
neronek ere hori hartzen det
ta onartzea hobeto.
Bide eskasak, bide zaharrak
ez naute jartzen trantzeko
aitzakia ona izan daiteke
berandu ailegatzeko.

J. Sorozabal: Beti berandu behin eta berriz
ordulariai begira
ataskoetan izaten dira

makina bat tira-bira;
bideak oso estuak daude
gaurko arazoa hori da
istripurikan ez zan izango
zabalagoak balira.

A. Agirre: Berrikuntzari bide emanez
dabiltzanez aspaldian
patrika lodi eta lotsarik
gabe euren aurpegian.
Aurrerakuntza omen da baina
gure kalte da agian
gu atzeraka ez ote goaz
abiadura handian?

J. Sorozabal: Filosofia merkearekin
gutxi engainatzen nauzu
“aurrera eta atzera goaz”
zergatik esan didazu?
Nik dakidanez gaur eguneko
neurrietan zabiltza zu.
Barkatu baina zenbat zaldiko
automobila daukazu?

A. Agirre: Nik umil-umil erantzuterik
Jokin ez dezu usteko!
Ehun ta berrogehi zaldi zureak;
hori bai, bataz besteko.
Neri motorrak ez dit inporta
ta aitortzea hobeto
lau zaldi aski izaten dira
asto bat eramateko.

J. Sorozabal: Denbora hola pasatzen degu
jo bat eta jo bestera
orain ixildu ta berriz ere
berriz eztabaida bera.
Ni nazka-nazka eginda nago
ta joan gaitezen etxera
ta zu joan zaitez ehun ta berrogehi
zaldiei jana ematera

S. Colina- A.M. Peñagarikano-I. Alustiza

Gaia: Txotx!

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Dama gazte xarmant bat

S. Colina: Holakorik ez gendun

espero inola
hitza entzun orduko
borborka odola;
“Txotx!” esan du lehenbizi
gero jarri hola
bistan da Oiartzabal
ohituta dagola. (bis)

A.M. Peñagarikano: Andoaindar batentzat
ezer ez da arrotz
gainera mintzatu da
indar handiagoz.
Mingaina dauka luze
ta gaia oso motz
orain bere omenez
egin dezagun txotx! (bis)

I. Alustiza: Sagardotegietan
ze giro epela!
Gaia izatez gendun
luze ta itzela
baina ulertu diot
nere ustez honela
hitz gutxi egin eta
edan behar dela. (bis)

S. Colina: Oiartzabal ez al da
tenple betekoa?
Batzuk dioten gisan
dandy konpletoa.
Nolako estiloa
txotx egitekoa!
Ez ote du ematen
Wazemankekoa? (bis)

A.M. Peñagarikano: Wazemanken tankera
dauka nolanahi’re
uste det jarri dela
hau’re nahiko grabe
ta sagardoa berriz
oraindik xuabe
baina enologoek
“Oso onak daude!” (bis)

I. Alustiza: Gai-jartzailea degu
gizon arraioa
nahiz ta kapitalean
naizen ni jaioa
kupelean hain degu
abil ta iaioa
harekin jaso nuen

lehen bataioa. (bis)

S. Colina: Sagardotegirantza
a ze tirri-tarrak!
Geroago denian
krixton ezbeharrak
baina beti bezala
dihoaz liskarrak:
hemengo labeak ta
kanpoko sagarrak. (bis)

A.M. Peñagarikano: Benga upel hortara
egin digute hots:
txorroa txikia ta
txiria ere motx.
Reala jaitsi leike
jeitsi, mekauen sotz!
Ordun Sustraik eta nik
egingo degu txotx! (bis)

I. Alustiza: Hainbat sagardotegi
nintzazke izenda
ikeragarrizkoa
baitegu zerrenda.
Sustraiek ideia bat
eman dit ta benga:
hik wazemank esan dek
eta nik: goazen ba! (bis)

DONOSTIA (2007-02-10)

Bertsolariak: J.M. Irazu-A. Arzallus

Errauskailuaren aurka antolatutako bertso afaria, Zubietako Araeta jatetxean. Kupeltegian izan zen bertso afaria. Jantokia beteta eta jendea bertsoak entzuteko gose. Bi ordu inguruko saioa egin zuten, zati bat librean eta bestea gaiak emanda.

A. Arzallus-J.M. Irazu

Gaia: Oilagor garaia da orain. Amets zelatan dago begira, oilagorren zain, mugarrian eserita zigarroa errez. Horrela dagoela goarda azaldu da, Irazu.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Eguna pasa nekean eta / Andre txarraren bentajak

A. Arzallus: Ondoan daukat zato ardo hutsa
eta koñak petatea
eta Marlboro kaja bat ere
baina ez dago betea
ta guarda jauna dator ondora
eman zaidazu pakea!
Ez det ulertzen delitu al da
zato ardo bat edatea? (bis)
J.M. Irazu: Ta eskupeta ote daukazu
zatoari tiratzeko?
Garaia ere ez al da aizu
etxera erretiratzeko?
Harri gainean hortxe zelatan
Amets zu zaude hitzeko
Odon Elortzak jarri al zaitu
bere mugarrik zaintzeko? (bis)

A. Arzallus: Odon Elortzak ez nau jarri ni
ez sortu istilu larria
ni neu neronen borondatez naiz
honeraino etorria.
Zuk aldez alde kontrolatua
daukazu beti herria
pentsatzen nago zerorri zeran
Odon Elortzak jarria. (bis)

J.M. Irazu: Diputazioan guarda nauzu ni
ez Donostirikan opa
kontu ibili igual neroni

hasiko bainaiz tiroka.
Honi ze multa jarri behar diot
zertan hasi honen kontra?
Antiajuk dazkan ehiztari batek
ez du ezer botako-ta. (bis)

A. Arzallus: Miope batek antiajuak
jaztea gauza normala
konturatu naiz guarda izateko
asko ikasia dala.
Baina tratu bat egingo degu:
nik ez det botako bala
ta zuk herrian zabaldu zazu
hamar bota ditudala. (bis)

J.M. Irazu: Haundi samarra kantatu dezu
egiaren izenean
lehen'e aspaldi ez al zabiltza
alerik bota gabean?
Gaur ere alper alperrik zaude
ehiztarian jardunean
ta gezur hoiek esan behar dira
inuxente egunean. (bis)

A. Arzallus: Guarda guziak izaten dira
jatorrak ta txistosoak
gezurra esaten eta brometan
pasatuz egun osoak.
Tira teatroa utz dezagun
ta garbi azaldu kasoak
aizu ta onak al zeuden lehengon
eman nizkizun usoak? (bis)

J.M. Irazu: Zakurrai eman nizkion denak
hark jan zitun aurrez aurre
bestela ere nik txuletari
nahiago diot egin parre.
Hau da ehiztari profesionala
ez naiz jarriko haserre
multa ttiki bat jarriko dizut:
lanian ezin da erre.

A. Arzallus: Nik baserrian lan egiten det
berdin egun eta gaba
ez dakit zenbat ganadu ditut
ta hoiekin nahiko lan da
eta ehizera atsaldez nator
hemendik einez pasada
nik neure lana baserrian det
eta ehiza jolasa da. (bis)

J.M. Irazu: Baserritarra hizketan hasi
edo gutxienez saia
gezur kontatzen oraingoan bai
a ze aurpegi alaia!
Zazpiak eta ehizian dabil
honek noiznahi dauka jaia
zuen baserrin ze ordutan da
behiak jezteko garaia? (bis)

A. Arzallus: Abila uste zerade baina
dena ez da hor amaitua
tema luzatu egin nahi nizun
ta izan zera kaikua.
Ordubetean hitz egin degu
luze, alajaungoikua!
Dagoeneko nere lagunek
botako zuten nahikua. (bis)

MUTILOA (2007-02-16)

Bertsolariak: S. Lizaso, I. Murua,
A.M. Peñagarikano eta A. Egaña.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Mutiloako Lierni auzoan, Mujika jatetxean, urtero antolatzen duten bertso afaria. Hamaikagarren aldi honetan jende asko, ehun eta hamabost lagun bildu zen. Saio ona izan zen, umoretsua eta hunkigarria tarteka. Unai Elizasu gai-jartzaileak entzuleen parte hartzea bilatu zuen.

S. Lizaso-I. Murua

Gaia: Lizaso baserritarra haserre dago Murua gai-jartzailearekin. 2001eko txapelketan baserritarrak agertzen ziren gaietan, baina 2005ekoan ez.4

Neurria: zortziko handia
Doinua: Haize hegoak hurbiltzen ditu

S. Lizaso: Azken urtetan bertsolaritzan
bada mudantza galanki
ta gaiak ere aldatutzea
hor norbaitek erabaki.
Bertso gaietan baserritarrak
ahaztuxeak izaki
nundik datorren ukatzen dunak
nora dihoan ez daki. (bis)
I. Murua: Guk txapelketa egin genuen
etorkizunan neurrira
ta baserriei zein dago bada
baserri hoiei begira?
Baserritarra bertan dagona
baina kaletik bizi da
ta etorkizuna ezin da eraiki
heriotzaren harira. (bis)

S. Lizaso: Lehena ahaztuta bide berrian
bila zeratela ari
bertsolaritza aldatu dala
gauza askotan nabari;
bide hortatik eten daiteke
loturaren zenbait hari
Uztapide ta Basarri ere
ez al ziren bertsolari? (bis)

I. Murua: Bertsolariak gainera haundiak

ziran bi horiek klaro!
Batek enbido jotzen zuen ta
besteak ondotik hordago!
Ez naiz hasiko gaur egunean
nor den bertsolariago
baina hausturarik ez dan tokian
berrikuntzarik ez dago. (bis)

S. Lizaso: Nik onartzen det iraganetik
berrikuntzara pasoa
baina gaietan ez dut bilatzen
lehen zegon mami goxoa
ta kritikatu gure munduan
sarri askotan jasoa.
Euskaldun zaharrak ulertze ez duna
ez da egizko bertsoa. (bis)

I. Murua: Oh baserritar alper-alperrik
ai zera ekin ta ekin!
Ematekoa emanda dago
bertsoa gai horiekin.
Gaurko gazteak baserrietaz
dira erabat ezjakin
duela hamar urte txapeldunak'e
porru bat zer zan ez zekin. (bis)

S. Lizaso: Porrutan ere aldea dago
jan izanetik errera
azken boladan pasa dezute
onar litekeen barrera;
zuen bidetik amai ezina
berrikuntzaren karrera
Barakaldora joan zineten
ta aurten Santandarrera. (bis)

I. Murua: Oh baserritar zeuk behar dezu
zeuk geroa erabaki
aldatu edo betiko buka
eta lur zabalan jaki.
Barakaldora juan ginan gu
ta irabazi galanki
nora dihoan gaurko gazteak
zertara doan badaki. (bis)

S. Lizaso: Zertara doan badakiela
ulertzea ez zait errez
lehena ahaztuta berrian bila
zoazte halabeharrez.
Gerta ez dedin deskalabrua
gorde oreka mesedez

gerta liteke lehengoa galdu
ta berririk bilatu ez. (bis)

I. Murua: Mantarrak jantzi eta abarkak
ibiltze al zera goizean?
Garoa ebaki orbela bildu
noizbait'e hego haizean;
egite al dezu lana jatenik
ta sega pika noizean?
Etorkizunik ez dago lagun
gauzak berritu ezean. (bis)

S. Lizaso: Gauza berrian bila abitu
baina ez baztertu zaharrik
eta mesedez ez zazu ahaztu
entzule baserritarrik.
Gaurko bertsoak ez du guretzat
lehengoak zuen indarrik
lehen bihotzera iristen ziren
gaur belarrira bakarrik. (bis)

I. Murua: Gaurko bihotzak bertsoa ere
berez dauka onartuta
ez ulertzean gauza normala
zaude jenio txartuta;
bizirik hila da baserria
du geroa agortuta
hargatik orain esnea ere
saltzen da kajan sartuta. (bis)

S. Lizaso: Ze arraiotan berrikuntzakin
sortu hainbeste endredo?
Baserritarrak izan nahi degu
bertso saioen bezero
eta zerorrek kaja aipatu
ez nuen asko espero
bertsolaiak'e zer balio du
behin kajan sartu ezkero. (bis)

I. Murua: Arrazoi dezu azkena emanda
dago behin kajan dagona
bertsolaritza bizitu egin da
aspaldi kajan egona.
Zuri gauz bera sasitu zaizu
zelaia eta sakona
ez baitakizu ongi bereizten
belar txarra eta ona. (bis)

A. Egaña

Gaia: Aspaldian ez zara iristen.5

Neurria: hamaseiko berdina zortzi puntuz
Doinua: Laurogeita hamar urte

Nere ustez oraindik naiz
lehen nintzen mutil xarmanta
oraindik gorputza daukat
sasoiko eta galanta
“maite zaitut” belarrien
ertzera sarritan kanta...
Begiratu Egañari:
ezin liteke aguanta. (bis)
Holakorik ez zitzaidan
gertatu sekula santa
ni ez nintzen atzeratzen
bi minutu hiru tanta
aspaldian det ordea
ezin iritsian planta…
Aspaldin ez naiz iristen
A-8a obran da-ta. (bis)
Onartzen det indarrikan
ia ez daukat kolkoan
nahiz ta erronka sarritan
ibiltzen dedan mokoan.
Hiru segidan botatzen
nituela esan doan
neskak etortzen zirela
arrapaladan mordoan (bis)
Baina umiltzen hasteko
garaia degu gaurkoan
sintzeridade apur bat
jarri nahi nuke jokoan:
ez naiz iristen inundik
horretan hasitakoan
lehen etxean pasatzen zen
ta orain etxerakoan. (bis)

Ez iristea normala
omen degu aidanean
are ta normalagoa
nik daukadan adinean;
hasi segi eta segi
eta buka ezinean
gizonezkoek burua
jeitsi dute azken finean. (bis)
Neroni ere gaur egun
fin ibiltzen naiz lanean

baina ezin dut luzitu
garai bateko planean
baina gaia bertsoa ta
bertsoa gaia denean
nere hirugarrengo harta
iritsi naiz azkenean. (bis)

ZUMARRAGA (2007-03-17)

Bertsolariak: A. Agirre eta J.M. Irazu.

Gai-emailea: Antton Fernandez.

Martxoan Bertsoa izeneko egitarauaren barruan bertso-eskolak antolatutako bertso afaria. Elkartea jendez mukuru eta ordu eta erdi aritu ziren bertsolariak bertsotan. Hasieran librean eta ondoren gaiak jarrita.

A. Agirre-J.M. Irazu

Hasierako puntua emanda.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

A. Fernandez: Izan nahi omen dezu
laster baten ama

A. Agirre: barka! Kontuak parre
eitera narama
horretan izango det
sekulako lana
oraindik ni ez naiz ta
aita baten dama.

A. Fernandez: Esan Amaiai zer dan
aita izatea

J.M. Irazu: ama esan beharko diot
ai Antton maitea!
Umearen atzetik
beti joatea
baino haurrak daki zer dan
poza ematea.

A. Fernandez: Villabonan ez dagon
zer da Andoainen?

A. Agirre: Ohe ta aterpe bat
neretzako omen
berrogei milioitako
kreditua ondoren
ez dezu imajinatzen
ze ondo bizi naizen!

A. Fernandez: Larraul edo Hernani
zein dezu nahiago?

J.M. Irazu: Larraulen jaio nintzan
pozik ta oparo
gero Hernanira juan
ezin nun itxaro
oain berriz Larraulera
joatekotan nago.

A. Fernandez: Zuk berriz aukeratu:
Urretxu o Zumarra?

A. Agirre: Ez dakit omen egin
edo jo adarra
bakarra aukeratzea
da triste samarra
Villabona ainakoik
ez baita bakarra.

A. Fernandez: Bi herriren partez bat
izango bagina

J.M. Irazu: alkate ona aukeratzen
a ze ahalegina!
Bertso-eskola ere
denetan haundina
hilabetez bertsotan
egiten dakina.

MENDEXA (2007-03-18)

Bertsolariak: A. Egaña, S. Colina, A. Mendiluze, X. Paya, E. Lekue eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Iratxe Ibarra.

Urte askotan bertso jaialdirik egin gabe egon ondoren, iaz hasi ziren berriz, eta urtero egiteko asmoa dute. Herriko frontoian izan zen, arratsaldeko seietan. Jende asko eta giro beroa.

A. Mendiluze-S. Colina

Gaia: Aitona-bilobak zarete. Lekeitioko eskolapean jolasean ari zaretela KORRIKA pasatu da. Sustrai bilobak aitonari hau galdetu dio: “Nora doaz hain azkar?”.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Nere gogoa hegan dijoa

A. Mendiluze: Ene iloba galdezka zatoz
bertatik aldamenetik:
nora dihoaz hauek guztiak
nora doaz ta zergatik?
Nik zergatia eta norantza
zein den ederki badakit
urruti doaz oso urruti
bertako izateagatik.

S. Colina: Beraz helmuga omen daukate
Nueva York edo Parisen
urruti nun den nik ez dut eta
oso ondo entenditzen.
Begira nola denak grinatsu
eta sasoian doazen
benga aittitta utzi bastoia
ta eurekin joan gaitezen.

A. Mendiluze: Nola diozu bastoia utzi
ta abia gaitezela?
Ondo dakizu ezin naiz jardun
korrika hoiek bezela.
Lehen ez det esan beren helmuga
hizkuntza indartzea zela
beraz beraien pausoak nere
hitzak izan daitezela.

S. Colina: Begira nola korrika baten
dihoan herri osoa

hemen aitona zaharrena ere
hain dago animosoa
baina zuk beti esan didazu
eta hau ez da kasoa:
poliki egin behar direla
bai hitza ta bai pausoa.

A. Mendiluze: Bai baina mantso abiatzeak
denetan ez du balio.
Hau da Korrika miragarria
aidea dela medio
ez da korrika denak bezela
alderantziz da propio:
honek arnasa estutu ordez
arnasa ematen dio.

S. Colina: Zertan aipatu baina arnasa
hauspoa ta pausokera?
Nik zazpi urte ditut bakarrik
eta ez dira sobera.
Benga aitona joan gaitezen
korri pixkat egitera
eta korrika ezin baduzu
txutxeriak erostera.

X. Paya-E. Lekue

Gaia: Xabi Bizkaiko txapelduna da, eta Etxahun txapela. Egin dezagun atzera. Atzo ezagutu zenuten elkar, baina orain arte ez duzue elkarrekin egoteko aukerarik izan.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Zazpi nobiorena

X. Paya: Guztia emon neban
zu izatearen truke
ta oraindik gehiago
be emongo neuke.
Zure atzetik pasata
horrenbeste urte
ze hormatan jartzea
gurako zenduke? (bis)

E. Lekue: Badakit merezita
txapeldun zarana
baina ai zer gogorra
dan txapelon lana!
Sekula ez dot sufridu
ai ama, ai ama
zuk buruan jartzean

sufridu nebana! (bis)

X. Paya: Jogurt mantxa bat deuko
zuloan atzean
ta artilea bere
buruan jartzean.
Bai, bizi izan zara
itxura beltzean
txarto tratau zaitue
Igorren etxean? (bis)

E. Lekue: Bai nahikoa eskasa
gendun Igor hori
beraz eskakizun bat
eingo deutzut zuri:
horma nigaz bakarrik
triste da agiri
bi urte barru ekarri
laguntxu bat niri. (bis)

X. Paya: Laguntxua gura dau
edarto edarto!
Neure etxean ez zara
egongo zu txarto.
Beraz hamen komodo
ipini beharko
hauxe zure etxea da
urte askorako. (bis)

E. Lekue: Baina ezagutzen dodaz
zure modukoak
harrotu ohi direnak
ta jarri gogoak.
Gu gara txapel baltz bat
kategorikoak
niri ondoan ez jarri
eskolartekoak. (bis)

X. Paya: Lasai zeu behar zaitut
ondo-ondo jagon
egunero eingo'tsut
paretan jaramon
baina orain banoa
txapela hor konpon!
Banoa ikustera
makilak zer dinon. (bis)

E. Lekue: Beraz makila dozu
ni adina maite.
Kontuz! horrek egingo
deutsu noizbait kalte

itxi nire ostean
leiho eta ate
makila itxi egizu
nigandik aparte. (bis)

A. Arzallus-S. Colina

Gaia: Amets, arropa eta janzkeran aldatzen ari da, eta orain depilatzea erabaki du. Barrura sartu, eta depilatzailea bere lehengo neska dela ohartu da.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Agur sagar beltzeran

S. Colina: Lehenago jazten zinen
zarpail eta kirten
azkenaldian berriz
ahal bezain politen.
Fotodepilaziora
sartu eta irten
nahastu egin zaizkizu
uste ta sentipen
nerekin ez zenuen
holakoik egiten.
A. Arzallus: Honera etorri da
aldaketa bila
sartu ta nerbioso
jarri da mutila.
Kontxo nere nobia
lehengo neskatila!
Ba kendu iezadazu
dudan ile pila
ta ahal bada biharko
atera dadila.

S. Colina: Santu itxuran baina
kabroi bat zara zu!
Milaka amenazu
egin dizkidazu.
Erantzi galtzak eta
etzan zaite aizu
gerrian bueltan kriston
basoa daukazu;
neri egindakoa
damutuko zaizu.

A. Arzallus: Ia-ia ez da bere
hitz guztien jabe
baina erantzungo dizut
xuabe-xuabe:
lista zirudin baina

tuntuna hala’re.
Santu kabroi galanta
dula parez pare
ta zortzi urte pasa
konturatu gabe.

S. Colina: Nahiz ta etorri zaren
moderno bezala
ezagutzen zaitunak
ukatu dezala.
Hemendik aldegin behar
duzu berehala
ez zaitez depilatu
ta jantzi txandala
ez zara inoiz izango
metrosexuala.
A. Arzallus: Ba orain egina nago
pajaro galanta
aldatu beharko dut
dakarkidan planta:
tatuaje bat nahi dut
hori ere falta
zure izena idatzi
tantarikan tanta
oaingo nobiak izen
berdina dauka-ta.

S. Colina: Hori ez nun espero
hori al zen dena?
Tatuaje bat nahi dezu
fin ta nabarmena;
egingo dizut ipur
masailan barrena
zure neska lagunak
du nere izena
hala’re izena da
daukan politena.

A. Arzallus: Tira egin zaidazu
jar zazu ganora
gero pare bat piercing
txilborretik gora
zeren aitak esan dit
hori dala moda.
Gero pasa faktura
diruaren froga
zor denak kitatzeko
nahiko izango da.

ELIZONDO (2007-03-24)

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala.
Txapeldunaren agurra

X. Silveira

Neurria: hamahirukoa, molde handia, zortzi puntuz
Doinua: Ligoi bizitza ez da izaten

Ni naiz txapeldun gaurkoan nahiz ta
ja ez harritu gehiegi
baina txapela nik daukat eta
eskeintzen diet haieri
duela hamar urte eskeini
nien haieri bereri:
preso ta iheslarieri
sasietan daudeneri (bis)
eta azkenik eta gehienbat
gehienbat bazait zilegi
euren gaztaro guztia guri
eskeini diguteneri:
Jarrai, Haika eta Segi.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Aita izena kanta beharrak

Hau ez dut sekula egin baina
noizbait behar zuen lehena
azken aurreko bertsoa bota
eta hor doa azkena.
Badago norbait bihotz-bihotzez
omendu nahiko nukeena
irribarretsu ze irribarrak
ezabatzen digu pena:
aupa Estitxu zuretzat muxu
haundi-haundi-haundiena. (bis)

ZUMARRAGA (2007-03-17)

Bertsolariak: A. Agirre eta J.M. Irazu.

Gai-emailea: Antton Fernandez.

Martxoan Bertsoa izeneko egitarauaren barruan bertso-eskolak antolatutako bertso afaria. Elkartea jendez mukuru eta ordu eta erdi aritu ziren bertsolariak bertsotan. Hasieran librean eta ondoren gaiak jarrita.

A. Agirre-J.M. Irazu

Hasierako puntua emanda.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

A. Fernandez: Izan nahi omen dezu
laster baten ama

A. Agirre: barka! Kontuak parre
eitera narama
horretan izango det
sekulako lana
oraindik ni ez naiz ta
aita baten dama.
A. Fernandez: Esan Amaiai zer dan
aita izatea

J.M. Irazu: ama esan beharko diot
ai Antton maitea!
Umearen atzetik
beti joatea
baino haurrak daki zer dan
poza ematea.

A. Fernandez: Villabonan ez dagon
zer da Andoainen?

A. Agirre: Ohe ta aterpe bat
neretzako omen
berrogei milioitako
kreditua ondoren
ez dezu imajinatzen
ze ondo bizi naizen!

A. Fernandez: Larraul edo Hernani
zein dezu nahiago?

J.M. Irazu: Larraulen jaio nintzan
pozik ta oparo
gero Hernanira juan
ezin nun itxaro
oain berriz Larraulera
joatekotan nago.

A. Fernandez: Zuk berriz aukeratu:
Urretxu o Zumarra?

A. Agirre: Ez dakit omen egin
edo jo adarra
bakarra aukeratzea
da triste samarra
Villabona ainakoik
ez baita bakarra.

A. Fernandez: Bi herriren partez bat
izango bagina

J.M. Irazu: alkate ona aukeratzen
a ze ahalegina!
Bertso-eskola ere
denetan haundina
hilabetez bertsotan
egiten dakina.

MENDEXA (2007-03-18)

Bertsolariak: A. Egaña, S. Colina, A. Mendiluze, X. Paya, E. Lekue eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Iratxe Ibarra.

Urte askotan bertso jaialdirik egin gabe egon ondoren, iaz hasi ziren berriz, eta urtero egiteko asmoa dute. Herriko frontoian izan zen, arratsaldeko seietan. Jende asko eta giro beroa.

A. Mendiluze-S. Colina

Gaia: Aitona-bilobak zarete. Lekeitioko eskolapean jolasean ari zaretela KORRIKA pasatu da. Sustrai bilobak aitonari hau galdetu dio: “Nora doaz hain azkar?”.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Nere gogoa hegan dijoa

A. Mendiluze: Ene iloba galdezka zatoz
bertatik aldamenetik:
nora dihoaz hauek guztiak
nora doaz ta zergatik?
Nik zergatia eta norantza
zein den ederki badakit
urruti doaz oso urruti
bertako izateagatik.

S. Colina: Beraz helmuga omen daukate
Nueva York edo Parisen
urruti nun den nik ez dut eta
oso ondo entenditzen.
Begira nola denak grinatsu
eta sasoian doazen
benga aittitta utzi bastoia
ta eurekin joan gaitezen.

A. Mendiluze: Nola diozu bastoia utzi
ta abia gaitezela?
Ondo dakizu ezin naiz jardun
korrika hoiek bezela.
Lehen ez det esan beren helmuga
hizkuntza indartzea zela
beraz beraien pausoak nere
hitzak izan daitezela.

S. Colina: Begira nola korrika baten
dihoan herri osoa

hemen aitona zaharrena ere
hain dago animosoa
baina zuk beti esan didazu
eta hau ez da kasoa:
poliki egin behar direla
bai hitza ta bai pausoa.

A. Mendiluze: Bai baina mantso abiatzeak
denetan ez du balio.
Hau da Korrika miragarria
aidea dela medio
ez da korrika denak bezela
alderantziz da propio:
honek arnasa estutu ordez
arnasa ematen dio.

S. Colina: Zertan aipatu baina arnasa
hauspoa ta pausokera?
Nik zazpi urte ditut bakarrik
eta ez dira sobera.
Benga aitona joan gaitezen
korri pixkat egitera
eta korrika ezin baduzu
txutxeriak erostera.

X. Paya-E. Lekue

Gaia: Xabi Bizkaiko txapelduna da, eta Etxahun txapela. Egin dezagun atzera. Atzo ezagutu zenuten elkar, baina orain arte ez duzue elkarrekin egoteko aukerarik izan.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Zazpi nobiorena

X. Paya: Guztia emon neban
zu izatearen truke
ta oraindik gehiago
be emongo neuke.
Zure atzetik pasata
horrenbeste urte
ze hormatan jartzea
gurako zenduke? (bis)

E. Lekue: Badakit merezita
txapeldun zarana
baina ai zer gogorra
dan txapelon lana!
Sekula ez dot sufridu
ai ama, ai ama
zuk buruan jartzean

sufridu nebana! (bis)

X. Paya: Jogurt mantxa bat deuko
zuloan atzean
ta artilea bere
buruan jartzean.
Bai, bizi izan zara
itxura beltzean
txarto tratau zaitue
Igorren etxean? (bis)

E. Lekue: Bai nahikoa eskasa
gendun Igor hori
beraz eskakizun bat
eingo deutzut zuri:
horma nigaz bakarrik
triste da agiri
bi urte barru ekarri
laguntxu bat niri. (bis)

X. Paya: Laguntxua gura dau
edarto edarto!
Neure etxean ez zara
egongo zu txarto.
Beraz hamen komodo
ipini beharko
hauxe zure etxea da
urte askorako. (bis)

E. Lekue: Baina ezagutzen dodaz
zure modukoak
harrotu ohi direnak
ta jarri gogoak.
Gu gara txapel baltz bat
kategorikoak
niri ondoan ez jarri
eskolartekoak. (bis)

X. Paya: Lasai zeu behar zaitut
ondo-ondo jagon
egunero eingo'tsut
paretan jaramon
baina orain banoa
txapela hor konpon!
Banoa ikustera
makilak zer dinon. (bis)

E. Lekue: Beraz makila dozu
ni adina maite.
Kontuz! horrek egingo
deutsu noizbait kalte

itxi nire ostean
leiho eta ate
makila itxi egizu
nigandik aparte. (bis)

A. Arzallus-S. Colina

Gaia: Amets, arropa eta janzkeran aldatzen ari da, eta orain depilatzea erabaki du. Barrura sartu, eta depilatzailea bere lehengo neska dela ohartu da.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Agur sagar beltzeran

S. Colina: Lehenago jazten zinen
zarpail eta kirten
azkenaldian berriz
ahal bezain politen.
Fotodepilaziora
sartu eta irten
nahastu egin zaizkizu
uste ta sentipen
nerekin ez zenuen
holakoik egiten.
A. Arzallus: Honera etorri da
aldaketa bila
sartu ta nerbioso
jarri da mutila.
Kontxo nere nobia
lehengo neskatila!
Ba kendu iezadazu
dudan ile pila
ta ahal bada biharko
atera dadila.

S. Colina: Santu itxuran baina
kabroi bat zara zu!
Milaka amenazu
egin dizkidazu.
Erantzi galtzak eta
etzan zaite aizu
gerrian bueltan kriston
basoa daukazu;
neri egindakoa
damutuko zaizu.

A. Arzallus: Ia-ia ez da bere
hitz guztien jabe
baina erantzungo dizut

xuabe-xuabe:
lista zirudin baina
tuntuna hala're.
Santu kabroi galanta
dula parez pare
ta zortzi urte pasa
konturatu gabe.

S. Colina: Nahiz ta etorri zaren
moderno bezala
ezagutzen zaitunak
ukatu dezala.
Hemendik aldegin behar
duzu berehala
ez zaitez depilatu
ta jantzi txandala
ez zara inoiz izango
metrosexuala.
A. Arzallus: Ba orain egina nago
pajaro galanta
aldatu beharko dut
dakarkidan planta:
tatuaje bat nahi dut
hori ere falta
zure izena idatzi
tantarikan tanta
oaingo nobiak izen
berdina dauka-ta.

S. Colina: Hori ez nun espero
hori al zen dena?
Tatuaje bat nahi dezu
fin ta nabarmena;
egingo dizut ipur
masailan barrena
zure neska lagunak
du nere izena
hala're izena da
daukan politena.

A. Arzallus: Tira egin zaidazu
jar zazu ganora
gero pare bat piercing
txilborretik gora
zeren aitak esan dit
hori dala moda.
Gero pasa faktura
diruaren froga
zor denak kitatzeko
nahiko izango da.

ELIZONDO (2007-03-24)

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala.
Txapeldunaren agurra

X. Silveira

Neurria: hamahirukoa, molde handia, zortzi puntuz
Doinua: Ligoi bizitza ez da izaten

Ni naiz txapeldun gaurkoan nahiz ta
ja ez harritu gehiegi
baina txapela nik daukat eta
eskeintzen diet haieri
duela hamar urte eskeini
nien haieri bereri:
preso ta iheslarieri
sasietan daudeneri (bis)
eta azkenik eta gehienbat
gehienbat bazait zilegi
euren gaztaro guztia guri
eskeini diguteneri:
Jarrai, Haika eta Segi.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Aita izena kanta beharrak

Hau ez dut sekula egin baina
noizbait behar zuen lehena
azken aurreko bertsoa bota
eta hor doa azkena.
Badago norbait bihotz-bihotzez
omendu nahiko nukeena
irribarretsu ze irribarrak
ezabatzen digu pena:
aupa Estitxu zuretzat muxu
haundi-haundi-haundiena. (bis)

ZEGAMA (2007-04-01)

Bertsolariak: S. Lizaso, I. Zubeldia, A. Arzallus, S. Colina, A. Mendiluze eta X. Paya.

Gai-emailea: Saroi Jauregi.

Kasino Elkarteak urtero antolatzen duen jaialdia. Pilotalekuan izan zen, arratsaldeko seietan, eta jende multzo ederra elkartu zen ber-tsoak entzutera.

A. Mendiluze

Gaia: Urtetan prostituta gisa egin duzu lan. Duela gutxi erretiratzea erabaki zenuen, baina orain bakarrik sentitzen zara.

Neurria: hamalauko ertaina
Doinua: Haize hegoa gau epela

Zenbat urte lan honetan
erretiroaren zai
iritsi da momentua
eta ez nago lasai
egunero bost bezero
asteburuetan jai
orain egun denak libre
lan hortatik baina ai!
Sentitu naiz maitatua
askoren bikote gai
sentitu det banuela
hortako mila dohai
badakit bai gezurra zen
ta ez nuen sinistu nahi.
Bukatu da etapa bat
gazi-gozoz betea
eta ez zait gutxi kosta
“akabo” esatea.
Estua zen hortan lotu
nahi ninduten katea
baina moztu arren ez det
aurkituko pakea.
Lehen askoren besoetan
euren mende joatea
ez nintzen ta sentitu naiz
ni askoren maitea
batzutan zein polita den
itxurak egitea.

Bizitzaren momentuak
zail da ondo hartzea

nahiko nuke txanpon baten
pare konparatzea:
balio du ta nahi degu
geuretzako lortzea
baino aurreko aurpegiak
hor du bere atzea.
Zein gogorra egin zaidan
bakarrik geratzea!
Orain nere esku dago
une hau gainditzea
ia lortzen dudan neure
burua maitatzea.

ZUMAIA (2007-04-13)

Bertsolariak: A. Arzallus, A.M. Peñagarikano,
M. Lujanbio, J. Uranga, J. Agirre eta X. Paya.

Gai-emailea: Jon Maia.

Joxe Agirreren urtebetetze egunean izan zen jaialdia, eta Joxeri tarta bat oparitu zitzaion eta denen artean "Zorionak zuri" kantatu zioten. Une hunkigarria izan zen. Jaialdia gaueko hamar eta erdietan izan zen, Aita Mari zineman. Ohi bezala, erabat bete zen aretoa.

A. Arzallus-J. Uranga

Gaia: Gazteak zineten eta gazteak zarete. Urteak daramatzazue etorkizuna zuen esku dagoela entzuten. Zer dago zuen esku, eta zer ez? Etorkizuna iritsi da. Oraina da.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Uso zuri bat inguratu zait I

A. Arzallus: Nahiz eta lehendik hamaika bide
hemen bageran egina
beti geroa, etorkizuna
eskutan hartzeko grina;
biharamuna bezela da hori
egun haundi bat jakina
ez da iristen ta iristen bada
kristoren buruko mina.
J. Uranga: Gure zaharrek bere izerdia
ezin zapiaz lehortu
Euskal Herri bat ona uzteko
hamaika indar agortu
gaur egunean ordea degu
lehen aina basamortu.
Gure eskutan zegola baina
ia ez degu ezer lortu.

A. Arzallus: Ezinezkoak izaten dira
geroa ta iragana
baina esaten da geronek egin
beharko dugula plana.
Guri ez digu inork galdetzen
nork entzun gure esana?
Ta azkenean iritsiko da
baina besterek emana.

J. Uranga: Baina besteek emandakoak

ez digu pozik ematen
ta pozik gabe ez da erraza
zoriontsua izaten
pentsatzen nago gerora ere
zerbait lortu genezakeen…
Gu ere ohitu egin baikera
besteren eskutik jaten.

A. Arzallus: Baina hala ere geroa zer den
galdera horren harira
bizitza honek dun absurduaz
eman det hamaika jira:
pertsona erdiak etorkizunai
begira egoten dira
ta beste erdiak melankoniko
iraganari begira.

J. Uranga: Guk nahi badegu etorkizunan
amets goxoei eustea
ta nahi badegu garai bateko
kate astunak haustea
gauza bakarra ein genezake
hori da nere ustea:
zaharragoek egin zutena
gazteagoei uztea.

A. Arzallus: Baina holako galderekin ni
ez naiz urtzen egunero
hori bertsoa bezelaxe da
tira bertso hauxe edo:
hau pasatu da ta mejoratzeik
ia ezin liteke espero
ta mejoratu behar baldin bada
mejorauko degu gero.

A.M. Peñagarikano-J. Agirre

Gaia: Jarraitu dezagun aurreko ildotik. Barkatuko didazue horrela esatea baina… Zuek garai honetakoak bai, baina aurreko garaikoak ere bazarete. Konta iezaguzue garai hura ezagutu ez genuenoi, lehen nola ziren gauzak.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Santa Barbara zure bizitza I

A.M. Peñagarikano: Ze garaietan jaioa naizen
egin didate galdera:
amerikarrak kohete baten
behin han ilargi aldera

Amstrong ta Aldrins, Collins ere bai
hiru lagunak batera
ene ze urtetan jaioa naizen
hortik kontuak atera! (bis)

J. Agirre: Bakoitzak berak pentsatu behar
ez da gauza nabarmena
honen aldean zaharra naiz ni ta
saiatuko naiz ahal dena:
probatu nitun gerra soinuak
ta Patxiren rejimena
hargatik txiki gelditu nintzan
gehiago hazi behar nuena. (bis)

A.M. Peñagarikano: Berriro ere jarri behar det
adibide bat apaina
Bahamontesentzat Frantziko Tourra
hark egin zuen azaña.
Gogoan daukat Gabikarentzat
izan zan Vuelta España;
beraz urteak dauzkat visagrak
erdoiltzen hasteko aina. (bis)

J. Agirre: Gabika eta gainontzekoakin
badakit nora zuazen
baina nik ere esan behar dizut
zerbait oker edo zuzen:
zure aldean lehengo gauzak nik
nola zaharragoa naizen
Arria eta Korta aizkoran
ezagutu al zinuzen? (bis)

A.M. Peñagarikano: “Ze urte dauzkak?” galdetzen dute
saioero-saioero
“Ibarretxeren kintakoa naiz”
ta aitortuko det gero
Sharon Stone’e kintakoa det
asko jarri ditu bero;
kauen la ez naiz ni horren zaharra
ondo pentsatu ezkero! (bis)

J. Agirre: Zein kinta lagun izan dituan
ere aditu diot nik
ez gero pentsa Peña honekin
aguantatzen giro danik!
Ni soldadu’re ez nitzan joan ta
ez det egingo gauza onik
nere kintoan ez zan izango
aipatutzeko gizonik! (bis)

A.M. Peñagarikano: Joxe Agirre sasoiko dago
ez argal eta ez plako
oraindik ere bertsotarako
presentatzen zera guapo;
ta soldaduska ez zala joan
ene zenbat negar malko!
Zu joan gabe geratu al zinan
inutila zinalako?
Barkatu esan dedalako. (bis)

J. Agirre: Joxe Agirrek inutila ez dan
muestrak azaldu ditu
lau seme-alaban aita izan naiz
nahi dezutenak aditu;
horrek ez dauka zer esanikan
nahiz joan gabe gelditu
poz bat bakarrik daukat bizitzan
Franco ez nula serbitu. (bis)

A.M. Peñagarikano: Aizu Agirre postura hortan
orain ez zaitez gelditu.
Honek bertsoak disimuloan
galantak botatzen ditu.
Baina bukaera ez zuen behar
“Franco ez nula serbitu”
horrek bukaera izan behar zuen
“Franco ez nula garbitu!” (bis)

J. Agirre: Errezena zan garai batean
hori pentsatzen hastea
uste al dezu nahi dezun dana
esaten zuri uztea?
Aitona egin behar zun garaian
hartu zuen emaztea
lehenago mutilzaharra genduen
ta orain gizon gaztea. (bis)

A.M. Peñagarikano: Axaria ta adar jolea
Agirre Orandakua;
oaingoan ere zuk bota dezu
hemen beti-betikua.
Hoita hamasei urte zenitun
zu ere ez zinan mutikua
eta andrea hartu zenuen
hemeretzi urtekua. (bis)

J. Agirre: Ikusten danez ni ez neguen
inutila edo eria
nahiz honek esan nik banuela
zerbaitetan aberia;

mutilzahartuta gero hartu nun
sasoi-sasoiko loria
zuk nahi dezuna esan zazu baina
hori da kategoria! (bis)

GASTEIZ (2007-04-21)

Arabako Bertsolari Txapelketaren finala.
Txapeldunaren agurra

O. Perea

Neurria: hamabiko handia
Doinua: Haizea dator ifarraldetik

Txapela ez da gauza haundia
baina legala da behintzat.
Hainbeste zorte ez daukatenak
hartu nahi nituzke aintzat:
bere aurpegia jende aurrean
agertu ezin dutenentzat
bertso eskoletan buru belarri
ari zareten neskentzat
aita ta ama ta Norarentzat
Olatzentzat ta Unairentzat
eta bertsoa maite duzuen
euskaltzale guztientzat.

ITSASU (2007-04-28)

Bertsolariak: U. Agirre, J.M. Irazu, M. Lujanbio, U. Iturriaga, J. Zelaieta, I. Ibarra, A. Mendiluze, A. Egaña, E. Lekue eta S. Colina.

Aurkezlea: Saroi Jauregi.

Gai-emaileak: Joana Itzaina eta Saroi Jauregi.

Hitzetik Hortzera programak denboraldiko azken emanaldia grabatzeko antolaturiko ekitaldia. Aurretik bazkaria izan zen, Itsasuko Sanoki gelan, arratseko ordubietan. Txomin Arizaga eta Jeannot Gurrutxegi musikariak aritu ziren bazkal ondoren musika jotzen eta giroa alaitzen.

S. Colina-U. Iturriaga

Gaia: Bi baserritar zarete. Terreno edo lur kontuak zirela eta beti iskanbiletan aritu zarete. Hil ondoren biok elkarren ondoan lurperatu zaituztete.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Dama gazte xarmant bat
S. Colina: Bizi ginela ginen
ausart eta brabo!
Gero beste mundura
halatsu igaro.
Unai joan zaitea
pixkat haratago
zure ezkerreko hanka
nere hilkutxan dago. (bis)

U. Iturriaga: Berriro ere disputan
hasi gara txarto
nere ezkerreko hankak
egin badu salto.
Hezurrak gobernatzen
dut arazo franko
ez zaitut akatuko
hilda zaudelako. (bis)

S. Colina: Kutxan daramazkigu
urteak hiru-lau
ta nere amorruak
lehengo hartan dirau
baina ez naiz kixkaldu
denbora joan arau

zu ondoan eukitzeak
berpiztu egin nau. (bis)

U. Iturriaga: Mehatxua izan da
eta beraz kasu!
Jesukristo bezala
piztu zara aizu
tente jartzeko ere
kapaza zara zu
bizian baino itxura
hobea daukazu. (bis)

S. Colina: Bizirikan ez neukan
itxura itzela
banekien mutiko
eskasa nintzela
baina zuri begira
ez harritu bela
ozpindu egin zara
ardoa bezela. (bis)

U. Iturriaga: Eman baitizkidazu
albotik ostiak!
Ardo botilak daude
hilda garestiak.
Zizareak mantendu
behar ditut bustiak
eskerrak luze irauten
duela whiskiak. (bis)

S. Colina: Ze nolako hildako
kalamidadeak!
Berpizten zaizkienak
abilidadeak.
Hartu itzazu nire
nitxo ta loreak
baina bakean utzi
nire zizareak. (bis)

U. Iturriaga: Honi ezin zaizkio
sinistu erdiak
hitzak ez ditu izan
sekula argiak;
zizareak aipatu
ta ez kontu garbiak
lehen be neure lurretan
baitzeuzkan ardiak. (bis)
M. Lujanbio-U. Agirre

Gaia: Bikotea zarete. Elkarrekin bizitzen jarri zinetenean bakoitzak bere etxetik gauza mordo bat ekarri zenuten, bion pisu berrira. Familia hazten doa, lekua gutxitzen, eta garbiketa egin behar duzue. Ezkondu aurreko zuen pitxiak eta beste zenbait gauza bota egin beharko dituzue.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Praixku Galtzazarreta

M. Lujanbio: Lehengo karraio lanak
ziren galakoak
orain irtenbideak
nola-halakoak…
Nere gauzatxoak dira
xume mailakoak
eta zure trasteak
zure tailakoak.

U. Agirre: Laguna jartzen dezu
mila konpromezu
zuk trastea galanki
ta neurean kexu.
Ikastola garaitik
txorauta zaude zu
lehen mailako apunteak
bota ditzakezu.

M. Lujanbio: Hor dago nere bizi
eta nere garun
aurretik bestetatik
ezin al da jardun?
Pentsatu zure andreak
gorde behar al dun
zure andregai ohien
bi argazki album?

U. Agirre: Hoiek botatzea da
neretzat tristea
lehenak sortzen baitu
gaur buruhaustea.
Hogei kontatu arte
hobe deu hastea;
benga bota ditzagun
zuk bat nik bestea!

M. Lujanbio: Zure aman opariak
ere tira-tira
hogeita lau plater ta
koperi begira;
tenedore kutxara
altxor bat hori da.
Ederrak ziran baina

hautsez bete dira.

U. Agirre: Hainbat gauza al dedan
badaukat mamua
igual hoik gordetzea
ez degu sanua
baina zurea ere
aipatzera nua
amonak eman zizun
bajilla txinua.

M. Lujanbio: Hoiek ziran amonak
neri ematekoak
politak dira eta
pega gabekoak.
Armaio hontan berriz
gauz apartekoak:
hamazazpi bat txapel
eskolartekoak.

U. Agirre: Eskolartean banun
hamaika aldarte
han kantatzen genduen
guztiak jo ta ke.
Hamazazpi txapelak
ez dauzkat aparte
nik irabazten nuan
bera hasi arte.

M. Lujanbio: Berak irabazten zun
ezin egin uko
ojalatazko kopa
mordo bat lekuko;
orduan nahiko gerra
bagendun gertuko
ordun ez, oain ez gera
ba haserratuko?

U. Agirre: Zer pentsatzen deun biak
garbi honezkero
gauzak botatzerikan
ez zazu espero.
Etxe bat eros deigun
ondokoa edo…
Hura bizitokia
eta hau trastero.

A. Mendiluze-U. Iturriaga

Gaia: Gernika, pakearen herria. Hirurogeita hamar urte. Oroitzapenak. Ospakizuna. Merezi du gogoratzea? Ospatzea?

Neurria: zortziko handia
Doinua: Ilun ikarak azken argia

A. Mendiluze: Sarraskiaren sinonimoa
da Gernikaren izena
denok gogoan izango degu
aspaldian pasa zena.
Omenaldiak eta ekintzak
prestatzea errezena
baina "pakean hiri" deitzea
agian ez da zuzena.

U. Iturriaga: Koadro bati esker bihurtu bada
bonbaketa denen lagin
agintari ta mila gorbata
hara biltzen dira arin.
Gogoratzeak mereziko du
berriz gertatu ez dadin
nere galdera da orain arte
zergatik ez duten egin.

A. Mendiluze: Komeni zaigun gauzatarako
ez degu oroimen faltik
baina askotan ahaztutzen gera
garbi esan gabe zergatik.
Bonban hotsa ta koadro polit bat
gelditu ziren hartatik
orain koadroa Madrilen dago
ta bonbak, bueno, ez dakit.

U. Iturriaga: Ibarretxe jaun zibernetiko
bakea behar da esaten
bien bitarte beste batzuek
bakea lortu dezaten.
Eta mundua mila bonbakin
jendeak ze eroapen…
Bagdagek ere koadro polit bat
eukiko du egun baten.

A. Mendiluze: Eta guretik mila irudi
igual bana ditzakegu;
gaur ere berriz ez da Gernika
pake onaren eredu.
Alemaniarrak heldu ziren ta
haiek ziren ta ginen gu;
orain zein ta zein aparte jarri

nork banatuko ote du?

U. Iturriaga: Ez dut zalantzan jarriko gero
orduko jentean mina
ez dut zalantzan jartzen nik gaizki
gaizkile batzuk egina
baina zalantzan bai ipintzen dut
jende askoren dotrina:
leihoan azkar aldatu zuten
Rojigualda ta Ikurriña.

A. Mendiluze: Zeuk esan dezu ta neuk ez nuke
egokiago esango
askon barruan ez direlako
hain desberdinak izango.
Zein ez ditugun omendu behar
ustez esan degu ondo
eta malko bat biktimentzako
orduko eta oraingo.

U. Iturriaga: Baina samina nola egoten dan
ahaztua edo lotan
zergatik eta nola piztu da
juxtu hauteskundeotan?
Historiak ze aldaketa ditun
ohartu naiz urte hontan
igual berrirakurriko dugu
Pello Urkiolaren bertsotan.

# TOLOSA (2007-05-04)

Bertsolariak: A. Agirre, A. Egaña, S. Lizaso,
J.M. Irazu, A. Mendiluze eta J. Sorozabal.

Gai-emailea: Eñaut Otazo.

Leidor zineman izan zen, gaueko hamar eta erdietan hasita. Amnistia Internazional erakundeak Afrikako zenbait herrialderi laguntzeko antolatutako bertso jaialdia izan zen. Espero eta desio baino entzule gutxiago hurbildu ziren, baina saio bizia izan zen.

J.M. Irazu-A. Agirre

Gaia: Senar-emazteak zarete. Amaia emazteak beti nahi izan du katu bat etxean. Jexux Mari senarrak inola ere ez. Hala ere, senarrak amore eman eta katutxo bat ekarri duzue. Ez da egunik katuak sarraskiren bat egiten ez duenik.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

J.M. Irazu: Andreak katuakin
a ze pelikula!
Azkenean norbaitek
ekarri digula…
Ez zera ohartuko
emazte sekula
eskubideak ta ni
urratzen gaitula.

A. Agirre: Eskubide kontutan
arrazoi nolanahi
dena txikitu ohi du
gu joatean porai.
Bastoiakin astindu
eta zaude alai
zazpi bizitza ditu
ta jo zazu lasai.

J.M. Irazu: Ez, ez nik ez det joko
jo nola bai zera!
Nik'e errespetua
badaukat gainera
baina irudipen bat
kolpetik atera:
bihar eroriko da
balkoitikan behera.

A. Agirre: Lurrera erortzen bada
buelta eta buelta
bueltan etorriko da
ez da berriketa!
Mejora ekarri du
ta jarri arreta
horrela ni pakean
uzten nauzu eta.

J.M. Irazu: Uste nun behar zendula
pixka bat xamurtu
eta aldamenetik
senarra egurtu!
Familin pasa dena
bi hitzetan laburtu:
katua ekarri ta
andria zakurtu.

A. Agirre: Barka ez zaidazu egin
mila amenazu!
Bizkarreko zauriak
aztertu itzazu;
isilik egoteko
ederra zaude zu!
Andrianak dirala
kontatu ezazu.

J.M. Irazu: Katu zahar batekin gu
behera eta gora
ustez familiantzat
dalako mejora.
Ez due asko entenditzen
igual hola hoba
arra ekarri du ta
laster galduko da!

A. Agirre: Majo moldatzen gera
bere aldamenean
arra ihes joango da
denbora joanean.
Baina berriro ere
zu etsipenean
zure lekua hartu du
sofaren gainean.

A. Mendiluze-A. Agirre

Gaia: Hirugarren munduan garapen proiektu bat martxan jartzeko Gobernuz Kanpoko Erakunde batek hain modan dauden larru- gorritako egutegi horietako bat egiteko proposatu dizue. Amaia prest dago. Aitorrek zalantzak ditu.

Neurria: seiko txikia
Doinua: Bertsuak jarri dizkat

A. Mendiluze: Asko esan nahi eta
okerreko froga
egutegiak dira
gaur egungo moda
baina aizu Amaia
hau dirurako da. (bis)

A. Agirre: Nik ondo ulertzen det
ta goaz aurrera
lehen zer pasatu zaizun
kontuak atera:
ipurdi bistan zeorri
geratu baitzera. (bis)

A. Mendiluze: Holakoak ez zaizkit
pasa izandu maiz
baina begiratzeak
igual egin dit gaitz
ni ez nauzu larritu
beldurtu egin naiz. (bis)

A. Agirre: Aitor planta daukazu
ona ta itzela
txokolate tabletak
badauka nibela...
Jarri eskuk atzean
bertsotan bezela. (bis)

A. Mendiluze: Bertsotan bezelaxe
eskuak atzera
ez nihoa argazki
horretan jartzera
ez dihoaz nerekin
dirua galtzera. (bis)

A. Agirre: Ni aterako naiz ta ez
neretzat kaltean
eozeinek jarriko nau
eskaparatean
ez zait ezer ikusten
mitxelin artean. (bis)

A. Mendiluze: Zuk bezela pentsatu

beharko det neuk’e
orria nola ez ba
Amaiakin bete?
Zeuretzako bakarrik
hiru hilabete. (bis)

A. Agirre: Asko okupatzen det bai
ezin disimula
ta zuk dezun lotsa’re
hain degu mardula
pena tapatzeko’re
ileik ez dezula. (bis)

A. Mendiluze: Bueno hori utzita
dena konpontzeko
jarri egutegi bat
ondo osatzeko
ta nik ordainduko det
ez ateratzeko. (bis)

A. Agirre: Baina nik neuk nerean
segi nahi det tinko:
bata besten gainean
ipini ta kito!
Horrela ez baitzaigu
ezer ikusiko. (bis)
A. Mendiluze: Baina bertsolaienaz
ziur al zaude zu?
Amaia oraindikan
pentsa dezakezu:
atzean daukaguna
ikusi al dezu? (bis)

A. Agirre: Atzekaldera ezin
da egin bisita
nahiz egin dakiekeen
lau hoiei kritika
gauero ikuste’itut
begiak itxita. (bis)

A. Mendiluze: Orduan izango da
konpondu beharra
egutegi kutrea
egutegi txarra
hamabi orrialde ta
argazki bakarra. (bis)

BILBO (2007-05-12)

Bertsolariak: X. Paya, F. Paia,
E. Lekue eta A. Estiballes.

Gai-emailea: Oihana Bartra.

Santutxuko Bertso-eskolak aspaldidanik antolatzen dituen udaberriko saioetako bat. Santutxuko Karmelo plazan izan zen, eguerdiko ordu batean.

F. Paia-A. Estiballes

Gaia: Zuek txikitan lagun-lagunak zineten. Hala ere hamar urte elkar ikusi barik pasatu dituzue. Gaur, kalean elkartu zarete. Kontatu zertan zareten berdinak, zertan aldatu zareten...

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Antton eta Maria

F. Paia: Aiba Arkaitz al zara?
Ze zorte zenbat poz!
Hil zinala uste neban
ta hau mekauen zotz!
Halakorik ez jakun
tokau behar inoz!
Orain nago iragana
aritzeko asmoz:
ostutako kromoak
non arraio dagoz? (bis)
A. Estiballes: Garai hartan kromoekin
jolasten genbiltzan
ta lapurtzen nizkizun
nik zure gerizan.
Lapurra beti lapur
dogunez bizitzan
askoz lapurragoa
ezin neike izan:
oin BBVn nago
ta zuzendaritzan. (bis)

F. Paia: Berba hoiek non dute
munduan tokia?
Zuretzako lanpostu
guztiz egokia;
beti izan zara lapur
haundi bildurtia
beti praka zaharrekin

zure aitzakia.
Jarraitzen du txikitan
bezain gezurtia. (bis)

A. Estiballes: Zuk maite zenituen
bertso ta kantua
badakit hortarako
zendun talentua
gero anai bat hobea
irten zan kontua...
Ondino bertsolari
hori meritua!
Nahi badozu emango
deutsut kreditua. (bis)

F. Paia: Bat-batean Arkaitzek
zenbat egi dion!
Anaia bat baneukan
bai hobea inon
ta txapel bat deutsie
orain gitxi emon;
baina orain hamar urte
ai zenbat zorion!
A ze kokotekoak
ematen nizkion! (bis)

A. Estiballes: Orduan ginen gazte
lerdo ta mukizu
ta zu astokilo bat
ni ai zenbat izu...
Baina orain puesto bat
diru eta pisu
eta bi goardaespaldas
ere ditut aizu;
kokotekoak honek
emango dizkizu! (bis)

F. Paia: Beraz jarraitzen duzu
betiko peskizan:
astegunez lanean
domekaz elizan.
Txikitan elkarrekin
txiripaz genbiltzan
ia hamar urte barru
gaur gu gauden gisan
topatzen garen eta
txarrago ez den izan! (bis)

A. Estiballes: Gaztetan egin genun
hamaika pintada!

Polizia atzetik
barre eta algara...
Utopia hoiek ahaztu
nituen nik hara!
Zu be PNVkoa
ja izango zara...
Urteak aurrera joan
espabilau behar da! (bis)

F. Paia: Ez nik ondino daukat
bihotzeko sena:
bereizten dut arazo
haundi ta problema;
ez naiz diruzalea
ez astakirtena.
Jarraitzen duzu lehen
zinan bezain pelma!
Ez ikusiarena
eingo dut hurrena. (bis)

A. Estiballes: Ez ikusia egin
bazaude aurrean
bota duzu arrazoi bat
behintzat azkenean!
Ni han goian despatxuan
naukazu lanean
ta lehengo lagun zaharrak
garenez planean
etorri zaitez zerbait
behar duzunean. (bis)

E. Lekue

Gaia: Laurogei urteko agurea zara. 1936an gerran ibili zinen ANVko batailoi batean. Orain berriro zure betiko siglari bozka emateko aukera izan duzuenean, ilegala zarela esan dizute.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

Bai gu burrukan ibili ginen
ta gogor sasoi batean
ta gero barriz urte luzean
egon ginen isilpean;
isilpean bai baina gogotsu
beste hainbeste urtean
ta orain horma danetan geure
sigla horreik ikustean
Bizkargin sufritu genduana
oroitu dot bat-batean.

Besorik beso armak hartuta
nahiz eta gogotik jardun
malda hareiten erori ziren
batailoiko hainbat lagun.
Zer pasatzen da gure herrian
hau egoteko gaur egun?
Demokrazia ustezko hau zelan
doan zelan badakigun
ez dakit orain bere bardina
ein beharko ez ete dogun!

Pasa genduzan hogeta hamasei
urtean hainbat apuru
baina arrazoia geurea zala
hortan gengozan seguru.
Geure buruan argi izan doguz
argi hamaika helburu;
legalak edota ilegalak
bardinak ez al gara gu?
Bataila hau igual galduko dugu
baina gerra geurea dogu.

DONOSTIA (Igeldo) (2007-07-01)

Bertsolariak: A. Agirre, A. Egaña,
X. Paia eta J. Maia.

Gai-emailea: Iker Alustiza.

San Pedro jaietan urtero egiten duten bertso jaialdia. Bertako plazan izan zen, iluntzeko zortzietan. Ehun entzule inguru, aterkipean, baina txalo jotzeko nagirik gabe.

A. Egaña-A. Agirre

Gaia: Frantziatik datorren berria da honakoa: Nicolas Sarkozyk gizalegea eta errespetua aldarrikatze aldera, irakasleei berriz ere de usted hitz egin behar zaiela esan du. Espainiako ministerioa ere ados dago. Amaia da ikaslea, eta Andoni irakaslea.

Neurria: berezia
Doinua: Uso xuria errazu I

A. Agirre: Maiz purrusta mingainera
eta zu arbel aurrera
holaxe ibiltzen gera.
Nik berorika ederki dakit
ohitua nago gainera;
errespetuak izan behar du
berdinetik berdinera. (bis)

A. Egaña: Gandor eta guzti hemen
oilar hau tira ta eten
ta hara zenbat dezakeen!
Ene ikasle “zera” eta “zu”
lehenbailehen burutikan ken
ta azkar-azkar ikasi zazu
berorika hitz egiten. (bis)

A. Agirre: Badezu mila bertute
jakintzan hainbat entzute
irakasten hogei urte.
Gure aitonan esaera zahar bat
jakin behar dezu zuk’e:
bat’e ez izan ta asko uste
hoixe da “Mierda para usté”. (bis)

A. Egaña: Hola ez goaz inora
hara gaztetxoen moda
egin nahi nuen aproba...
Ta ikaslea nun hasi zaidan

kaka behera kaka gora!
Aizu berori asunto hori
serio hartu beharko da. (bis)

A. Agirre: Ez zan esaldi motela
nahiz ta zuretzat ustela
badakidan izan dela.
Bai berorika hasi gaitezen
nekatzen zera bestela
zuk ere goitik hitz eiten dezu
agintariek bezela. (bis)

A. Egaña: Goitik eiten det ujua
zuk dezu maila bajua
ni neu ez nago lur jua.
Aita-amak lagun, maisuak lagun
gaur egun gure lujua
eta ondorio nabarmena da:
mundua hola dijua! (bis)

A. Agirre: Benga bai zera! bai zera!
Irten zaitez arbelera
guri atzea ematera.
“Denak lagunak denak lagunak...”
Baina zertan ari gera?
Gure kolega izan nahi dezu
ta lagun ere ez zera. (bis)

A. Egaña: Ez zaite izan txepela!
Aurrean daukat arbela
ez zaite hasi horrela!
Ez al dakizu kolega lego-
legis-etik datorrela?
Eta kolegak hain xuxen ere
ikaskideak direla. (bis)

AMOROTO (2007-07-08)

Bertsolariak: A. Arzallus, M. Lujanbio, J. Maia, I. Elortza, X. Silveira eta Mañukorta.

Gai-emailea: Iratxe Ibarra.

Jaiak zirela-eta aspaldiko partez antolaturiko jaialdia, Amorotoko pilotalekuan izan zen, arratsaldeko seietan, ehun eta berrogeita hamarren bat entzule aurrean zirela.

X. Silveira-Mañukorta

Gaia: Badakizue Silveira Lesakakoa dela eta han ere San Ferminak izaten direla. Nik Mañuri entzun diot lehen tabernan, saioaren aurretik Silveirari esaten tonu txarrean: “ Hi gaur be etorriko hintzen atzo Lesakan ganora barik ibilita!”, eta Silveirari ez zaio gustatu.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

X. Silveira: Nik borondate asko
jartzen dut festen alde
ta bart ibili nintzen
ganorarik gabe
hona ganorarekin
heldu naiz hala’re
izan nahi nukeelako
Mañukortan pare.
Mañukorta: Lesakan ibili naiz
ni neskari zirriz
eta hainbeste jente fin
ipiniak irriz...
Ni aina izatia
Silveira egarriz....
Baina hortako jaio
beharko dek berriz.

X. Silveira: Espabilatzeko zen
zure erantzuna
baina ez dut nik bakarrik
erantzunkizuna:
zu ere bart Lesakan
zenbiltzan laguna
baina ez zen neska bat
gerritik zenuna.

Mañukorta: Mañu hantxe zebilen

San Fermin jaietan
bi neska polit jator
euskaldun benetan;
laztanak emanikan
beren ezpanetan
negarrez utzi ditut
goizeko hiruretan.

X. Silveira: Zu ere oso abila
zara parrandetan
bueno parrandetan ez
gehiago nesketan.
Zuk negarrez utziak
goizeko hiruretan
penaz hilko ote ziren
hiru t'erdietan?

Mañukorta: Neska bat zan isila
bestia umila
hirurok egin gendun
guk hor trago pila
ta alkarri esaten
hizketan abila
oraintxe dijuena
izan den mutila.

X. Silveira: Barkatu zuentzat igual
da sorpresa itzela
baina Mañu jakinik
hola ibiltzen dela
entzuna nago Igor
Elortza bezela
zu ere udan aita
izango zarela.

Mañukorta: Jangoikomendikoa
beti dek zezena
edozertako baitet
behar dan ahalmena
ta neska kontu hortan
beti naiz onena
lehen ere eukiko'itut
dozenerdi dozena...

I. Elortza-J. Maia

Gaia: Zuek biok hilkutxa baten aurrean dauden bi gizon zarete. Barruan andrazko bat dago; andrazko hori biok ezagutzen duzue, baina elkar ez duzue ezagutzen. Disimuluan elkarri begira egon zarete, eta elkarrekin hitz egiteko ordua dela pentsatu duzue.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Dama gazte xarmant bat

J. Maia: Belaunikatu eta
lore eta muxu...
Hortxe ikusi zaitut
urduri ta izu;
kontxo-kontxo! Juanaren
semea zara zu
sudurra behintzat igual
iguala daukazu! (bis)

I. Elortza: Ez naz ba ez semea
ez izan tentela!
Batzuetan ogean
bero gengozela
gogoan daukat Ramon
esaten eustela
eta pentsatzen dot zeu
izango zarela. (bis)

J. Maia: Ba Ramon ni neu nauzu
hemen naiz apropos
ez pentsa daukadadik
zu ikustean poz;
ez dezu maitasunik
dena zaude hain hotz...
Plastikozko loreekin
hona nola zatoz? (bis)

I. Elortza: Eta zu bape barik
hona hurreratzen...
Ai Ramon azken gabaz
nabil akordatzen:
zeu nintzela esan ta
han hasi laztantzen
eta irribarretxo
horregaz joan zen. (bis)

J. Maia: Barka baina ez zera
batere ernea
begirada daukazu
motza ta xumea
zu orain ikusita
horrelako mehea
zu izan zera beti

nahi nuen umea. (bis)

I. Elortza: Gura eban umea
akabo, akabo!
Zer esaten dau honek?
Mina dauka klaro.
Zuri begira neu be
harrituta nago;
neuk be espero neban
zeozer gehiago. (bis)

J. Maia: Ba horrela bazaude
zakurraren putza!
Gurutzean aurrera
ez ezazu bultza!
Kontxo konturatu naiz
hauxe da hau hutsa!
Nere hilobia zegon
bi kale haruntza. (bis)

I. Elortza: Edan egin ete dau?
Zer dabil esaten?
Hildakoan aurrean
honek zer ein leiken...
Zure hilobia baldin
badago nonbaiten
sartu zaite barrura
ta ez zaite urten! (bis)

J. Maia: Nola da posible hau
gaur ez ulertzea?
Ez daukazu zeharo
beteta eltzea!
Nere hilobia nahi det
ondo ulertzea:
bizirik nagoela
daukat gurutzea. (bis)

M. Lujanbio

Gaia: Ez dakigu zuk zer pentsatuko duzun bi hauen elkarrizketa entzunda. Zu zara hilkutxa barruan egon den emakumea.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Hil da Canovas fuera Canovas

Bata da nahiko txulitoa ta
bestea nahiko dandy da.

Zenbat gau ero pasatu degun
maitasunaren harira...
Ze gizon eta zeinen dotore
bizkar gainetik begira!
Lehoi arraren papela eginez
salto ohean erdira
ta situazio konplikatutan
bi kottau bihurtzen dira.

Batek ematen zuen beroa
eta besteak epela;
nahiko lan neukan justifikatzen
nik, biekin nengoela.
Zaila zen bati esan beharra
gizon bakarra ez zela
zaila besteai ere aitortzea
fidel-fidel ez nintzela...
Pentsatu nuen “Ni banoa ta
eurak konpon ditezela!”

ALEGIA (2007-07-13)

Bertsolariak: J. Maia, I. Elortza,
M. Lujanbio eta U. Iturriaga.

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Udaletxe aurreko plazan izan zen gaueko hamaiketan. Zikiro afaria izan zen plazan bertan eta, afaltiarrek, bertatik mugitu gabe entzun ahal izan zuten jaialdia.

M. Lujanbio-I. Elortza

Gaia: Mari Errauskinen bigarren bertsioa egin behar dugu. Maialen, dantzaldira joateko baimena eman dizu Hada Madrinak, baina hamabitan ez zara etxera joango, hemen jarraituko duzu.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Nahiz ta hiltzea derrigorra den

M. Lujanbio: Ez dira egongo hau bezelako
bi arrosa, bi krabelin
ez dira egongo mundu guzian
bi gizon printzean berdin;
balsa dantzatzen maiteminduta
bueltaka ekin ta ekin
zapaltzen nau ta ez det sentitzen
kristalezko zapatekin.

I. Elortza: Gauez argi bat piztu da eta
bera etorri nigana
balseo eder bat markatuaz
hor dabilkigu jazz ban(d)a;
begi politak, ile polita
polita daukazu dana
barkatu'idazu zapata eder
hoiek zapaldu izana.

M. Lujanbio: Lehenago nintzan arropa zarpail
ta orain ze elegantzi!
Dantza ta dantza gozo gabiltza
ta badu nahikoa garrantzi
baina estu nago Maitagarriak
nere taila du ahantzi
zapata bazpare galdu nahi nuke
baino ezin det erantzi.

I. Elortza: Ai panpoxatxo dena erazten

orain hasiko bazina…
Zu ikusita lehen kolpea
sortu baitzait maitemina;
oraintxe bertan egingo nuke
bizi osorako zina
ni oraindik ere printzea bainaiz
ta zu jada erregina.

Elizako kanpaiak gau erdiko kanpaiak jo zituenean Maialenek doinua aldatu zuen.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Beti penetan beti penetan

M. Lujanbio: Ta hola balsean ari ginela
hara hamabiak pasa
kanpaien hotsa aditu det ta
aldatu da nere traza.
Ai kristalezko zapatak dauka
orain zapatila antza
ta karroza ez printzea bera
izango da kalabaza.
I. Elortza: Derrepentean dena aldatu
ta nola izan lasaia
hortxe joan da behin zoriontsu
ni izan nintzen garaia;
hor entzun dugu klinkli ta klanka
hamabigarren kanpaia…
Erantzi duzu zapata eta
hau da hau gazta usaia.

M. Lujanbio: Nere buruai begira nago
eta sentitzen det pena:
orain zuloa bilakatu da
leheno lentejuela zena.
Zure Cambridgeko hizkuntza hortan
ikasiko ez zenukeena:
edertasuna barrun dagola
eta roilo hori dena.

I. Elortza: Irakaspenak eman nahian zu
parean suabe-suabe
edertasuna barruan omen
zenbat irakaspen grabe!
Baina gaztelu hau neurea da
ta zuk egin behar alde;
edertasuna barruan dago
eta zu kanpoan zaude.

ERRENTERIA (2007-07-25)

Bertsolariak: S. Lizaso eta A. Arzallus.

Santiago egunez egin zen saioa, Foru plazan, eguerdiko hamabietan. Librean aritu ziren ordu erdiz. Entzulerik gehienak itzaletan jarri ziren, eguzkiak gogor jotzen zuen-eta.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko I

S. Lizaso: Itzal kontuak sortu litzazke
ez dakit zenbat komeri
eta itzala argitzea're
ez ote zaigu komeni?
Urte batzuen jabea naiz ni
mutil gaztea zedori
eta bizitzan bertsolaritzak
du aldaketa nabari:
lehen itzala egiten nizun
ta aurki berriz zuk neri. (bis)

A. Arzallus: Ez zazu uste nere itzalik
badaukazula jadanik
baina hala ere nere ahalegina
beti fin egingo det nik.
Gure aldea zertan dagoen
kantatuko det hemendik:
itzal haundirik ez du Lizasok
Amets Arzallusengandik
ta honek txapela jantzi zunean
sehaskan nengon oraindik. (bis)

S. Lizaso: Nik hoita zortzi urte orduan
ta zu bizitzen hasia
galdetu gabe histori dena
zerorrek adierazia.
Baina geroztik berezia da
zuk izan dezun grazia:
zure aita ere bertsolaria
hark erein zuen hazia
beti gogoan eraman zazu
sehaskatik ikasia. (bis)

A. Arzallus: Sehaskan bertan jasotzen denez
ate askotako giltza
zuk'e aitangandik ikasi eta
plazarik plaza zabiltza.
Laroita seia zu txapelduna
hura izan zen baldintza
ta nik bi urte ta amak dio
pentsa nola dan bizitza!

“Aupa Lizaso” esan nuela
nere lehenbiziko hitza. (bis)

S. Lizaso: Beraz hizketan hasi zinaden
eta goxotasunean
seguru ama’re poztu zala
gauz hori entzun zunean.
Eta gerora bertso kantari
hemen biok zuzenean;
eta begira ze etorkizun
zegoen zure senean;
nik “Aupa Amets” esango dizut
irabazten dezunean. (bis)

A. Arzallus: Ondo esana legokeela
arrazoirik ezin kendu
baina hala’re neure bidean
firme nahi nuke mantendu.
Irabazleak beti izaten du
piropo eta lausengu
txapeldunari animo hitzik
ez zaio behar zuzendu
nahiago nuke galtzerakoan
esango baldin bazendu! (bis)

GORLIZ (2007-07-25)

Bertsolariak: X. Paya, A. Arzallus,
A. Estiballes eta On. Enbeita.

Gai-emailea: Miren Loizaga.

Santiago jaietan urtero egiten duten bertso jaialdia.

On. Enbeita-X. Paya

Gaia: Gorlizeko jaietan erromeria antolatu dute. Hor dago Onintza, edadeko andrea, kartetako koadrilarekin; eta horretan dagoela, dantza eske etorri zaio Xabi, auzoko mutilzaharra.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Andre Madalen andre Madalen

X. Paya:
Dentadura ondo kolokatuta
bildu orduko adorea
lige kontutan traba sekula
ez da izan umorea.
Kaixo panpoxa dantza dezagun
ba al daukat ohorea?
Hemen daukazu parejarako
falta zaizun erregea.

On. Enbeita:
Dantza eskean etorri zara
ilusino ta ohorez
eta ez dakit hemen zer esan
edo bai edo eta ez;
nahiz eta harro etorri zaren
niregana betiko lez
dantzari ona izan bazina
gaur ezkonduta zengokez.

X. Paya:
Ez deust egin ba halako baten
ezetz bota eta muzin!
Bueno halan be egin behar dot
ondino zenbait ahalegin.
Dantzan fina naz bai badakizu
hortan hartzen dot atsegin
ta askorekin dantzan egin dot
eta bakarragaz ezin.

On. Enbeita:
Erdi penatan eskean zatoz
estropozuz estropozu

ezetz esanda ia egin dozuz
hamar mila negar pozu;
baietzera jo behar dot hemen
nahiz ta ez emon bi mosu
baina hori bai eskua gerri
ganean euki behar dozu.

X. Paya: Ikusten danez saihestuko dot
dantza aldiko baraua
eta baietzaz aldiz jarri deu
lehendabiziko araua.
Bale jota bat dantzauko dogu
arin-arin ta enparaua
eta gustura baldin bazagoz
iluntzean agarraua.

On. Enbeita: Aizu astiro! Zuk egin dozu
bakarrik proposamen bat
ta orain golpera hiru-lau dantza
atara dozuz niretzat;
dantza bakarra egingo dotsut
agarrauan dala behintzat
arin-arina egitekotan
lagunekaz nahiko daukat.

A. Estiballes

Gaia: Telebistari begira zaude zure ziegan. Bakartia zara, azkenaldian hain ezagun egin den lapur bakartia. Telebistan etengabe ari dira zure atxiloketari buruzko irudiak ematen. Zer darabilzu buruan?

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Hil da Canovas fuera Canovas

Pistolak hartu ta atrako bat
herri txikiren batean
belaunetara igual tiro bat
jarri ezkero atean.
Kontzientziarekin nahiz ta ez nengoen
sekula ere bakean
dirua fresko poltsikoan ta
lagunekin aldartean...
Bakarrik ez naiz sekula egon
dirua neukan artean.

Egia esan ez nuen behar
igual horrenbeste diru;
atrako on bat ematea da

lapur guztien helburu.
Telebistatik nire izena
famatua egin dugu
baina beste asko ikusi eta
ez nago oso seguru...
Ni baino lapur haundiagoak
daude enpresetan buru.

BERANGO (2007-07-27)

Bertsolariak: P. Vidal, A. Egaña,
X. Paya eta B. Ugartetxea.

Gai-emailea: Nahikari Ayo.

Santa Ana jaiak zirela-eta antolatutako saioa. Santa Ana auzoan izan zen, iluntzeko zortzi eta erdietan, berrogeita hamarren bat entzule aurrean zirela.

B. Ugartetxea-A. Egaña

Gaia: Karabana luzea, kilometrikoa, eta hortxe dago Beñat auto barruan, gogaituta, hondartzara heltzeko gogoz; Berangon dago, semaforo parean geldituta, eta Andoni kristal-garbitzailea hurbildu zaio.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

B. Ugartetxea: Astebete bat zala hementxe
aurkitzen ginan gu hotzez
orain beroak hasi ditu ta
hondartzara goaz kotxez
izugarrizko karabanetan
erreta ta malaletxez...
Garagardo bat ekarridazu
jaboia lakoxe bitsez.
A. Egaña: Garagardorik ez daukat eta
hauxe da hau komeria!
Garbiketako prest naiz ordea
esango dizut egia.
Begiratuta sumatu dizut
lan bikoitzaren premia:
lehendabiziko kristalak eta
gero berriz aurpegia.

B. Ugartetxea: Norbera guztiz erreta dago
ta bera umore alaiz;
adarra jotzen hasi ote den
susmo txarrez edo usaiz...
Garagardo bat ekarri arren
ekarri ezazu garaiz!
Zeren bestela bero honekin
bakarrik garbituko naiz!

A. Egaña: Kliente honen irudimenak
badu horrenbeste indar...

Garagardo bat ekarriko det
bere likido ta apar;
hiru eurotan dagoena zuk
sei euro ordaindu behar
kristalarena beste bi eta
arpegiarena hamar.

B. Ugartetxea: Hamabost euro dira guztira
eta hoiek ez ditut nik;
beno hemezortzi esan didazu
gutxiago ditut jakinik...
Ta ez duzunez lagun ekartzen
ez edan eta ez janik
alde paretik! Zeren aurrekoa
pixkat moidu da jadanik.

A. Egaña: Aurreko hori ez da mugitu
ez asko eta ez zirkin
nigatik berdin segi ezazu:
kristal narrats, mutur zikin.
Orain hondartza’ ailegatzea
ez da zuretzat atsegin;
emazu buelta zoaz etxera
Tourra ikusi ta lo egin.

B. Ugartetxea: Tourra ni bezain erreta dago
eguzkia bezain bero
baina zu ondo zabiltzanik be
lagun ez zazu espero;
askoz hobeto joango zaizu
negozioa egunero
balda horretan zerbeza batzuk
freskatzen jarri ezkero.

A. Egaña: Kristal garbitzen bizimodua
atera izan det sarri
eskupekoak txikiak dira
horrek ipintzen nau larri.
Arrazoi dezu: zerbezarekin
jende asko da egarri
almazenera joango naiz ta
bihar egoardiz etorri.

ALTZO (2007-07-28)

Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, S. Colina,
A. Arzallus, J.M. Irazu,
A. Agirre eta A. Mendiluze.

Gai-emailea: Manuel Olano.

Altzoko San Inazio jaietan urtero egiten duten jaialdia. Gauean izan zen, eta ohi bezala jende asko elkartu zen bertsolariak entzutera.

A. Arzallus-A. Mendiluze

Gaia: Gaur bertan jakin dugu 2006ko azaroan PNVk, PSOEk eta Batasunak hamaika bilera egin zituztela Loiolako santutegian, oinarrizko akordio politikoa adostu nahian. Batzuek diote oso gertu egon zela akordioa, beste batzuek ezetz; eta zuek zer diozue?

Neurria: zortziko handia
Doinua: Ludi bizitza abesti gozoz

A. Mendiluze: Beraz bilerak egin zituzten
ta egon gintezke trankil.
Hala ta guzti ez zebilena
oraindik ere badabil;
lehenago ere urruti zeuden
ta orain ez daude hurbil
Vatikanoa eta Loiola
Azpeitia eta Madril.

A. Arzallus: Elkartuz gero hamaika talde
eta hamaika iritzi
akordioa heltzen da bihar
ta bihar ez bada etzi.
Itxuraz nahiko hurbil egonak
baina ez ziren iritsi
baina hala ere esperantzari
ez diot aterik itxi.

A. Mendiluze: Zuk ez aterik itxi sekula
ta ia zer gertatzen den
bainan ez zazu sekula ahaztu
sarri zer pasa den hemen;
akordiorik ezin lortua
hala erabaki omen...
Baina hori noiz bilera ondoren
ala bilera baino lehen?

A. Arzallus: Indar haundirik nunbait ez dago

basilikako kandelan
urte bat pasa ta hara hemen
nola gauden edo zelan:
hizketarako batzuk hor daude
Sabin Etxeko jangelan
beste batzuek Moncloan eta
besteak berriz kartzelan.

A. Mendiluze: Beraz jende bat lehenaz gain dabil
petxua ondo puztua
beste jende bat zuloan eta
animoz nahiko hustua
hori dela ta nere iritziz
ezin da izan justua:
jende aurrean muturrean jo
ta ixkutuan eskua.

A. Arzallus: Eta eskua gordetzen duna
ez leike ibili zuzen;
garai batean itxaropena
Lizarrakoa izan zen
eta gerora ibili dira
Loiola aldean elkartzen
eta beldur naiz hurrengokoa
egin beharko dan Lourdesen.

A. Mendiluze: Aurpegi zuriz etortzen denak
zikina baitu atzea
normalena bai berriz bilera
Lourdesen antolatzea;
behar dena da hango kandela
guztiak suak hartzea
eta bertara doan zenbaitek
eskua sutan jartzea.

A. Arzallus: Hoien eskutan egoten dira
gerora beira herriak
eta gauza haundi haiek ez dira
hoiengandik etorriak.
Nahiz hoiek bete periodikoak
ta akordio orriak
gauza haundirik ez du egingo
hoien zain dagon herriak.

GETXO (2007-07-29)

Bertsolariak: J.M. Irazu,. S. Lizaso,
I. Ibarra eta S. Colina.

Gai-emailea: Zuriñe Iarritu.

Algortako San Inazio jaietan ohikoak diren jaialdietako bigarrena. Eguerdian izan zen, Kasino plazan.

S. Colina-I. Ibarra

Gaia: Bikotea zarete. Lana, umeak, egunerokotasunaz pixka bat nekaturik, astebete libre hartu eta Bartzelonara joan zarete, biok bakarrik, luxuzko hotel batera. Hoteleko gelan zaudete zigarrotxo bat erretzen lasai-lasai, telebistari adi. Bat-batean argia joan da, eta ilunpean geratu zarete, luzerako, itxura batean.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Agur sagar beltzeran

S. Colina: Gaude Bartzelonako
suit eder batetan
lau egun falta dira
joateko bueltan.
Argia joan da ta
zu jarri alertan
baina ez zaite beldurtu
ez daukazu zertan:
gauza ederrak egin
leizke ilunpetan.

I. Ibarra: Pozik etorri ginen
Bartzelona aldera
ta ondorioren bat
behar da atera:
aspaldi ez gara egon
ohean batera
gelara sartu eta
argiari fuera!
Aurpegian igarri
ete deuskue ba?

S. Colina: Argia joan da ta
akabo-akabo!
Halako aukerarik
ez nuen itxaro.
Orain jarri naiz inoiz
baino zezenago
zu ere gertu zaude

hasteko prest klaro!
Begiak ixten lanik
ez duzu izango!

I. Ibarra: Eskua martxan hasi
jata berehala
baina gauzak ez dagoz
antza lehen bezala:
dana zara hazurra
ta dana azala
dana da hemen zuloa
ta dana zapala...
Lehen ere ete zinen
holako argala?

S. Colina: Bai aspaldian ez naiz
gehiegi gizendu
lehengo kilo apurrak
eutsi ta mantendu.
Baina jantzi guztiak
ospa eta kendu
gozatu behar dugula
Iratxe ematen du
ta ni ezin banauzu
almohadari heldu!

I. Ibarra: Almohadari heltzea
izango da hoba
ez da komeni gero
damutzea gerora!
Baina ez zabitz txarto
inundik inora
ez jatzu ezer ahaztu
dana doa gora;
forma mantendu dozu
etxetik kanpora.

MUNGIA (2007-07-29)

Bertsolariak: I. Elortza, A. Egaña,
I. Ibarra eta S. Lizaso.

Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz.

San Pedro jaien barruan antolaturiko jaialdia. Eguerdiko ordu batean izan zen, plazan, ehun lagun inguru entzuten zirela.

A. Egaña-I. Ibarra

Gaia: Atzo gauera arte lagunak izan zarete. Atzo gauean zerbait gertatu da lagunez gainerakoa. Oraintxe itzartu zarete, eta kopletan hasi.

Neurria: lauko handia
Doinua: Kontu barri bat suzedidu da II

A. Egaña: Sei gin-tonic ta sei kalimotxo
eztarrira zuzen-zuzen
horrexegatik ez dut gogoan
atzo gauez zer pasa zen.

I. Ibarra: Orain artean zu izan zaitut
nik Andoni lagun-mina
orain laguna ez dakit baina
hemen sentitzen dot mina.

A. Egaña: Hori entzunda ni geratu naiz
ai Iratxe harrituta:
atzo gauean lo hartu al nuen
sorbaldan apoiatuta?

I. Ibarra: Disimulatzen disimulatzen
egiten dozu zuk jolas
esan egizu zeuk nahi dozuna
ni danaz akordetan naz!

A. Egaña: Ba nik deus ere ez dut gogoan
nahiz eta izan itsusi
zer gertatu zen zeuk konta neri
baina detaile ta guzi.

I. Ibarra: Esan dozuna sinistu ezinik
oraintxe nago Andoni

hogei urtegaz bale baina orain
ez jaku hori komeni!

A. Egaña: Ez daukat ezer neure buruan
Iratxe hau da egia
bestetan beti ateratzen dut
nere beste aurpegia.

I. Ibarra: Nik bi berbatan esango deutsut
atzo pasau zana lagun:
bertsotan hasi ginen tarbernan
ta ohean amaitu gendun.

A. Egaña: Ohearena egia al da?
Ene hau desastrea, ai!
Konpromisario izanagatik
konpromisorik ez det nahi.

I. Ibarra: Beste detaile txiki bategaz
ulertuko dozu errez:
beste txapel bat jantzi zenduan
betiko txapelan partez.

A. Egaña: Atzo gauean egin al nintzen
beraz kondoiaren jabe?
Seguru asko edukiko det
oraindikan kendu gabe.

I. Ibarra: Ez dozu kendu beraz oraindik
zeuk esan dozu ta kasu
ba hori hortik kendu artean
konpromisoa daukazu.

A. Egaña: Baina zentratzen lagun zaidazu
ai Iratxe lagun maite!
Denbora pixkat eman zaidazu
hurrengo San Pedro arte!

I. Ibarra: Segi ezazu ba bertsoagaz
ez emon goragalea!
Horixe baita azken finean
zuk nahi dozun maitalea.

VILLABONA (2007-07-30)

Bertsolariak: S. Colina, J.M. Irazu,
A. Agirre eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Jon Zaldua.

Santio jaietan urtero egiten duten jaialdia. Gauean izan zen, herriko plazan.

S. Colina-J.M. Irazu-A. Agirre-M. Lujanbio

Gaia: Erraustegien gaiak eztabaida handia sortu du azkenaldian gure artean. Zuek zer iritzi duzue?

Neurria: zortziko handia
Doinua: Beti penetan beti penetan

S. Colina:
Gure mundua bihurtu denez
dena zabor ta hondakin
irtenbidea nun egon leiken
inortxok ez daki jakin.
Hamar urtean buelta-bueltaka
dabiltz erraustegiakin...
Zerzer txarra edukiko du
oaindik ez badute egin.

J.M. Irazu:
Erraustegia ta argia joan6
Villabonako trantzea
argian gisa gerta liteke
esperantza bueltatzea;
juan ta kendu honixe deitu
behar zaio reziklatzea...
Pekatu haundia ez da izango
herriari galdetzea.

A. Agirre:
Erraustegia besterik ez da
zubietarren buruan
ta plataformak eraiki dira
bertan eta inguruan.
Berziklatzea omen helburu
horra modu seguruan
baina hemen denok kezkatzen gera
hurbiltzen zaigun orduan.

M. Lujanbio:
Tira ta buelta tira ta buelta
aurrea eta atzea
guri ez digu inork galdetzen

zorigaitzeko trantzea.
Lehendabiziko lana da beraz
obra hori geratzea
ta bigarrena gure betiko
ohiturak eraldatzea.

S. Colina: Baina ohiturak beti berdinak
bai orain ta bai geroan
iraganeko ikasgairik ez
baitugu hartzen gogoan.
Erraustegiak ez du deus txarrik
politikoen ahoan
beraz zergatik ez dute jartzen
Kursaalan ondo-ondoan.

J.M. Irazu: "Gutxio sortu behar genduke"
esaten degu horrela
ta sortzen dana maizago bildu
bestela gauza ustela.
Sortzen duenak ordain dezala
beste gauzetan bezela
eta orduan ikusiko da
hain premizkoa ez dela.

A. Agirre: Sustrain bertsotik jarraitu nahi det
nik neuk ere hausnarrean
hamaika kalte eragingo du
airean eta lurrean
Odon Elortza proiektu horren
alde dabil indarrean
baina bazpa're ez du jarriko
udaletxean aurrean!

M. Lujanbio: Ta herritarrei sortua digu
nahiko ardura ta neke
ezetz garbi bat entzunez gero
gu lasaiago geundeke.
Erraustegian kea haizean
arabera joan liteke:
politikoen erabakiak
botoen haizean menpe.

A. Agirre- M. Lujanbio

Gaia: Ama-alabak zarete, Maialen ama eta Amaia alaba. Maialen, zu zara alabaren txofer ofiziala: zuk eramaten duzu eskolara, entrenamenduetara, parrandara... Gaur ere eraman duzu parrandara. Hortxe dator Amaia goizeko lauretan; hamaiketatik zain egon zara autoan.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Kantatzera nijoa

M. Lujanbio: Hamaiketan zan zita
oroi dezakezu
goizeko lauak dira
hargatik naiz kexu
gainera balantzaka
ta gozo zaude zu!
Akaso bide doble
ein behar izan dezu! (bis)

A. Agirre: Ez dira ba erlojuan
orratzak geratu!
Gero zure kotxea
ezin nun topatu...
Baina hementxe nago
ta ez zaitez kezkatu!
Gutxinez etorri naiz
ez zaitez kejatu! (bis)

M. Lujanbio: Etorri dala eta
amaren mesede
musua gorri-gorri
ta dator xelebre.
Gainera ez du izan
hemen alafede
katxia aparkatzeko
detailea ere! (bis)

A. Agirre: Ojala behintzat banu
katxia beteta!
Ni umorez nator ta
ez belztu kopeta!
Bi muxu eman eta
egin nahi det buelta
diruan bila soilik
etorri naiz eta. (bis)

M. Lujanbio: Hizketan beti izan da
ona ta abila;
gainera mozkortuta
ordun borobila.
Diru eske zentozen
beraz neskatila;
etxean ahaztu zait ta
goazen hara bila! (bis)

A. Agirre: Ordu txikitan beti

inguratu etsaiz
ta juergako giroan
ibili ohi naiz maiz;
etxera ezin da joan
ia ez baita garaiz;
eman Visa txartela
ta moldatuko naiz. (bis)

USURBIL (2007-08-03)

Bertsolariak: A. Arzallus,
M. Lujanbio eta J.M. Irazu.

Gai-emailea: Gorka Tolosa.

Usurbilgo San Esteban auzoko jaietan antolaturiko saioa. Afalondoan izan zen saioa, eta bertsolarien aurretik trikitilariak izan ziren. Entzule asko eta bertsotan egiteko giro egokia, beroa. Hasieran librean egin zuten saiotxo bat.

J.M. Irazu-M. Lujanbio

Gaia: Aitona-bilobak izango zarete, Irazu aitona eta Maialen biloba. Maialen motoz joan da parrandara, eta goizean eguna argitzerako etorri zara etxera. Aitona leihoan zenuen zain, aurpegi zurbil eta kezkatuarekin.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Haizeak bidali du

J.M. Irazu: Aspaldi egin nintzan
bilobaren jabe
hemezortzi urte egin
etxetikan alde.
Ai zenbat bihotzeko
bilobak debalde!
Aizu belaxe zera
aitonikan gabe!

M. Lujanbio: Leiho hortan jarrita
zaude egokia
nahiz eta ondo beltza
dezun bekokia.
Loriak ezin hartua
lehendik zendun ia
orain egiten dezu
nere aitzakia.

J.M. Irazu: Orain egiten dedan
arrazoi iaiua...
Etxetik kanporako
zinan zu jaiua;
nik berriz errezatzen
nolako saiua!
Hamar aldiz pasa det
errosariua.

M. Lujanbio: Baina ez zaite pasa
aizu, aizu, aizu!
Zeini egin diozu
hoinbeste errezu?
Kalera juateko
onak ni eta zu
edo hesia jarri
bihar al diazu?

J.M. Irazu: Biloba ez nijua
hesia jartzera
ez det nahi ordu bitan
iritsi etxera.
Nahi nuke familia
aurrea ateratzera;
gaur ere bakarrikan
ailegatu zera.

M. Lujanbio: Aitonak bota duna
galdera polita
edo erdi galdera
pentsatzen jarrita.
Bakarrik iritsi naiz
bakarrik det zita
baina ez orain arte
hola ibilita.

J.M. Irazu: Pixkana ateratzen
hasi zera hara!
Gehiago kontatzeko
har'zazu patxada:
hola ibiliez nunbait
ondo pasa gaba
nungo aulki jokotan7
ibili zera ba?

M. Lujanbio: Elkarri aitu gera
bultza eta bultza
aulkia betetzea
hoi zan nere funtsa:
moto aulki-luze hontan
behar det laguntza
lehen bero-bero zegon
orain dago hutsa.

J.M. Irazu: Oain hutsa egon arren
neri ez zait inporta
zuk probetxuzko gaua
pasa dezu hor-ta;
berriz ere parranda

aizu lasai bota
bestela ere ez det
lorik egingo-ta!

M. Lujanbio: Badakit bai buruan
dezu nahiko laino
lorik ondo ez dezu
egiten gaurdaino.
Ze interrogatoiua
egin diana ño!
Aitona okerrago
polizia baino.

GASTEIZ (2007-08-05)

Bertsolariak: S. Lizaso, J. Agirre,
A. Egaña eta O. Perea.

Gai-emailea: Irati Mendiguren.

Gasteizko jaietan egunero izaten diren bertso saioetako lehena. Aihotz plazan izan zen, ohi bezala eguerdiko ordu bata eta erdietan.

S. Lizaso-J. Agirre-A. Egaña-O. Perea

Gaia: Euskal prentsa arrosako lehen programa da ETB1en; platoan zaudete laurok eta zuzenean hasteko segundo batzuk falta dira.

Neurria: lauko handia
Doinua: Kontu barri bat suzedidu da II

S. Lizaso: Prentsa arrosan Euskal Herrian
ohitu gabeak daude ta
egin batzuek konta ditzagun
beste batzuek gordeta.

J. Agirre: Egiak gorde esaten dezu
hori al da gure lana?
Bestela ere gezurra bada
munduan zeinek esana!

A. Egaña: Julian Muñoz bizirik dago
baina amodioa hil...
Entzun dudanez orain Pantoja
Agirren atzetik dabil.

O. Perea: Hori notizi primizi bat da
ez dago esan beharrik.
Euskal Herrian ez dira behar
kontu marroiak bakarrik.

S. Lizaso: Dirudienez jendea dago
bertsolariei begira
eta txapeldun jauna bera ere
burua galtzen ari da.

J. Agirre: Ia norbaitek libratzen nauen
Pantoja horren gaitzetik!
Nik ez dadukat alde haundirik oain

aurretik eta atzetik.

A. Egaña: Pantoja zure atzetik dabil bai
izan degu horren berri
nik kontseju bat emango dizut:
galtzak goraxio jarri.

O. Perea: Ba nik gauean ikusi ditut
bestelako kontu batzuk:
hogei urteko neska batekin
Laudiokoa dela uste dut.

S. Lizaso: Hogei urteko neskakin Joxe
hori egia aibala!
Nik ikusi nun baina uste nun
biloba izango zala.

J. Agirre: Hogei urteko neska batekin
nola kontatu afana?
Bakarrik ere pasatu leike
nerekin konforme dana!

A. Egaña: Hogei urteko nexka gazte bat
besarkatzeko aukera;
propio bera joaten zan Joxe
fotografoen aurrera.

O. Perea: Prentsa arrosa bilatzen zuen
ta bilatu oso nahita;
hau Euskal Herrian daukagun
Julio Iglesiasen aita.

S. Lizaso: Ez dakit eta galderatxo bat
daukat luzatu beharra:
buru gorri ta pekosoa al da
Oihane horren senarra?

J. Agirre: Horren senarra ez dakit zer dan
ta ez dit inportik batere
Oihane behintzat nik maitatzen det
senarrik ez balu ere.

A. Egaña: Xebastianen karikatura
Xerapiona zan kasik
baina hori ez du Oihanek senar
tarteka maitale baizik.

O. Perea: Ezkondu gabe seme batekin
ta pekatari itzela
txoritxu batek hori esan dit

pekatuan bizi dela.

S. Lizaso: Ez ikaratu ez degu ezer
txoritxoak esatea
gaur pekaturik astunena da
pekatu ez egitea.

J. Agirre: Andretxo maite izan dituzu
hartu-eman ta tratuak
orandik ere bizi al dira
lehengo apaizen kontuak?

A. Egaña: Programa rosa hontan azkenik
nolako huskeri pila!
Audientzia jeisten ari da eta
bat desmaiatu dadila!

O. Perea: Telecincotik zer ein behar den
nik oso ondo dut ikasi:
benga Sebastian bero dago-ta
alkandora kentzen hasi.

S. Lizaso: Utzi alkandora ta jar gaitezen
politikoei begira:
lehengo alkatea eta berria
kumunean biltzen dira.

J. Agirre: Baina gauza hori bai al zendukan
hemen zertako esanik?
Gasteizen inor ba ote dago
kumunera joate ez danik?

A. Egaña: Alfonso Alonsok bazuen nahia
Lazkozek bazun sasoia
baina rolloa etetera joan zan
lehengo Cuerda santurroia!

O. Perea: Baina hori be komunera doa
nahiz izan hainbat bertute
herri honetako alkateek
tronoa bertan baitute.

S. Lizaso: Nun eta komonean elkartu!
Ausart, ez nitun espero;
eta dena galdu liteke han
bonbari tira ezkero.

J. Agirre: Zorioneko kumon hori da
gaurko hizketagai mardula
okerrena da handik kanpora

kaka egiten degula!

A. Egaña: Uste dit Joxe berriro ere
protagonista haizela:
hemengo andre politiko bat
Agirre dek hi bezela.

O. Perea: Gaur eguneko telebista hau
dago aldaketaz beteta:
orain bagoaz ta gero dator
Miss Euskadi lehiaketa.

GASTEIZ (2007-08-07)

Bertsolariak: As. Otamendi,
I. Ibarra, J. Maia eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Amaia Altube.

Gasteizko jaietan egunero izaten diren bertso saioetako bat. Aihotz plazan izan zen, eguerdiko ordu bata eta erdietan; entzule ugari elkartu zen bertsolariak entzutera.

I. Ibarra-M. Lujanbio

Gaia: Nafarroako Gobernua osatzeko negoziazioak nola doazen jakin behar dugu orain. Alde batetik, Maialen, Fernando Puras izango dugu; eta Iratxe, Patxi Zabaleta.

Neurria: seiko txikia
Doinua: Bertsuak jarri dizkat

M. Lujanbio:

Esan behar dedana
Patxi juxtu zer da?
Hasi zaitez zu, egin
zaidazu galdera
ta erantzungo dizut
horren arabera. (bis)

I. Ibarra:

Galderarik ez daukat
egon zaite lasai!
Burruka egin behar duzu
burruka egin bai
ze zure nagusiek
ez nabe ikusi nahi. (bis)

M. Lujanbio:

Ez zaituzte ikusi nahi
badakit badakit
ta ezkutuka gabiltz
juxtu horregatik
zukin ez ibiltzeko
aitatxok esan dit. (bis)

I. Ibarra:

Aitak emongo deutsu
kontseju ugari
baina heldua zara
ta portatu argi
zuk egiozu kasu
zeure bihotzari. (bis)

M. Lujanbio: Erreza izango danik
ez zait iruditzen;
bihotzari kasu egin nahiz
hortan ari nintzen
baina bila ari naiz
ta ez dut aurkitzen. (bis)

I. Ibarra: Ba jardun behar dozu
topau beharrean
edo neuk azalduko
deutsut indarrean
bihotza nun dagoen
hemen ezkerrean. (bis)

M. Lujanbio: Beraz hor omen dago
taupaka dilindan
erdi parean baina
ezkerreko jiran;
ba eskubian zegola
Sanzek esan zidan. (bis)

I. Ibarra: Sanzek esango deutsu
hori ziur esan
baina ez zaite hasi
zu Sanzekin dantzan
harena eskumara
aspaldi joan zan. (bis)

M. Lujanbio: Ta orduan bihotzak
kabi hori non du?
Ezin naiz aklaratu
ezin ezer ondu
banijoa hemendik
ta zuek kopondu! (bis)

J. Maia

Gaia: Euskal txirrindulari bat zara, Iban Mayo. Astebete daramazu etxetik irten gabe.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi

Pentsatu ere ez nuen egin
hain destinu okerrean
nere gorputza sentitzen nuen
sasoian ta indarrean.
Positiboa eman dut orain
mundu guztian aurrean
dela aste bat “Animo Iban!”
ta bultzadak bizkarrean

eta gaur berriz hiltzen utziko
ninduketen bazterrean. (bis)

Azken urteetan sentitu izan dut
zale gehienen eupada
esan bezela orain ordea
sentitzen dut ostikada.
Ez dakizue zein exijente
izaten den tenporada!
Beti emaitzak ta esponsorrak
presioa hona, hara;
dagon drogarik txarrena beti
irabazi beharra da. (bis)

Ta ez pentsatu orain nik ere
barrenean daukat pena
zulo beltzean sartuta nago
infernuaren hurrena.
Orain badakit zale guztiek
gorrotatuko nautena
nik onartzen dut neure akatsa
hipokresi nabarmena
onartuko det neurea baina
zuek onartu zuena. (bis)

GASTEIZ (2007-08-08)

Bertsolariak: J.M. Juaristi, E. Lagoma,
A. Arzallus eta A.M. Peñagarikano.

Gai-emailea: Felipe Zelaieta.

Gasteizko jaietan egunero izaten diren bertso saioetako azkena. Aihotz plazan izan zen, eguerdiko ordu bata eta erdietan. Euria egin arren jende multzo polita elkartu zen bertsolariak entzutera.

A.M. Peñagarikano-J.M. Juaristi

Gaia: Peña, zu, ikaslea zara, eta Juan Mari irakaslea, eskola berean. Zuen artean konfiantza handia izan da, handiegia askotan. Dakigunez, egoera hau ez da zuen eskolan bakarrik gertatzen, eta Gobernuak erabaki du irailetik aurrera errespetuz tratatu beharko duela irakaslea.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Pello Joxepe tabernan dela

A.M. Peñagarikano: Guk elkarrekin tratua degu
hortan baztertu zalantza
baten bateri gustatu ez zaio
guk daramakigun martxa
ta Gobernuan hasarratuta
batzuk omen daude antza
gauza bat dugu amistadea
ta bestea konfiantza.

J.M. Juaristi: Ikasle artean desesperatuz
hala ematen dut eguna.
Kurtsoa hasi ta ustekabean
Peña're egin laguna
ta Gobernuak pentsatua du
kendutzea nire trauma;
lehen kolega deitzen zenidan
ta aurrerantzean “jauna”.

A.M. Peñagarikano: Jainkoa ere jauna degu ta
jarri dute haren pare
ez derizkiot erabakia
hartu dutenik dotore.
Gure kateak apurtutzeko
zenbat indar ta botere...
Oain galerazi egin behar al da
elkar maitatzea ere?

J.M. Juaristi: Boterea ta katea aipatuz
egin orain aipamena...

Nere ustetan egitasmoa
izan liteke onena:
aurrerantzean eskua altxa
eta eskatu baimena;
ez ote zera Peña zerorri
katean lotu behar dena?

A.M. Peñagarikano: Areto haundi bat bete-betea
irakasle ta ikaslez
eta batzuek txit osatuak
aurpegiz eta azalez;
baina horrela segi nahi nuke
ta hola utzi mesedez.
Anaiai hika egiten diot
irakaslei zergatik ez?

J.M. Juaristi: Baina alproja ez ote zera?
Jartzen didazun ikara...
Bete-betea daukazu beti
gaixtakerien kikara
ta anaia ta hika aipatuz
hola zatoz zu bertara;
txorradak utzi ta azken lerrotik
etorri lehen filara!

A.M. Peñagarikano-A. Arzallus

Gaia: Hainbat saio egin dituzue elkarrekin eta elkar ederki asko ezagutzen duzue. Gaur egun modan jarrita dago desafioena; ikusi besterik ez da Pressing catch eta halakoek nolako arrakasta duten gure gazteen artean. Bertsoetara ere etorri da hori. Elkarri kristorenak eta bi esateko prest zaudete. Lagunok, odola nahi dugu!

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Ai gure antzinako / Esnesaltzailearena

A.M. Peñagarikano: Amets beti izan da
lagun bat xixtrina (bis)
oso ipurterrea
eta xiprixtina;
bertsoetan diote
hau dela makina;
gainera ez da euskalduna
ez zaude jakina?
Zoaz Hendaiaraino
gabatxo zikina! (bis)
A. Arzallus: Ta español honekin
zenbat gorabehera! (bis)
Ta Athleticzalea

jaio zan gainera;
Gipuzkun txapelketan
behin nagusi bera
baina ordudanikan
oilo busti zera
geroztik txapelketan
ez baita atera. (bis)

A.M. Peñagarikano: Txapeldun omen nintzen
piropo polita (bis)
nik ere izan nuen
burua estalita.
Bertsolaria danik
ez det sinetsi-ta...
Ni oilo bustia omen
bera nere txita
beti ibiltzen dana
txandala jantzita. (bis)

A. Arzallus: Berriz ere sartu da
nere txandalakin (bis)
askotan jokatzen du
honek nahiko zikin
eta aspaldi hontan
ikusten det berdin:
txandala dala eta
ekin eta ekin...
Sei urte daramatza
txiste berdinakin! (bis)

A.M. Peñagarikano: Nere txiste politak
kantatze'ituzu zuk (bis)
eta ikasita ere
badauzkatzu batzuk.
Eta beste gauza bat
nik hemen dakartzut:
Bizkaiko nobianak
danak jakin ditut;
txaketero alua
akabauko zaitut! (bis)
A. Arzallus: Honen bizitza berriz
zeinek konprenitu? (bis)
Etxean emaztea
ta semea ditu;
aita egin zala dira
hiru urte ta piku
ta lehen "Zer moduz Jokin"
galdera aditu
ta honek esan dit "Zer?
Ez det entenditu". (bis)

A.M. Peñagarikano: Ta orain azalduko det
nere arrangura: (bis)
horrelako lagun bat
guk ez degu gura;
honek berekin dauka
tisiko itxura
beti bokadilo bat
sartzen du barrura
txuleta jaten badu
Peñaren kontura. (bis)

A. Arzallus: Uste ez dan lekutik
kantatzen du bingo (bis)
gu atzo afaltzera
Aia aldera igo
apustu bat egin nun
nork ez du jakingo?
Afaia paatu nion
atzo nik astiro.
Lasai berriro ez det
apustuik egingo. (bis)

GASTEIZ (2007-08-09)

Bertsolariak: M. Agirre, U. Iturriaga,
J.M. Irazu eta Z. Enbeita.

Gai-emailea: Pablo Pagegi.

Gasteizko jaietan egunero izaten diren bertso saioetako azkena. Aihotz plazan izan zen, eguerdiko ordu bata eta erdietan.

M. Agirre-U. Iturriaga

Gaia: Manex ama dugu eta Unai ume jaioberria. Amak besoetan dauka; ama umeari begira eta umea amari begira, biak harrituta ikusten dutenarekin. Jakin nahiko genuke zergatik dauden harrituta.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Dama gazte xarmant bat

M. Agirre: Beratzi hilabete
nik nuela busti
ta ordutik pasa da
euri ta eguzki.
Jaio da ta sustoa
hartu dut nik noski:
umea ez da ba jaio
patilla ta guzti! (bis)

U. Iturriaga: Bi patillatxo ertzean
eta burua zut
minutu luze baten
begiratu dizut.
Baina ez izan txotxola
konpondu behar hau guk:
ez begiratu horrela
nik esnea nahi dut. (bis)

M. Agirre: Esnea gura duzu
nik ez nuen uste
titia ematen pasa
horrenbeste aste...
Laister hasiko zara
jo zenbat ezuste
titia utzi eta
Dudacosan eske! (bis)

U. Iturriaga: Horren goxo nengoen
ni tripa ertzean

eta hau disgustoa
mundura sortzean!
Tabakorik ez dago
ta nago letxean...
Canal Plus egongo da
gutxinez etxean? (bis)

M. Agirre: Begira umea zein
listoa daukagun!
Izorratu! Canal Plus
guk nola ez dugun;
Xabier Letek noizbait
oso argi esan zun:
isilik egoteak
zenbat balio dun. (bis)

U. Iturriaga: Xabier Lete aipatu
ta ni dardarrean
konfiantzarik ez dut
haren bizarrean.
Ez nintzake egongo
ni ere haserrean
isildu ez bazina
aitaren aurrean. (bis)

M. Agirre: Egia da bai aita
ez naiz konturatu
berak egin didana
ezin dut barkatu.
Ematen dizutena
Unaitxo onartu
baina ez zaitez inoiz
bertsolari sartu. (bis)

U. Iturriaga: Tabakoa da txarra
txarra da ardoa;
bertsolaritza ez da
itxuraz sanoa...
Nora ekarri nauzu?
Hau mundu arranoa!
Zabaldu hankak, berriz
ni barrura noa! (bis)

ZIZURKIL (2007-08-15)

Bertsolariak: S. Colina, M. Lujanbio, J.M. Irazu, J. Agirre, A. Agirre eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Jon Ander Esnaola.

Zizurkilgo jaietan urtero egiten duten jaialdia. Gauean izan zen, pilotalekuan, eta ohi bezala jende asko elkartu zen.

A. Arzallus-J. Agirre

Gaia: Zu, Joxe, bakarrik bizi zaren adineko bat zara. Katu bat da zure konpainiarik onena Amets, eta egunero bezala paseatzera irten zara  katuarekin, baina hara non, katua arbola batera igo zaizu. Zu, errukituta, katua jaitsi ezin eta katua jaisteko asmoz, zuhaitzera igotzen hasi zara; konturatzerako, ordea, zu zara zuhaitz gainean jaisteko beldurrez dagoena, eta katua behean, zuri barrez.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Uso zuri bat inguratu zait I

A. Arzallus: Beti estorbu eiten dedala
hor jarduten zait kejatzen
ta zuhaitzera igoa naiz gaur
ez bainaiz gutxi nekatzen
eta hau berriz nere atzetik
esanez “ goruntza goazen!”.
Igotzen kosta ein zaizu baina
kosta behar zaizu bajatzen!

J. Agirre: Nolabait ere eingo ahal ditut
bajatutzeko moduak!
Eta katuak daduzka hemen
ni tentatzeko goguak.
Euzki epeletan pasatzen ditu
oso ordu ondraduak
honegatikan biziko dira
arratoi eta saguak!

A. Arzallus: Haserre dago ez naiz harritzen
nahiz adarrei eutsi tinko
nunbait katuak alde egiteak
egiten zion zimiko.
Lehen zozokume kabi bat zegon
haiek’e juanak mutiko...
ba oraintxe bai bakar-bakarrik
gelditu zera betiko.

J. Agirre: Lehenago banun andre eder bat
ustez neretzat hartua
heriotza hori izan zan bide
nago sakabanatua
orain amonan partez laguna
hementxen daukat katua...
Ondo pentsatzen jarri ezkero
pizti madarikatua!

A. Arzallus: Bere laguntzat egin ninduen
nahiz eta izan berandu
ostikoka ere hor jarduten zait
inoiz fuerte ta ondradu.
Oain zuhaitzean hola jarrita
atsalde bat daramagu;
nahiz elkarrekin hola ibili
ondo konpontzen gera gu.

J. Agirre: Ondo konpotze horrek'e badu
tartetan nahikoa neke
gaizto samarra zerala ere
garbi esan nahi nizuke.
Arra da eta zenbait alditan
hor ibiltzen da jo ta ke
ni bakarrikan utzitzen nau ta
sakaperikan sakape.

A. Arzallus: Nahiz ta pentsatu katua igual
dagoela azkenetan
bakar-bakarrik uzten dedala
ta al dago problemetan?
Orain Zizurkil Goia dezula
hurrena Goiatzen bertan...
Ni're zu bertsota joatean
han gelditzen naiz penetan.

J. Agirre: Nere ustetan garbi eman det
nere lagunaren nota
nolakua dan aspalditikan
daukat ondo begiz jota
bainan hala ere neure etxetik
inola ezin neike bota
hau bialduta hobeagorik
nei ez zait etorriko-ta.

# BILBO (2007-08-19)

Bertsolariak: X. Paya, S. Colina,
U. Iturriaga eta S. Lizaso.

Gai-emailea: Jon Eizmendi.

Santutxuko Bertso-Eskolak Bilboko Aste Nagusian antolatu ohi dituen jaialdietako bat. Eguerdiko ordu batean izan zen, Santiago plazan. Jende multzo polita elkartu zen bertsolariak entzutera, nahiz eta euria egin.

X. Paya-S. Colina-U. Iturriaga- S. Lizaso

Gaia: Jaietan pankarta asko ikusten ditugu han eta hemen. Zuek lau pankarta zarete, lau pankarta desberdin. Zer dago idatzirik zuen baitan.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

X. Paya:
Ni txosna baten jarria nago
han sortzen dut ikusmira
ta zera diot letra haundiz: "EUSKAL
PRESOAK EUSKAL HERRIRA";
nire moduan beste hainbeste
beste hainbat lekutan dira
nahiz ta nahiago nukeen guztiak
sobran egongo balira. (bis)

U. Iturriaga:
Jaiak ez dira soilik izaten
parrandak eta gaupasak
nahiz eta danok maite doguzan
aste bateko demasak
Bi esaldi dauz nire pankartan
esaldi erraz-errazak:
"Jai herrikoien alde lan egin
gora Bilboko konpartsak!". (bis)

S. Colina:
Nik mezu zahar bat daukat niregan
oroitu bedi gaupasan:
"Babosorik ez eta eraso
sexistarikan ez jasan!".
Jar nazatela Santiago erdian
edo Areatzako plazan
hurrengo urtean jarri beharrik
izango ez den esperantzan. (bis)

S. Lizaso: Hauen ondoan ni're hemen naiz
ba ote dut indarrikan?
Nere mezua segi ezkero
ez da izango liskarrikan;
nere mezua Azkunarentzat
nahiz agian alferrikan:
Bilbon banderaik ez dala behar
ikurrina bakarrikan. (bis)

X. Paya

Gaia: Aspaldi honetan modan jarri zaigu zoriona hitza. Emaguzu zure formula zoriontsu izateko.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Semaforoak gorri ta berde

Formula esan behar dudala
lau hizki ta lau numero
pertsatzen hasi ta berehala
gelditu ez naiz ba ero!
Ez da erreza hori asmatzen
errezik ezin espero
lehenbizi hauxe esango dut ta
aizu gerokoak gero:
hitzek indarra galtzen dutela
sarritan esanez gero. (bis)

Zoriontsua denak ez dauka
bihotz barnean arantzik;
zoriontsuak aurrekoetan
ez du ikusten akatsik;
bere arima erakusten du
bere izaera biluzik.
Zorionaren bila ez hasi
eta bizi beti pozik
ez dagolako gauza haunditan
gauza txikietan baizik. (bi)

Zoriontsuak ordea badu
hamaika erantzukizun!
Kontuz ibili zorion hori
agortuko ez ote zaizun!
Aurrekoari irribarretsu
ta modu onez erantzun
ta zoriona hartu baino lehen
aholku hau arren entzun:
hartu aurretik pentsa ezazu
nori eman nahi diozun. (bis)

BILBO (2007-08-24)

Bertsolariak: Mañukorta, A. Agirre,
J. Sorozabal eta A.M. Peñagarikano.

Gai-emailea: Zuriñe Iarritu.

Santutxuko Bertso-Eskolak Bilboko Aste Nagusian antolatu ohi dituen jaialdietako seigarrena. Eguerdiko ordu batean izan zen, Santiago plazan. Aste guztian bezala euria gogotik egin arren, jende ugari elkartu zen.

Mañukorta-A. Agirre

Gaia: Ni gustura joango nintzateke zurekin Jainkomendira, baina beste neska bat aurreratu zait: Amaia. Zure bertsoak entzun eta hunkitu egin duzu; elizan bertan dagoela eta ezkontzeko prest dagoela esan dizu.

Neurria: lauko handia
Doinua: Kontu barri bat suzedidu da II

A. Agirre: Zuri entzunda emozionatu
eta hementxe naukazu;
jertsea bai sorbaldetan baina
Mañu trajea nun dezu?

Mañukorta: Albo batetik ez didazu gaur
horrela joko adarrik!
Gorputz jatorra daukan mutilak
ez dauka traje beharrik!

A. Agirre: Beraz trajerik ez dezula nahi
oraintxe nago trantzeko...
Korbatarik ez zuten egingo
lepo hori hornitzeko!

Mañukorta: Gorbetarekin zer kristo arraio
hemen esaten ai zera?
Gorbeta beltz-beltz bat badet baina
gerri aldetikan behera.

A. Agirre: Teoriatik asko dakizu
ta maite dezu praktika
baina oraindik ez zazu ireki
galtzan erdiko patrika.

Mañukorta: Hortxe ikusten zaitut nerekin
oso neskatxa alaia;
irikitzen zuri utziko dizut

bihotz erdiko Amaia.

A. Agirre: Zuk dena hemen egin nahi dezu
klaro, klaro, klaro, klaro!
Zuk pekatuan hasi nahi dezu
ezkondu baino lehenago.

Mañukorta: Nik gauza honi ez diot eingo
ez eman eta ez kendu;
oraintxe bertan ezkonduko gera
ezkontzea nahiko bazendu.

A. Agirre: Hiru minutu soilik pasa ta
eliz aurrean kolpetik
lepoan katea jarri nahi dit
eraztunaren aurretik!

Mañukorta: Edozer gauza egin dezake
guk daukagun maiteminak
ia betiko ezkontzen gaitun
Begoñako Ama Birjinak!

A. Agirre: Atari hontan lagun honekin
ez det nahi adina pake...
Ama Birjinak ezkonduz gero
seinale txarra litzake.

Mañukorta: Nere Amaia oraintxe dator
jantziak moda-modara
ta guztiontzat konbidapena
orain gu bion bodara.

A. Agirre: Bueno ba bale ezkondu beraz
gonbitea hartuta aintzat;
hamar urtean aguantatu ta
gero herentzia neretzat.

IBARRA (2007-08-24)

Bertsolariak: J. Sorozabal, M. Telleria,
A. Egaña eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Xabier Artola.

San Bartolome egunez, Emeterio Arrese plazan izan zen, iluntzeko zazpi eta erdietan. Eguraldi ona eta plazako aulki gehienak entzulez beteta.

M. Telleria-J. Sorozabal

Gaia: Hipodromoaren aurrean eztabaida latza duzue zuek. Millan astoa hartuta joan da Urrezko Kopa lehiaketara. Sorozabalek ez dio sartzen utzi nahi.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Kantatzera nijoa

J. Sorozabal: Hemen ari naiz honi
aholku ematen
araudia nola dan
suabe esaten:
animali horrekin
ezin dezu irten
pura sangre horrek ez du
tailarik ematen. (bis)
M. Telleria: Eginak baditu bai
hainbeste azaña
gainean gurutza dun
astarra bikaina;
arrantzaka hasten da
azkar alajaina!
Pura sangre on bat da
astoa da baina. (bis)

J. Sorozabal: Jinete moreno bat
era lirainean
astoa berriz zutik
egon ezinean...
Aukera bat daukazu
zuk azken finean:
zu azpin jartzea ta
astoa gainean. (bis)

M. Telleria: Astoa ikusi ta
gizona aztora

hipodroko jefea
ez dago gustora.
Trueno Negro hau baino
lehenago joango da
hau're iritsiko da
ta eman denbora! (bis)

J. Sorozabal: Iritsiko omen da
hau da hau kaikua!
Emango beharko diot
belarrondokua!
Espektakulo hau ez da
gure gisakua;
hau kirol proba bat da
hau ez da zirkua! (bis)

M. Telleria: Nik ere sartu nahi nun
lehiaren legean
nahiz etorri nintekeen
itxura hobean
astoa hartu eta
ni pista lanean.
Jineterik ez dizu
botako airean. (bis)

J. Sorozabal: Bidean abitzen da
zeu baino lasaio
baina zelai luzetan
beste denek aio;
maldan ederki baina
zelaian ez iaio...
Albizturkoa dala
antzematen zaio! (bis)

M. Telleria: Gizon hau txulo jarri
Lasartera joanik
eta ez du bete nahi
gaur Millanen planik.
Baina pentsatuko du
orain hau esanik:
honek kamara lenta
jartzen ez du lanik!. (bis)

A. Egaña

Gaia: Hondartzan dagoen mutil koxkor bat zara. Gaztelu bat egiten orduak daramatzazu. Bukatzear zaudela, olatu batek dena desegin dizu.

Neurria: zortziko handia

Doinua: Herri txikien negu gordina

Nik gaztelu bat osatua nun
lau paje ta erregina;
hiru-lau torre, almenak berriz
almenak ahal adina.
Etorri eta puskatu dezu
aizu olatu zikina!
Ez zen haundia ez zen ederra
baina neronek egina.

Olatu batek dena hautsi dit
olatu gaizto bortitza;
toldotaraino joan eta aita
“Umeak zertan dabiltza?
Ez egin negar! Tori zapi bat;
zintza, hemen egin zintza;
lan egin eta ezertako ez
holakoa da bizitza”.

Baina aitari erantzun diot
“Gaztelua hautsi dit ai!”
Aitak erantzun “Haur ez al zera
hori entenditzeko gai?
Bizitza degu holakoxea
egon zaite haunditu zai”.
Erantzun diot erdi negarrez
“Ez det haundia izan nahi”.

# DONOSTIA (2007-09-01)

Bertsolariak: A. Egaña, M. Lujanbio,
A. Arzallus, I. Elortza,
U. Iturriaga eta I. Lazkano.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Euskararen Udal Patronatuaren laguntzarekin Donostiako Euskal jaietan antolatutako saioa. Trinitate plazan egin izan da beste urteetan, baina han obrak zirela-eta Konstituzio plazara pasa zuten. Seiehun entzule inguru elkartu ziren bertsoak entzutera.

M. Lujanbio-I. Lazkano

Gaia: Imanol aita eta alaba Maialen. Gauza berezia gertatu da zuen etxean, beste etxeetan gertatzen ez den bezala: aitak zahar etxera joan nahi du, eta alabak ez du ulertzen zergatik joan nahi duen.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

M. Lujanbio: Horretan ere ezin ba izan
zuk beste guztik bezala!
Lehendik banekin kapritxosoa
ta berezia zinala.
Etxean horren ondo zaudela
alde ein nahi dezu aibala!
Uste al dezu zahar etxe hori
Maria Cristina dala?

I. Lazkano: Nik iritzi hau daukadalako
aita ez zazu gorrota
ez zazu pentsa familirako
izango denik porrota.
Eta zergatik egiten dedan
orain behar dizut konta:
zahar etxera pozikan nua
etxian sobre nago ta.

M. Lujanbio: Behin baten hori okurritu ta
ideari segitua;
etxean sobran zaudela... nola?
Zuk daukazu delitua!
Zure aldeko hainbeste lanez
dedan ezin kabitua
baina etxekoen lana ikusten ez
ta kanpoan meritua.

I. Lazkano: Nik hori esan dizudalako
ez zaitez jarri malkotan

egia esan hoiek neronek
bota baititut askotan;
andrea sarri kafetegian
eta alaba bertsotan...
Zahar etxean hobetogo naiz
horrela bizitzekotan.

M. Lujanbio: Gauzak horrela dabilzkigula
pasa da nahiko denbora
igual egia, denbora luzez
ez noa zure ondora.
Gaurkuan behar det Donostiara
kantura, gero Bilbora;
aita nerekin hartu ezkero
igual piztu egingo da.

I. Lazkano: Sendi maitale izandua naiz
nere bizitza osuan
bainan oraingoz hain triste nago
hartu dedan frakasuan;
etxian dira nahikoa otso
nahiz aingeruak auzuan
gaurko egunean haur ta aitonak
beti gaude enbazuan.

A. Egaña-M. Lujanbio

Gaia: Andoni insoportable dabil azkenaldi honetan: zarauztarra da, bihar Kontxan dira, Zarautz izan da euskal traineru azkarrena sailkapen estropadan... Arrauna besterik ez du buruan. Maialenek arraunaz paso egiten du, eta arraunaz ez beste edozertaz hitz egin beharko; Andonik, aldiz, arraunaz soilik hitz egin dezake.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Mendiko umea naiz

A. Egaña: Bihar hamabietan
a ze itsasoa!
M. Lujanbio: Bihar igandea da
ta egun osoa.
A. Egaña: Gerta leike trapaila
bare naiz goxoa...
M. Lujanbio: Egualdi ona dago
ze kuriosoa!

M. Lujanbio: Donosti hontan beti
eguraldi ona
A. Egaña: hori da estropadai

tokatzen zaiona;
M. Lujanbio: pote bat ateatzeko
ekatzu txanpona;
A. Egaña: ur gehiegi sartzea
ez da gero broma.
A. Egaña: Talkak jarri beharko
dira badaezpada.
M. Lujanbio: Zerbait falta zaiola
argi dago hara;
A. Egaña: Zarauztik mordoxka bat
etorriko gara.
M. Lujanbio: Ba al dakizu? Reala
joan da segundara.

M. Lujanbio: Gaur gainera Eibarren
jokatu omen dute;
A. Egaña: Eibarko traineruak
ez du hainbat birtute.
M. Lujanbio: Bat zero baino bi're
askoz nahio nuke.
A. Egaña: Lehen tanda hobea da
kontatu digute.

A. Egaña: Eta segundan doa
Urdaibaiko hori
M. Lujanbio: zuritoa atera det
kanbioak tori.
A. Egaña: Nahiz Enbatak ez duen
hainbeste histori.
M. Lujanbio: Atzo parranda egin nun
nago erdi grogi.

M. Lujanbio: Hizketan ai da baina
ez diot aditzen.
A. Egaña: Hamalau traineruan
ez dira kabitzen.
M. Lujanbio: Ahua mugitzen du
ez det entenditzen;
A. Egaña: ni arraunzale aizu
txikitatik nintzen.

M. Lujanbio: Hau da elkarrizketa
daramakiguna!
A. Egaña: Zer diozu? Ez det ezer
entzuten laguna.
M. Lujanbio: Arrauna nik buruan

zuk ere arrauna.

A. Egaña: Goazen etxera biak
nahi dunak nahi duna.

ALKIZA (2007-09-14)

Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, A. Arzallus,
A. Egaña, M. Lujanbio, J.M. Irazu eta S. Lizaso.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Herriko jaien karietara urtero antolatzen den bertso jaialdia da. Gaueko hamar eta erdietan hasi zen, eta frontoira entzule asko bertaratu ziren.

M. Lujanbio-A. Arzallus

Gaia: Gaur, zuek biok, koadrilan irten zarete parrandara. Goizeko hirurak dira, lagun guztiak joan egin dira, eta zuek biok geratu zarete. Zu, Maialen, nazkatuta zaude Ametsekin. Ez dizu batere kasurik egiten. Jendea du beti aldamenean, eta zu bazter batera uzten zaitu.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Nere senarrarekin I

M. Lujanbio: Denak “Amets zein da?” ta
Amets nun dan galda
ingurun beti dauka
kriston porru salda.
Lagunmina naiz baino
hau normala al da?
Gehiago ematen det
zure guarda espalda.
A. Arzallus: Guarda espalda txikia
hori da problema.
Badakizu ordua
aurreratu dena;
mozkortzean etortzen da
hona jende dena...
Zeu ere mozkortzea
ez al da onena?

M. Lujanbio: Nik edaten det eta
eiten dizut kasu
baina hala’re prexko
ta erne naukazu;
eta nerekin horren
lehorra zera zu
hainbeste eulirentzat
ze gozo daukazu?

A. Arzallus: Bati bizkarrekoa
besteai muxua;

besteai kaso egin
ze konpromisua!
Hortarako ze ote
daukadan goxua?
Itxoin pixkat han dator
nere lehengusua.

Unai Elizasuk mikroa hartu eta gai hau jarria die: “Barkatu, barkatu, oraintxe jaso duzue abisua zuen koadrilakoek auto istripua izan dutela, eta ospitalean daudela”.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Ludi bizitza abesti gozoz

A. Arzallus: Han ikusten det lehengusu zaharra
ta gure auzoko Martin
beste ezezagun bat ere hor
ta hitz egiteai ekin.
Utz nazazue denek bakean
eta ez sartu nerekin
lehenbizi nere kuadrilakoak
nola dauden nahi dut jakin.

M. Lujanbio: Trago egiten ai ginan ahala
kolpe jo digu garunak
dei baten hotsak iritsi dira
oso notizi belzdunak;
mingarria da heldu beharra
horren estremo astunak
baina holakotan bereizten dira
jendea eta lagunak.

A. Arzallus: Holakoetan ikasten dugu
zinez lagunak nor garen
ta konfiantzaz aurreraxeago
maitasunik ere baden.
Jende guztia neukan bueltan ta
bazterrean utzia lehen...
Berriro ez det egingo eta
barkatuidazu Maialen.

M. Lujanbio: Orain horrek ez du garrantzirik
nahiz barkamena zilegi;
blokeatuta geratu gera
ta elkarri begira segi
Basoa hartu ta harrika bota
det milatan hautsi bedi
baina basoa botatzerako
askotan beranduegi.

A. Arzallus: Nahastu ditugu lehen ezker-eskuin
nahastu ditugu goi ta behe;
probatu ditut bi kalimotxo
patxarana ta JB.
Maialen orain egin behar dut
ur botila baten jabe
gaur behintzat heldu nahi dut etxera
istripurik izan gabe.

M. Lujanbio: Juergazaleak gera, badegu
afizio nabarmena
ordu txikitan bueltatzen gera
errepidetan barrena;
mila eskapada kontatu degu
autotik juxtu irtena
baina iristen da eskapada bat
besteek kontatzen dutena.

LEZO (2007-09-17)

Bertsolariak: A. Sarriegi eta I. Zubeldia.

Santa Kruz festetako baserritar egunean Tiñelu elkarteak urtero antolatzen duen bertso bazkaria. Tiñelu elkartean izan zen, berrogeita hamarren bat bazkaltiar bertan zirela. Librean jardun ziren. Egunari eta han zeukaten egoerari buruzko hanbat bertso kantatu zituzten saioaren hasieran, eta lagin txiki bat besterik ez dugu jaso hemen.

Neurria: zortzikoa handia
Doinua: Menditarra naiz eta gogoan

A. Sarriegi: Bueno baino gaur heldu geranez
Lezoraino bazkarira
nola juan dan komentatzea
dagokiguna hori da
entremes onak arrai goxoa
azkenean haragira...
Nahiago nuke astelehen danak
horrelakoak balira.

I. Zubeldia: Urdaiazpiko gorri-gorria
ta patearen prexkura;
arraiak ere saltsa berdean
a ze nolako itxura!
Txanpaina eta sagardoakin
aldendu degu trixtura;
kale umeak gozatu gera
baserritaren kontura.

A. Sarriegi: Baserritarren egunarekin
jarri da nahiko enpeño
era hontako giro politik
guk ezagutu gaurdaino!
Lanetik irten eta lanera
etorriak Lezoraino
baina hemengoa nahiago det nik
han utzi dedana baino.

I. Zubeldia: Egia esan egin digute
horren harrera epela
esan nahi nuke herri honetan
pixkat harritu naizela;
mahai inguruan jarri gera ta
nolako giro itzela!
Nik uste nuen Beasaindik behera
baserritarrik ez zela.

A. Sarriegi: Badira eta ez zazu esan

zuk horren gauza baldarrik
baino hala're ez da faltako
hemen iritzi kaxkarrik;
emakumeak gutxi daudela
ez dago esan beharrik...
Baserrian lan egiten al du
gizonezkoak bakarrik?

I. Zubeldia: Baserrin lana nork egiten dun
bada zenbat tira-bira;
emakumeak askoz gehiago
azaltzea komeni da.
Aitorrek zion gutxi daudela
aldamenetik begira
baina daudenak onak ditugu
onenak baldin badira.

A.Sarriegi: Ni kaletarra nauzu jaiotzez
eta aitortzen det hala
inguru hontan sobra egotea
izan liteke normala.
Esan didate hemen gehienak
kalen aritzen dirala...
Baserrian lan egiten dunak
eskua jaso dezala.

I. Zubeldia: Baserritarrak asko daudela
hori ezin leike uka
batzuk ixilik egoten dira
eta besteak oihuka.
Herri honetan gauza batekin
bada nahikoa burruka:
aurki artzaiak jardungo dira
Superportuan txistuka.

LEZO (2007-09-17)

Bertsolariak: S. Lizaso eta A. Egaña.

Santa Kruz festetako baserritar egunean Ixkulin elkarteak urtero antolatzen duen bertso bazkaria. Ixkulin elkartean izan zen; hirurogeiren bat lagun elkartu ziren. Baserritarren eta han zeukaten egoeraren gainean aritu ziren batez ere, Hitzetik Hortzerako kamerak tartean zirela.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

S. Lizaso: Begira jarriz ikusten dira
oso gauza nabarmenak:
garai batean gazte izanak
hemen zaudeten gehienak.
Ez dago zertan kontatzen jardun
hor banaka urte denak;
zenbat hogeiko ote daduzka
baserritarrik gazteenak? (bis)

A. Egaña: Hara Lizasok disimuloan
gaur egin digun galdera;
matematika asunto hori
benetan zail ez ote da?
Nik erantzuna emango dizut
oso gutxi gorabehera:
hiru hogeikotik gora dauzka ta
lau hogeikotikan behera. (bis)

S. Lizaso: Zure esanak argitu ditu
nik neduzkan duda denak
horregatikan hauei kezkarik
sortu ezin astelehenak.
Muga gabeak dira ordea
baserritarren kemenak:
ia lau aldiz hogei urte ta
lana egiten dutenak. (bis)

A. Egaña: Baserritarrak berezkoa du
kopeta izerdiz bustia
horrexegatik gaur libre dira
patxarana ta whiskia.
Eguraldiak eskeini die
premizko zuten guztia:
ordu erdian izan dira gaur
zaparra ta eguzkia. (bis)

S. Lizaso: Bolada baten behintzat euria
hor izan degu gainezka

baina eskerrak hauek goizetik
kalerako diran presta;
baldin etxean egon balira
noski lan giroan kezka
ta egunpasa hemen eiteko
eguraldi txarrik ez da. (bis)

A. Egaña: Baina eguna hasi degu gaur
eguzki ederrarekin
ta ordubata inguru hortan
euri erauntsiak ekin;
nahiz baserritar hauek egualdiz
aspaldian asko jakin
igual baten bat etorriko zan
rejilladun zapatekin. (bis)

S. Lizaso: Hemen bakoitzak jakin behar du
nola etorri nola juan
baserritarrak giroarekin
beti kejati moduan.
Euria bati bati entzuna
oraindik daukat goguan
eunero pixkat behar lukeela
siestarako orduan. (bis)

A. Egaña: Siestarako denok dakigu
jarabea ona dena
ta begi bistan hemen daukagu
paisaje bat nabarmena:
botila hutsak lau jenerotan
hirurogeian barrena...
Telebistako kamara horrek
hartu behar ez lukeena. (bis)

S. Lizaso: Arrazoi dezu kamara horrek
ez dauka hartu beharrik
hartu ta gero zabaltzen bada
izango baita marmarrik.
Baina errua ez da gurea
ez zazula jo adarrik!
Aste guztian hustuak dira
ta ez gaurkoan bakarrik. (bis)

A. Egaña: Ixkulinera erdi egarri
iristen gera beti gu
bihurtzen gera zerbitzarien
maina onaren katibu.
Nahiz ta kamara ez dan izango
botila hutsen testigu
alper-alperrik ariko gera
geuri antzematen zaigu. (bis)

LEZO (2007-09-17)

Bertsolariak: S. Lizaso, A. Egaña,
I. Zubeldia eta A. Sarriegi.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Bertso bazkari banatan kantatu ondoren, herriko plazan elkartu ziren bi bikoteak gai-emailearen aginduetara jarduteko. Arratsaldeko zazpietan hasi zen saioa.

S. Lizaso-A. Egaña-I. Zubeldia-A. Sarriegi

Gaia: Deskantsua egingo dugu. Badakizue bertsolariak bertsoaz bakarrik ezin direla bizi; beraz, euren marken propaganda egiteko aukera dute orain. Iragarkien txanda.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Ari naizela ari naizela

I. Zubeldia: Guk badakigu hemen erronkak
dabiltzala ikusmiran
eta ez dakit propagandea
zenbatean komeni dan
Niki berria ekarri det gaur
eta sei letra segidan;
hau Adidasek ez zidan eman
amak oparitu zidan.
A. Sarriegi: Hona kotxean inguratu naiz
esplika dezadan aise
pasa dedala zenbait frenada
ta pasa nahikoa haize;
lau gurpiletan neumatikoak
izaten ditut halaxe
Michelinenak ibiltzen ditut
dauzkadanak bezelaxe.

A. Egaña: Hau zuretzako propaganda da
etxekoandre bazera;
gizonezkoek izaten dute
sarri zabarren tankera
eta komuna uzten badute
txerritokian antzera
ni bezelako Mister Proper bat
eraman zure etxera.

S. Lizaso: Azken boladan kanpainak kontran
ia ezin det ulertu;
behin behar eta hementxe nago
kontra egiteko gertu.
Fidel Castroren ordezkari bat
opariakin agertu;
puruan berri jakin nahi dunak
badaki nori galdetu.

I. Zubeldia: Behin Llonguerasek hala esan zidan
“Egin zaiz nere bezero”;
urte guztian eman zizkidan
hamar bat orraztu edo.
Garai batean ilea neukan
ezezkorik ez espero;
hara zer gauzak gertatzen diran
sarritan juan ezkero!

A. Sarriegi: Baino ileak geldituta’re
Zubeldia ezerezean
mesedez sartu zure bizitza
daramakin konpasean;
zuk Rocarena8 behar zenuke
ta lehenbiziko klasean
hiru-lau aldiz joan zera ta
ordu erdi eskasean.

A. Egaña: Udazkeneko programaketa
berria ta mundiala
mila programa berri egiten
egin degu eginahala;
publizidadeik ez zaigu sartzen
ez ote gauza normala?
Nik ETBtik kontatuko det
ETB kristona dala.

S. Lizaso: Alkoholemian kontrolak nunahi
hau ez da nobedadea
horrentzat ere errezeta bat
badut patrikan gordea:
ura edanda beldurrik gabe
gaindi daitezke ordea
lotarakoan ona omen da
jeikitakoan hobea.

HAZPARNE (2007-09-23)

Bertsolariak: J. Agirre, I. Lazkano, J. Uranga,
A. Arzallus, S. Colina eta T. Elosegi.

Gai-emailea: Karlos Aizpurua.

Hazparneko plazan izan zen jaialdia, arratsaldean. Bertsolariek bi leihotatik kantatu zuten, eta plazan jarrita zeuden aulkietan eserita jarraitu zuten saioa entzuleek.

S. Colina-J. Uranga-A. Arzallus

Gaia: Lapurdiko eta Azpeitiko gazteek arazo bera duzue: etxebizitza. Ametsek lurra erosi du, eta etxea eraikitzen ari da. Jokin gurasoen etxean bizi da, eta Sustraik apartamentua erosi du.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Hamaika aldiz daukazu lehendik

S. Colina: Ametsek lur bat erosi zuen
eraikitzen dabil egun;
Jokinek berriz aita ta ama
ditu bere bizilagun.
Apartamendu baten bizi naiz
goxo-goxo legun-legun
baina hiruak ez ote gara
biktima bezain errudun?

J. Uranga: Konplejo hoiek izaten dira
adin batera heltzean;
zuria izan beharra dago
egungo mundu beltzean.
Berrogei milioi nola eskatuko
ditut batzun banketxean
ohe bat libre baldin badaukat
gure amaren etxean?

A. Arzallus: Etxebizitzen prezioa da
egun iritsiezina
Sustraiek berak erosteko du
egina gaur ahalegina.
Menturaz ez da nerea izanen
oso polita ta fina
baina bai nere diruz ordaindu
ta nere eskuz egina.

S.Colina: Gurea ez al da soluzio bati
irtenbide eman beharra?
Nahiz ta batzutan izan litekeen
egoera zail xamarra.
Jokin mailegu bat eskatzea
ez da beti kontu txarra
aman etxean ohea baita
libre izaten den bakarra.

J.Uranga: Nere kasuan gauza gehiago
libre ordea dago han
eztabaidak bai izaten dira
gauak etorri ta joan
baina ez da nahiko ni sartu nadin
zure moduko zuloan
zer janik ez da inoiz falta ohi
aita ta amaren ondoan.

A.Arzallus: Nahiz ta nik hartu ene bidea
nahiz sartu ene jokoan
zuen bidea ere maite dut
nahiz ene aldetik joan:
bazkaritara joaten bainaiz
aman sukalde xokoan
eta Sustraien etxera noa
amak ukatutakoan.

S.Colina: “Ene aitaren soldata eta
amaren porru patata”;
arrebak egin ohi die ohea
orain izara oain manta...
Egia da bai egin dudala
zulo haundi ta galanta
baina zuloak estal litezke
pixkanaka-pixkanaka.

J.Uranga: Ni beti nabil jairako gogoz
beti afaltzeko prestu
ta zuek berriz diru aldetik
zabiltzate justu-justu;
hipotekaren alde egiten
duzuenero apustu
bankuak diruz betetzen dira
ta kaleak jendez hustu.

A. Arzallus: Ta guk guretik ezin erantzun
arazo itsusi horri;
maileguetan sartu da Sustrai
ikusten dut aski larri
ta noizbait biak etxetik kanpo

nahi bazaituzte ezarri
ene lagunak zarete eta
ene etxerat etorri.

LOIU (2007-09-29)

Bertsolariak: On. Enbeita, E. Lekue,
X. Paya eta S. Colina.

Gai-emailea: Iñaki Beitia.

Loiuko Lauroeta auzoan San Migel egunarekin urtero antolatzen duten jaialdia, aurten hogeita hamabigarrena. Beti egun berean izaten denez, bertsozaleek badakite irailaren hogeita bederatzian Lauroetan bertsoak izaten direla. Iluntzeko bederatziak laurden gutxitan hasi zen, jende multzo polita elkartu zen, eta saio txukuna egin zuten. Aurten, lehen aldiz, karpa bat jarri zuten entzuleentzat, euria eginda ere.

S. Colina-E. Lekue

Gaia: Aita-semeak zarete. Aita oporretan joan zen hilabeterako, eta semeari etxea txukun-txukun edukitzeko agindu zion. Gaur, bueltatu zara etxera, eta dena utzi zenuena baino hainbat txarrago aurkitu duzu.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Espainian behera

S. Colina:
Lehen gure etxea zen
goizeroko luxu
orain bihurtu duzu
zikinkeri putzu
igertzen direlako
marka eta pausu
baina gauza batekin
kezkatua nauzu:
zure burua berdin
zaindu ote duzu? (bis)

E. Lekue:
Nire burua ondo
jagon dot bai hara
oporretan eukiko
zenduan patxada
orain hona helduta
aztoratu zara
etxearen itxura
hain txarra be ez da ba:
nik ordenatu egin dot
baina neure erara. (bis)

S. Colina:
Hargatik kumunean
jarri du eltzea

ta oheak nahi luke
gelara heltzea...
Putetxe bat bihurtu
du gure etxea;
justifikatua da
aitaren letxea:
lehen Moncloa zirudin
orain Gaztetxea. (bis)

E. Lekue: Badakizu egin dodaz
hemen festa batzuk
lagun batzuk ekarri
dodaz zerbeza truk.
Orain erdi galduta
hor ikusten zaitut
zer topau gura dozun
aitatu eizu zuk
ta nik derrepentean
atarako deutsut. (bis)

S. Colina: Ba ez, ez dut ezer nahi
ta zure alboan
jakin denbora ez dela
igaroko doan
ez bainuen espero
bueltatutakoan
isekiko zitunik
gelako leihoan
galtzerdi ta kondoiak
elkarren ondoan. (bis)

E. Lekue: Orjia ta holangoak
egin doguz frango
hemendik pasa dira
hemengo ta hango;
baina ni hain txarria
ez nintzen ba izango
goizez dana txukuntzen
saiatu naz sendo...
Atzo zelan egon zan
ez deutsut esango. (bis)

URNIETA (2007-09-30)

Bertsolariak: U. Alberdi, Mantxi,
A. Martin eta A. Rezola.

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Garai batean plazan izaten zen bertso saioa, baina azken urte hauetan Sarobe aretoan egiten da. Aurten bi saio antolatu dituzte, bata Saroben eta bestea plazan. Bertso bazkaria izan zen, Iñistorra elkarteak eta Aiurri astekariak antolatuta. Garai bateko ohitura berreskuratu nahi zuten, eta oso ondo atera zen.

Mantxi-A. Rezola

Gaia: Zu, Mantxi, zirujau baten laguntzailea zara. Ebakuntza batean, arduragabekeria edo hanka-sartze baten ondorioz mahaian hil zaizue gaixoa. Gauean, Mantxi, ezin lo egin zaudela, Agin kontzientzia etorri zaizu bisitan.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Espainian behera

A. Rezola: Luze dauzka bi esku
ta luze bi zango
zerutara higatik
egina dik txango
ta orain hi ta biok
gaur gaituk bi bando;
seguru asko ez hago
gaurkuan hain ondo
hura lo zegok baino
hi ez haiz egongo! (bis)

Mantxi: Mahaiean gelditu da
Joxe Zabalaga
baina ez, degulako
guk propio laga.
Ta gauean hizketan
hasi zait almuhada...
Holako kasuetan
jakin zazu hara:
kontzientzia izaten
errexagua da. (bis)

A. Rezola: Joxeri zuk diozu
lehen bizitza ken
ta gero jardun zera
halakoren baten
familiai esanaz

“nik ez det egiten”.
Errexagua al da
kontzientzia izaten?
Kontzientziak ez du
gezurrik esaten. (bis)

Mantxi: Nahiz ta altu zegoen
herioren langa
zerbait gertatu eta
gorpuztu zan danba!
Zer dan errexo ez dakit
egia esanda
bera lez hilda egon
mahian etzanda
edo bizi beharra
konsziente izanda. (bis)
A. Rezola: Konsziente izateak
zenbat enbarazu!
Ze desberdinak geran
gaurkuan ni ta zu
baina orain zugana
hurbildu natzaizu
eta faborez Mantxi
egidazu kasu:
hori jakinda ere
biziko al zera zu? (bis)

Mantxi: Haren familiarik
ezin det alaitu
nola kristo ote naiz
hortaraino kaiku?
Ohearen gainean
amets gaiztoak aitu;
betirako infernuan
behar al det amaitu...
Joxeren kontzientziak
bidali al zaitu? (bis)

A. Rezola: Beria gabe nahiko
zenduke zuria
gogoan al daukazu
maindire zuria?
Eta nahigabe irten dan
odol isuria?
Orain ohea ez da
lehen bezain guria
ni izango naiz orain
zure bisturia. (bis)

Mantxi: Gogorra bisturiak

dakarren itzala
baina kirofanoan
hain naiz zerbitzala.
Joxe hil izana da
amets bat petrala
baina gogoan izan
behar det nola hala:
nigatik beste mila
biziko dirala. (bis)

U. Alberdi-A. Martin

Gaia: Maider Lopez artistak Budapesteko zubi bat desagerrarazi du. Lau mila eta berrehun lagun gonbidatu zituen Danubio ibaiaren koloreko aterki bana hartu eta zubi gainean jartzera. Helikoptero batetik atera zuen argazkia, eta han ez zen zubirik ikusten. Aterkipean ezkutatuta zegoen. Zuek zer desagerraraziko zenukete? Edo zer ezkutatuko zenukete aterkipean?

Neurria: zortziko handia
Doinua: Goizian goizik jeiki ninduzun I

U. Alberdi: Bertsolariok harro antzean
gabiltz batekoz besteko
baina guztia ona dugunik
ere ez duzue usteko;
mila motibo izaten dugu
sarri asko lotsatzeko
neure burua gordeko nuke
neronek ez ikusteko. (bis)

A. Martin: Zaren bezala azal zaitezke
ikus zaitzadan nerekin
baina munduan ez ikusiak
sarri ez ditut atsegin;
pobreen kontura maiz aberatsek
lortuz hainbeste etekin
mundua bera nahi dut estali
sombrilla haundi batekin. (bis)

U. Alberdi: Politikoek darabiltzate
hainbat aitzaki ta truko
gustuko ez den hori guztia
mantenduaz ezkutuko.
Hain zuzen ere horri egiten
diot barrenetik uko
ostrukarena egitearren
ez da ezer konponduko. (bis)

A. Martin: Arrazoi duzu hortan agian
ez ikustea maiz traba
bihur liteke, egin dezaten
dena nahi duten erara.

Soluzio bat okurritu zait
zuri esker beharbada:
kasu askotan irtenbidea
aterkia kentzea da. (bis)

U. Alberdi: Lotsatzen gaitun guzti-guztia
tapatzen dugu ederki
aterkiaren atzean gordez
burua emeki-emeki.
Nik nahiago dut dena ikusi
eta dena jakin beti
aterki denak itxi ditzagun
eta buruak ireki.

A. Martin: Baina itxita eta karratu
daude bururik gehienak
eta zigorra jaso behar du
imajinatzen duenak.
Zubiak dira elkartasuna
ekiditeko problemak
amildegiak dira agian
estali behar direnak.

U. Alberdi: Mundu honetan ugariegi
ditugu astakirtenak
ta ezkutuan mantentzen dira
mingarri diren problemak.
Niri ez zaizkit bat'e gustatzen
pertsona hipokrita denak
euritakoak zabaltzen ditu
busti nahi ez duenak.

A. Martin: Baina batzutan hipokresiak
besteen begipe bustia
eragiten du ta lehortzen du
erein zitekeen guztia;
nahiz ta agian buruan dudan
garai nahiko urrutia
eta aterki guztiak itxiz
irteten den eguzkia.

OÑATI (2007-10-05)

Bertsolariak: S. Colina, A. Arzallus, I. Elortza, J.M. Irazu, J. Maia eta J. Agirre.

Gai-jartzaileak: Egoitz Aizpuru eta Xabier Pascual.

Gai-emailea: Xabier Pascual.

Sanmigeletan urtero antolatzen duten jaialdia. Zubikoa kiroldegian izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Ohi bezala, entzule asko elkartu zen bertsolariak entzutera.

J.M. Irazu-S. Colina

Gaia: Zuek biok, Oñatin, fabrika berean egiten duzue lan. Bihar herriko eguna izanagatik ere, nagusiak, lanera etorri behar duzuela jakinarazi dizue. Zuk, Jexux Mari, ezezko biribila eman diozu. Sustraik, ordea, baietz erantzun du.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Espainian behera
J.M. Irazu: Aurten espero nuen
urteroko jira
ta nagusiak eman
digu despedida;
kanpotikan jarriak
Ulmara begira
ni Herri Egunean
banator herrira
aldamioak bihar
han egongo dira. (bis)

S. Colina: Ulman biok gabiltza
gogor ekinean
soldata koxkor bat da
lanen ordainean.
Bihar aldamioak
bai azken finean
igual egon litezke
toki berdinean
baina ez zara egongo
zu euren gainean. (bis)

J.M. Irazu: Gainean egongo naiz
atzoko neurrira
nahiz eta botatzea
zenukeen desira;

zu ere etor zaitez
Sustrai tira, tira
nagusia bialdu
ta herrira di-da
herria ere bada
kooperatiba. (bis)

S. Colina: Ai ze kooperatiba
eta ze alarde!
Beti berdinak ausart
berdinak kobarde.
Nahiz ta egin nahi dezun
lanetikan alde
zugan kontraesan bat
badago halare:
herria egin nahi duzu
lanik egin gabe. (bis)

J.M. Irazu: Lehenago ere lana
egin det potente
guri eskerrak dago
lantegia tente;
herriko jaitan zertan
izan inuxente?
Zu nagusian alde
zabiltza dexente
orain langile zera
belaxe gerente. (bis)

S. Colina: Ni langile soila naiz
langile nekagaitz
bere enpresaren alde
egiten duna maiz.
Ez pentsa nagoenik
gerente izan nahiz;
zu Herri Egunera
joan zaite garaiz
ni Herri Gauerako
ailegatuko naiz. (bis)

J.M. Irazu: Barka baina hitz egin
zazu pausuz pausu
lan asmoari eman
nahi zenion muxu
eta nere jai grina
entzun dezu aizu;
zu Herri Gauerako
ez zera helduko zu
zure eta nereak
egin behar dituzu. (bis)

S. Colina: Ba jakin egunero
dugula horrela
ta mundura alperra
zu jaio zinela
parrandara ez zinan
joango bestela.
Bihar batuko gara
lehen nion bezela
ta ospatuko dugu
paroan zaudela. (bis)

IURRETA (2007-10-06)

Bertsolariak: A. Egaña, X. Paya, A. Arzallus,
J. Maia, E. Abasolo “Abarkas” eta I. Elortza.

Gai-emailea: Maite Berriozabal.

Gaueko hamar eta erdietan izan zen jaialdia, Olaburu frontoian. Sanmigeletan urtero antolatzen den saioa da. Entzule asko mozorrotuta joaten dira.

J. Maia-A. Arzallus

Gaia: Zuek biok orain dela urte asko Ameriketara joan zineten. Urte asko daramatzazue etorri gabe baina egunotan egunkarian Euskal Herrian pasatako zenbait gertakari txikiren berri jakin duzue.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Haurtxo txikia negarrez dago I

J. Maia: Urte askoan artzaintza lanez
joanak Amerikara
berriro ere itzuli gera
gure herriko plazara
baina kontua ikusten degu
garai bateko gisara:
Franco hil zela esan ziguten
baina sinisten zaila da.

A. Arzallus: Gu frankismoan aspaldi ginen
geure herritik aldendu
nahiz maiz pentsatu “gure bizitza
bertan segitu bagendu…”
Ai ene zenbat atxiloketa
ta zenbat enfrentamendu
itzultze hutsak geroago ta
beldur gehio ematen du.

J. Maia: Egia da bai beldurra sartzen
zaigula erraietatik
ilusiotan etorri nintzen
berriz Ameriketatik.
Errepidetan Guardia Zibilak
kolpeak hemen ta hortik
lehen neregatik beldurtzen nintzen
ta orain bilobengatik.

A. Arzallus: Nahiz eta denak pasa ditugun
Amerikako mendiak
honaino ere iristen dira
hango notizi erdiak
eta oraindik balio digu
Txirritaren esaldiak:
artzai gaiztoak dauden lekuan
pagatutzen du ardiak.

J. Maia: Urrundikan amesten genuen
justizia ta pakea
esperantzara prestaturikan
genekarren aldartea...
Baina begira zer gertatu dan
destinuaren katea
gure etxeko larre berdean
ardi beltzak izatea.

A. Arzallus: Askatasuna amesten gendun
halako egunen baten
ta noiz datorren Amerikatik
zaila dago antzematen;
ez da errexa pentsatu eta
pentsautakoa esaten
baina segitu ardi beltzaren
artaldekoa izaten.

TOLOSA (2007-10-12)

Bertsolariak: A. Egaña eta A. Arzallus

Udaberri dantza taldearen urrezko ezteiak zirela-eta antolatutako bertso afaria izan zen, Zerkausian. Ehun eta berrogeita hamar afaltiar eta oso esker oneko giroa. Librean egin zuten saio guztia, eta bukaera aldera, bertsolariek bertsotan eta dantzariek dantzan, elkarrekin egin zuten saio bat.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

A. Arzallus: Nola edo hala dantzatu behar
dakigunan arabera
ta hitzak solte joanez gero
josten saiatuko gera.
Baina Andoni kezka bat daukat
ta egin nahi dizut galdera:
biok nolatan etorri geran
dantza afari batera. (bis)

A. Egaña: Berrogeita sei urte ditut nik
ta sasoiz ez nabil bapo;
Amets ere ez da horren bixia
nahiz egon gazte ta guapo.
Dantzari artera nola gatozen
erantzun egin beharko:
etorri gera hain xuxen ere
bertso-afaria delako. (bis)
A. Arzallus: Zerbait jakin ta horretarako
ekarriak gaur ni ta zu
bertsotan lehendik zenbat dakizun
erakutsia didazu
baina hala ere denen galdera
egin nahi nuke adizu:
berrogeita sei urte eta zuk
dantzan bai ote dakizu? (bis)

A. Egaña: Dantzan dakidan nuen galdera
ta galdera ez da broma!
Nahiz erritmoak barruan sortu
halako ezinegona
ni naiz dantzari kaxkar-kaxkarra
izerdia zeriona;
ni dantzan beti txarra izan naiz
baina begiratzen ona. (bis)

A. Arzallus: Nik lau bat urte pasa nituen
Akelarreko klasean
baina ez nuen ezer egiten
oso denbora luzean;
nere funtzio bakarra hoixe
besteei begiratzean
ta hortako're ez nun balio
miopia azaltzean! (bis)

A. Egaña: Ikasten hasi umetan eta
ilusioak egin "krak!"
irakasleak suletinoan
"Baso gainera salta zak!";
hogeita hiru urte ditu baina
berrogeita seiko hankak;
oraindik ere belaun burutan
dabilzki kristalan markak. (bis)

A. Arzallus: Nere dantzako esperientzia
ez det gutxi aterako;
"Ezpata Dantza, Amets gainera"
esaten zuten ta bapo;
beti ni gora altxatzen nintzan
ba txarrena nintzalako
ez mintzearren esaten zuten
"Arinena zeralako". (bis)

A. Egaña: Nik ere zerbait probatu nuen
hau euskaldun askon gisan
ta ikastolan andereñoa
irakasten ibili zan;
baina ni bezain baldarrik nola
ez zun aurkitu bizitzan
nik Zahagi Dantza ikasi nuen
ta zahagipekoa nintzan. (bis)

A. Arzallus: Beraz zahagian azpian jarriz
egiten zuen karrasi;
zerbait saiatu ta ahalegindu
ta horixe irabazi.
Ikastolako belaunaldia
lehenengoa zinan kasi
ta ez det ulertzen: Zazpi Jauziak
ez al zenitun ikasi? (bis)

A. Egaña: Arin-Arina juxtu-juxtuan
ta nafar dantza hoiek orai
ez nuen asko ikasi baina
geratu nintzen hain lasai;

Zahagi Dantzana egia gendun
eta marka utzi dit ai:
dantzatik ez zait ezer geratu
baina zahagikotik bai. (bis)

A. Arzallus: Nik zahagiana ez det ezautzen
ta utziko det aparte.
Gu jolasean ibiltzen ginan
beste pausoak bitarte;
nik segi nahi dut nik segi nahi nun
hantxe segitu jo ta ke
ta dantzan ondo ibili nintzan
ama iritsi zan arte. (bis)

A. Egaña: Hemen Ametsek egin diguna
aitorpen larri grabea
ume garaitan geratu zela
dantza aukerarik gabea;
nahiz ta oraindik xomorrotxoa
barruan euki gordea
Euskal Herriak bertsolari bat
irabazi zun ordea. (bis)

A. Arzallus: Horrek albora utziko zuen
nere dantzarako grina;
bertsotan hasi eta pausoak
segidan ahaztu jakina.
Ez dakit asko irabazi zun
nahiz zuk hartu atsegina;
guk berriz askoz nahiago gendun
zu dantzan hasi bazina! (bis)

UREPELE (2007-10-14)

Bertsolariak: A. Egaña, S. Colina,
J. Goñi eta M. Basabe.

Gai-emailea: Jose Mari Iriondo.

Deiadarra elkarteak Xalbadorren omenez antolaturiko asteburua, aurten Xabaldor eta diaspora lelopean. Goizean mahai-ingurua izan zen, ondoren dantzarien saioa eta gero bazkaria. Berrehun bazkaltiar inguru elkartu ziren. Bazkaldu bitartean kantarien hiru saio izan ziren, eta haietako batean Aire ahizpek kantatu zuten. Bertso saioak ordubete iraun zuen, gutxi gorabehera; Jonny Kuruchet eta Txomin Garmendia iragarrita bazeuden ere, ez ziren etorri, eta Manuel Basabe artzain bizkaitar amerikartuak kantatu zuen. Saioaren ostean bertsopaper lehiaketaren sariak banatu ziren.

A. Egaña-S. Colina

Gaia: Euskal Herriak une larriak bizi ditu. Euskaldunak zatiturik daude herri bezala. Zeren inguruan bil daiteke jendea? Zer kantatzen diozue euskaldun populu osoari?

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Aita izena kanta beharrak

S. Colina: Bildu gintezke euskaran bueltan
Vianan edo Senperen;
Xalbadorrek'e bildu gaitzake
gaur bezala Urepelen
motibo eta arrazoi asko
ikusten baitira hemen.
"Populuari zer esan behar?"
galdetu duzu nabarmen
baina lehenik jakin beharko da
populu bakar bat garen. (bis)

A. Egaña: Populu hitza modan egon zen
baina "herri"k apustua
irabazi zun izanagatik
gogorra eta estua.
Zer ote degu bertsolarien
ekartze gune prestua?
Bizimodu bat apal, xumea
ahoz ahoko freskua;
bizimodu bat umil-umila
lapitz ta paperezkua.9 (bis)

S. Colina: Andoni igual izan zintezke
arkitekto bat galanta
ta bi bertsotan ein zenezake

etxe-herri honen planta.
Dena ez dela horren errexa
jakin behar zenuke alta
ez dira aski atrebentzia
ta bi umiltasun tanta:
papel ta lapitz asko daukagu
idazteko mahaia falta. (bis)

A. Egaña: Gakoarekin bapo jo dezu
Colina bejondeizula!
Herri honetan zer gertatzen
ez al liteke kalkula?
Kanpokaldetik beti egurra
barrukaldetikan burla;
hala're guk geuk izanez gero
proiektu argi mardula
seguru nago lapitz ta papel
ta mahai izango degula. (bis)

S. Colina: Igual Andoni izango zara
azti ta ezti ilustre
baina kontua horrela denik
nik gaur egun ez det uste
inperioek kate motzean
estu hartzen baikaituzte
ta martxa hontan horrela joan
litezke berrogei urte
proiektu on bat duen jendea
kartzelan sartzen badute. (bis)

A. Egaña: Sustraik esana egi bidea
izan liteke zeharo;
zubirik ezak behartu gaitu
ibairik ezin igaro.
Martxa honetan etorkizunik
ezin liteke itxaro;
papel ta lapitz edota mahaiak
behin betirako akabo!
Denon artean ez baldin bada
proiekturikan ez dago. (bis)

DURANGO (2007-10-19)

Bertsolariak: M. Lujanbio, X. Paya,
U. Iturriaga eta J.M. Irazu.

Gai-emailea: Igor Elortza.

Udaleko Euskara Sailak eta Jai Batzordeak elkarlanean San Fausto jaietan antolatzen duten saioa, aurten hirugarrena. San Agustin aretoan adin guztietako 250 pertsona bildu ziren, orain bi urte baino gutxixeago,

baina iaz baino gehiago. Sarrera doakoa zen. Saioa serio antzean hasi zen, baina maila onean. Aurrera egin ahala, ikusleak berotu eta mailak ere gora egin zuen.

J.M. Irazu-M. Lujanbio

Gaia: Irazu memoria historikoa da, eta Lujanbio ahanztura historikoa. Irazuk esan dezala zer gogoratu behar dugun eta Lujanbiok zergatik ahazten ditugun gogoratu beharreko horiek.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Nere gogoa hegan dijoa

J.M. Irazu: Kaixo amnesia zer moduz zaude?
Aspaldiko lagun zaharra!
Zuk badakizu haundia dala
oroimenaren indarra;
lehendabiziko datu bat behintzat
dago oroitu beharra
Gerra Zibila ez zela izan
altxamendu militarra.
M. Lujanbio: Hori seguru da alde batek
bakar-bakarrik diona
beste aldeak ez dio hori
ta ez da berdin biona
autodefentsa mekanismo bat
da-ta guzti-guztiona:
jendeak ez du gogoratu nahi
lehen mina eman ziona.

J.M. Irazu: Igual oroitu nahi ez du baino
hala're ezin egon lasai
iraganetik atera leike
oraindik zenbat ikasgai
altxamenduak Jangoikoaren
laguntza ere ia ai;
Jainkoarena ez dakit baina
Elizarena behintzat bai.

M. Lujanbio: Baina batzutan hobe da lehengo
kontu zaharrak ez nahastu
nahiz ta batzuek sufritu zuten
ta besteak aberastu;
dena ahaztu zaigu memoria egin da
murriztu eta eskastu
Jainkoak ez du hitz egiten ta
Jainkoan etxeak ahaztu.

J.M. Irazu: Jainko etxea haundia eta
haunditu leike gehiago

oroimena're etorri leike
igual pixkat gerturago
konparaketan ez det sartu nahi
hala're oroitu geroago
lehenik Durango erre zutela
Gernika baino lehenago.

M. Lujanbio: Zure datuak ze zehatzak ta
zure memoria ze on!
Alperrik zabiltz nola burutan
errotuta ni neu nagon.
Erre zuten bai erre zuten bai
hura juan zan ta hor konpon;
hori jendeak oroitu balu
lege beharrik ez zegon!

M. Lujanbio

Gaia: Egun eguzkitsu batean Bilbon paseoan zoaz. Guggenheimekin egin duzu topo, eta pentsakor jarri zara.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Hil da Canovas, fuera Canovas

Nik pasiuan esaten dizut
normalki kaixo ta aio
baina gaur beira hor gelditu naiz
hor zaude etxe arraio
zilegitasun sendo batekin
sekula baino lasaio
zure titanio xaflen sail hori
euri ta eguzki karrai
hamar urteko bidea eginda
dizdira ere juan zaio!

Baina dotore dituzu formak
dotore dituzu ertzak
azala nahiz ta zikindu euriak
eta autoen ke beltzak
aspaldiko amets haundinahiak ta
hamar urteon ametsak
hiria zenbat aldatu duzun
kanpokaldetik bai behintzat;
Bilbo berri bat asmatu dezu
Bilbo bat kanpotarrentzat.
Gogoratzen naiz gaur hamar urte
genbiltzan estu ta larri
salatzen gendun zure eraikuntza

beste molde bat aldarri.
Hau da hemen kultur politika bai
efektista negargarri
zu geroztikan ere holakoak
egingo dituzte sarri:
oinarriari dirua kendu
ta eskaparateai jarri.

M. Lujanbio- X. Paya-U. Iturriaga-J.M. Irazu

Gaia: Gauza bera esateko modu asko daude. Maialen, esan zer den larrua jotzea; Xabi, maitasuna egitea; Unai, hartu-eman sexualak edukitzea; Jexux Mari, horietan zein gustatzen zaizun gehien.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Anai-arrebak hementxe nator

M. Lujanbio: Larrua jotzea ze ote dan
ta hainbeste jende begira
ejenplu batez azalduko det
pandero baten harira:
behatza tente jartzen da eta
ahal dala gogor jo tira
ta jo ezkero ondo jo ezkero (bis)
kriskitinak aitzen dira.

X. Paya: Amodioa egitea da
mutilzarraren desira
neska bat hartu eta eroan
bere gelaren erdira.
Baina zer nabil hauxe esaten?
Ze luzamendu! Ai tira!
Narru jotea lakoa da baina (bis)
“Maite zaitut” esan bi da.
U. Iturriaga: Hartu emonak bi behar dauz behintzat
ez dago esan beharrik
ta egiten dabe sarri dauzenak
gaba ilunean itxarrik;
Durangon badau leku egoki bat
ez eben egin alperrik
banku batera joatea lez da (bis)
transferentzia bat bakarrik.

J.M. Irazu: Ta hiruretatik nik zein hautatu
esan behar det banan-bana;
egia esan larru jotzea
gehien gustatzen zaidana;
maitasunakin ez dago gaizki
kandela arteko plana

eta ahal dala izan ditzala (bis)
hartua eta emana.

# ARAMAIO (2007-11-03)

Bertsolariak: A. Mendiluze,
S. Lizaso eta S. Colina.

Hirurogei lagunetik gora elkartu ziren Marixekako elkartean. Bi ordu inguruko saioa egin zuten, ia dena librean; bertsolariek erruz gozatu zuten, eta entzuleek zer esanik ez. Oso giro beroa izan zuten bertsotarako, eta jendeak hasieran bezala txalotu zituen amaieran ber-tsolariak. Saioaren hasieran bota zituzten bertsoak jaso ditugu hemen, lagin moduan.

A. Mendiluze-S. Lizaso-S. Colina

Neurria: zortziko handia
Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

S. Colina: Gabon danori eta on egin
erreSpeto ta ohore
afalostean zenbat irripar
begi dizdira, umore...
Egia da bai arrankatzea
dugula danontzat hobe
baina hau ez da toki txarrena
geldirik egoteko're. (bis)

A. Mendiluze: Baina geldirik nor egongo da?
Patxadarik zeinek hartu?
Aurretik bada zer hitz egina
eta bada zer kontatu;
gero kolpetik gu hasi eta
denak isilik geratu...
Ez zerate hain txintxoak eta
orain ez disimulatu! (bis)

S. Lizaso: Denborarekin gailentzen dira
sasoia eta alkohola
horrelakotan afalondoan
berotu ohi da odola.
Mugimentua mugatu leike
zuri ez bazaizu ajola:
burua martxan mingaina dantzan
gorputza geldik dagola. (bis)

S. Colina: Horrela saltsa sortu liteke
hortara etorri gara gu
hortan gabiltza saiorik saio

ta tabladurik tabladu.
Euskal Herrian bertsolariak
alperran fama daukagu
eta egiten ez dakienak
egoten jakin behar du. (bis)

A. Mendiluze: Alperran fama daukagu beraz
hortik kanpo zenbat izen
baina egoten badakigula
ez zazu esan hain ozen;
denak ihesi joan litezke
hemendik etxera zuzen
ta egitea tokatzen zaigu
besteak egon daitezen. (bis)

S. Lizaso: Bertsolariak alperran fama
nolako fama ankerra!
Baina norbaiti eman beharko
egotearen eskerra
eta nolabait zuzendu behar
daukagun fama okerra:
ondo egoten ikasi duna
ez da izaten alferra. (bis)

S. Colina: Alperrak gera baina hala’re
gabiltz herritik herrira
bertso bikainak bota nahiean
zalearen neurrira.
Egin ta egon, egon ta egin
aitortzea komeni da:
mundu hontako gauza goxonak
jarrita egiten dira. (bis)

A. Mendiluze: Gauza goxoak aipatu eta
irripartsu dago bera;
gauza goxoak zein ote diren
izan liteke galdera;
baina jarrita egite al dira?
Horretan ados al gera?
Batzuk zutik’e egin litezke
gustoaren arabera. (bis)

S. Lizaso: Sustraik egin dun ateraldia
korapilatzen ari da;
hainbat arrazoi eman diteke
noski posturan harira
ta Kittariok10 ezetza zion
urrutitikan begira;
mundu hontako gauz politenak
etzanda egiten dira. (bis)

S. Colina: Egia esan ez nun espero
horrelako erantzuna
nahiz ta jarrita egin liteken
jardun goxo ta lizuna;
Kittariok dio etzanda hobea
dugula eginkizuna
eta txorixo kontu hoietan
bera degu jakituna.11 (bis)

A. Mendiluze: Beraz txorixo kontu hoietan
bera daukagu nagusi
hortan aritzen omen da bere
posizio eta guzi;
etzanda hobeto esanagatik
esate hutsa itsusi
aipatu askotan aipatzen ditu
ta nik ez ditut ikusi. (bis)
S. Lizaso : Aurki San Martin ta txorixoak
zure gosean neurrira;
zerriak utzi eta banoa
berriro lehengo harira.
Ta ama batek esan dezake
bere haurtxoai begira:
mundu hontako gauz politenak
etzanda egiten dira. (bis)

S. Colina: Etzanda egin litezkeelako
hasera eta segida
eta kontuak gaizki badoaz
heldu leike despedida
baina txorixo ta txoritxoak
igualtsuak dira tira:
aipatu sarri aipatzen dira
ta gutxi ikusten dira. (bis)

A. Mendiluze: Nolanahi ere berriro bueltan
etzandako posturara
haur txikiari begiratuta
gogoratzen den hortara;
nahiz gauz goxoak eta haurtxoak
Sebastianek konpara
zenbaitentzako goxoago da
haurrik ikusten ez bada. (bis)

S. Lizaso: Batzuk ihesi beste batzuek
haurraren bila lanean
eta zerorrek ere pare bat
badituzu azkenean;
ta goxo-goxo zauden garaian

andrean aldamenean
altxatzen zenbat kostatzen zaizu
negarrez hasten denean? (bis)

S. Colina: Ume-negarra despertadora
antzekoa omen da maiz
jotzen dulako behar ez denean
beti goizegi ta garaiz;
lehen hasieran kontu goxoak
boteak umore alaiz
baina haur kontuak entzut ditut ta
nerbioso jartzen ari naiz. (bis)

A. Mendiluze: Egia da bai ume kontuak
ugaldu dira hemendik
ta lasai egon haren negarra
gutxitan entzuten det nik.
Baina ondoan Sustrai urduri
pentsatua nuen lehendik:
umeengatik urduritzeko
gaztea zera oraindik. (bis)

S. Lizaso: Batzuk urruti abitzen dira
eta bidaiak hor konpon
gertuan ere beti ez baita
komeni hainbat zorion.
Entzun ezazu esperientziak
nere ahotik zer dion:
komeni dana jakitea da
erdibidea nun dagon. (bis)

S. Colina: Garai bateko ekintzailea
ta astakirten totala
bihurtu zaigu legun-leguna
ia-ia sentimentala;
nun dago gure azpeitiarra?
Nun da gure sementala?
Jende guztiai entzuten diot
zahartu egin zerala. (bis)

A. Mendiluze: Beraz eskasi asko ikusten da
Sebastian zahartuan...
Igual bai baina ez nuke hartu nahi
kontrariotzat tratuan;
gainera ganau zaharraz lehen ere
nago sarri usaituan
belar goxoa jaten duela
bere gustoko lekuan. (bis)

S. Lizaso: Larre goxoak bilatzen dira

gabiltzala gabiltzala
nahiz eta berrogeita hamarrek
nei aurki egin itzala
nahiz ta zahartzen ari naizen ni
Sustraik esan dun bezala
gutxienean aitortu zazu
gaztea izan nintzala. (bis)

S.Colina: Baina ez duzu lehengo kemenik
ez duzu lehengo indarrik
jada ez dezu gehio edaten
lehengo txanpan ta pattarrik...
Gazte izan zera baina Sebastian
zaude zahartu xamarrik:
lehen “Mekauen dioz!” esaten zenun
orain “Mekauen!” bakarrik. (bis)

A. Mendiluze: Beraz urteek izan dituzte
hain ondorio tristeak
pena ematen du gazte izana
horretaraino jaisteak;
orain “Mekauen!” bakarrik dio
ahaztu zaizkio besteak;
hori ekartzen du dios delakoa
gertuago ikusteak. (bis)

S. Lizaso: Ez nau beldurtzen ni Jaungoikoak
urruti baitut eskela
ta aitortzen det ni formaltzea
egi osoa ez dela;
mekauen diosik ez bota orain
garai batean bezela
eta “Mekauen Sustrai!” esaten
aurki hasiko naizela.

S. Colina: Ni naizelako mutil txepela
ta ni naiz mutil kaikua
gure Sebastian haundia ere
hemen daukat gogaitua.
Egia da bai igualak gera
neroni eta Jainkua;
gure amak ere halaxe dio
“Bakarra eta nahikua!”. (bis)

A. Mendiluze: Zure buruai jarri diozu
igual ez zeukan itzala
Jainkuan pare ba omen zera
ahaltsu ta zerbitzala.
Amak nahikoa zela bakarra
esaten omen du hala

ta ez al dezu inoiz pentsatu
goizegi damutu zala? (bis)

S.Lizaso: Beste batentzat utzita hobe
Jangoikoaren papela
fededunak’e fedegabeak
bailirateke bestela.
Baina ukatzen det beti ibiltzen
oso zalea zarela
minik eman ez, pakerik’e ez
arkakusoak bezela. (bis)

IRUÑEA (2007-11-15)

Bertsolariak: A. Mendiluze, A. Arzallus,
A. Egaña, J.M. Irazu,
J. Barberena eta X. Silveira.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Bertso Aroaren barnean antolatu ohi duten ekitaldietako bat. Iluntzeko zortzietan izan zen, Gurutze enparantzako institutuaren atzealdeko areto batean. Entzule asko, laurehundik gora, elkartu ziren saioa entzutera.

A. Mendiluze

Gaia: Gaur etxera iritsi zarenean hor ikusi dituzu zure bikotekidea eta semeak mailua eskuan, iltze bat paretan sartzen. “Zertan ari zarete” galdetu diezunean, “Abenduan ekarriko duzun txapelarentzat da” erantzun dizu semeak.

Neurria: Hamabikoa, molde handia, zazpi puntuz.
Doinua: Nolabait denok lotu nahi degu / Errioguarda Enea

Tentagarria ohi da saria
tentagarria da fama
baina txapelak buru galtzea
oso gertuan darama.
Sartu orduko hementxe salan
nik aurkitu dedan plana:
semea ta bere ama
biek erraminta bana.
Hain garrantzitsu al da zuentzat
ustez lortuko dudana?
Neretzat ez da saria bera
baizik bitarteko lana. (bis)

Sariengatik ez naiz aritzen
mikro aurrean jartzean
baina nik zuen gogoa garbi
behar det aurrerantzean;
zuek txapelen egarri eta
nere desira hutsean;
beste txapel bat etxean
hala zintzilikatzean
poza hartuko al zenukete
irri eta bihotzean?
Neretzat poza ez dago hortan
baizik bertso bakoitzean. (bis)

Eta emazte zuretzat hitz bat
doa serio-serio:
zergatik dezu txapelarekin
horrenbeste obsesio?
Hala azaldu diozu eta
semeak hori desio;
beraz saria medio
ez da aitarekin fio.
Hobe genuke ahaleginataz
hitz egingo bagenio
guk erakusten ez badiogu
nork erakutsiko dio? (bis)

A. Egaña-A. Mendiluze-A. Arzallus-
J.M. Irazu- J. Barberena-X. Silveira

Gaia: Andoni hemen eta beste bostak hor. Denok izaten omen dugu zerbait oso garbi. Eta esaerak dio zerbait oso garbi duenak arazo bat duela. Zuek bostok esan behar duzue zer duzuen oso garbi, zuen egunerokoan, zuen bizitzan, zuenean... Andonik garbi duzuen horren arazoa kontatuko du.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Adixkidia Andoaindikan

A. Mendiluze: Guztiok izan nahiko genuke
ederrak eta apartak
baina ispilu aurrean kezka
dexentea sortu zait bart;
gainera zure kezka berdina
biok daukagu kezka bat:
nik kopeta det oso garbia
eta arazo bat daukat.

A. Egaña: Nahiz ta itxuraz ez den azaltzen
ileaz minberatua
lagun Aitorri bere barruan
harra zaio geratua;
mundu osoa dauka soiltasun
horretxekin eratua.
Zure problema izan liteke
gai hori aukeratua.

A. Arzallus: Ez daukat garbi euskal gatazka
bide onetik doala
ez daukat garbi zein den gosea
soluzio mundiala
ez daukat garbi mundua zer den
estua edo zabala

baina nik garbi daukat pasotak
gorrotatzen ditudala.

A. Egaña: Amets Arzallus beti izan da
diplomaziaren maisu
honi irripar egiten dio
besteari hitz jo ta su.
Baina pasotak gorrotatuaz
arazoa dago aizu:
hain xuxen ere mundu erdia
gorrotatu behar duzu.

J.M. Irazu: Berez ni ez naiz garbizalea
baino hala banitz bezala
Gipuzkoako Txapelketak'e
badauka bere itzala
nik garbi daukat aurten txapela
Mendiluzerentzat dala
beraz nunbait'e suma nezake
arazo bat daukadala.

A. Egaña: Hemen txapela den-denok dugu
maitatua ta kuttuna
txapel atzetik izaten baita
bertsolarien jarduna
zuk arazo bat latza daukazu
latza Irazu laguna:
garbi duzula esaten duzu
hain garbi ez daukazuna.

J. Barberena: Pasota baten aurrea hor doa
nere hizkera apala
eta aitorpen bat luzatuko dut
luza gabe berehala
zeozer garbi badaukat eta
hola botako dut hala:
kantzontziloak ia egunero
garbitu ohi ditudala.

A. Egaña: Jonen arazo hoiek aztertuz
ze lastima ta ze penak!
Baztandar honek izango ditu
frustrazio nabarmenak
izango ditu izan litezkeen
arazorik haundienak
azalpenikan eskatu gabe
eman ditun azalpenak.

X. Silveira: Gauza argi bat argi daukat nik
argi baino argiago
gauza garbi daukat nik garbi daukat

honaraino garbi dago
ordea garbi daukadan hori
ez dizut garbi esango
gaur inoiz baino hobe ulertzen dizut
ta ez dizut lanik emango.

A. Egaña: Gorputz bikaina mingain azkarra
hogeita hamarren bat urte
irudimena oso joria
zenbat dohai ta birtute...
Hala're lana gorrotatzen du
ta gorrotatzen du fuerte
Silveirak badu arazotxo bat:
nire papela nahi luke.

ERMUA (2007-11-30)

Bertsolariak: M. Lujanbio, J.M. Irazu,
U. Alberdi, X. Paya, J. Maia eta
A.M. Peñagarikano.

Gai-emailea: Asier Ibaibarriaga.

Euskal Birusa taldeak San Martin azokaren inguruan antolatzen dituen ekitaldien artean aurten lehenengo aldiz bertso jaialdia antolatu du. Zineman izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Jende multzo polita elkartu zen, baina areto hain handian inor gutxi zegoela zirudien.

U. Alberdi

Gaia: Etxebizitza baten zozketan zaude, zenbaki bat duzula eskutan.

Neurria: hamabiko berdina sei puntuz
Doinua: Gure herri ttiki hau da

Protekzioan apuntatu
hala ziguten gomenda
luzea da zai gaudenok
osatzen dugun zerrenda
nik hogeita bosta nuen
hogeita hamarra irten da
begietatik jausi zait
ilusioaren benda
kontu hauek jartzen naute
nere onetik irtenda:
amesteko eskubidea
zozketatu egiten da. (bis)

Beraz zorrikan ez daukat
ta ez daukat zer pagatu
berriro ez ilusio
ez sukalde ez teilatu.
Gazteok non kristo egin
ote genuen bekatu?
Gizarteari ezin zaio
horrelakorik barkatu;
kontu honetan nahi gaituzte
leporaino estankatu
beste ezertan ez dezagun
inoiz gehiegi pentsatu. (bis)

MARKINA (2007-12-08)

Bertsolariak: A. Egaña, X. Paya, M.Lujanbio,
A. Arzallus, U. Iturriaga,
A.M. Peñagarikano eta Mañukorta.

Gai-emailea: Joxe Mari Lejardi Gabixola

Amaiur elkarteak abenduaren zortzian urtero antolatzen duen jaialdia. Arratsaldeko bost eta erdietan izan zen, pilotalekuan. Ohi bezala entzule asko elkartu zen, denera pare bat mila lagun. Andoni Egañari omenaldia egin zioten, eta egitura berezia izan zuen jaialdiak. Hain zuzen ere, bi jaialdi egin zituzten bata bestearen atzetik, gai berberekin. Lehenengoan A. Egaña, X. Paya, M. Lujanbio eta A. Arzallus aritu ziren, eta bigarrenean A. Egaña, U. Iturriaga, A.M. Peñagarikano eta Mañukorta. Luze jo zuen jaialdiak, baina jendea gustura egon zen itxura batean.

X. Paya

Gaia: Xirinacs-ek oharra utzi zuen bere buruaz beste egin zuenean: “Herri menperatu bat ez da inoiz askatuko, bere seme-alabak beregatik bizia emateko prest ez badaude”. Zelan ikusten duzu Euskal Herria, Xabier?

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Zure eskaerak egia esan

Gaia entzun eta ustekabean
nire gain hamaika kargu
herri honetan zure esana
askok bai badaramagu
baina esana ez da izana
azalduko dut ondradu:
nahiz ta buruaz beste eginak
ideiak sortzen dihardu
batenak soilik ez du balio
denenak izan behar du. (bis)

Egia esan hau da gomuta
ta hau da estuasuna!
Nire bizitza emango nukeen
hori galdera astuna;
emango al nuke daukadan dena
izana ta nortasuna?
Bueno bai baietz esaten badut
eta ez besterik suma
oraindik ere itxarongo dut
heltzea nire eguna. (bis)

Egia esan esaten badot
horrexen kontra berbarik

ez da egongo zalantza eta
begitu txarren faltarik;
baina gaztea nazenez gero
dudak daukadaz oraindik
herrian alde zer egingo dot?
Hau baino ezin dot egin nik:
neure bizitza eskainiko dot
baina oindino emon barik. (bis)

A. Egaña

Gaia: Mezu bat jaso duzu: “Hona hemen sekretuaren sekretua, bizitza deitzen diogun zuhaitzaren sustraiaren sustraia, kimuaren kimua, zeruaren zerua, izarrak banaturik mantentzen dituen indar liluragarria, hona hemen sekretuaren sekretua, zure bihotza daramat nere bihotzean”. Neurri haundian kantatzeko.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Sentimentua sartu zitzaidan

Ohar txiki bat jaso berri dut
amodioan seinale
zerbait zegola sumatzen nuen
jakin berri dut ta bale.
Gure artean lehen ere bazen
hainbeste harreman ale;
zaudela lasai gerora ere
ez dizut egingo kale
zure barruan nere bihotza
daramazun bertsozale. (bis)

Ohar txiki hau jaso dut eta
aztoratu naiz ai ama!
Bihotza ehuntzen hor sentitu dut
sentipenen armiarma;
berak maite nau asko maite nau
zergatik piztu alarma?
Zer ote da ba hainbat plazatan
nik eskeini dudan dana?
Kariño haundiz egin dudala
gehien maitatzen dudana. (bis)
Ohar txiki bat esku fin batek
mesanotxean utzia
sekretuetan sekretu omen
plazako harribitxia;
bere maitasun horren gai al naiz?
Ezetz nere iritzia
baina badaukat hainbeste indar
gogo ta esperientzia...

Berriro kantuz itzuli nahi det
paper baten iritsia. (bis)

A.M.Peñagarikano

Gaia: Xirinacs-ek oharra utzi zuen bere buruaz beste egin zuenean: “Herri menperatu bat ez da inoiz askatuko, bere seme-alabak beregatik bizia emateko prest ez badaude”. Zelan ikusten duzu Euskal Herria, Peña?

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko

Euskal Herria menpean dago
nagusi espainiarra
etxe askotan dago samina
malkoa eta negarra.
Euskal Herriko zeru gainean
trumoia eta danbarra
ta laino beltzek estaltzen dute
askatasunan izarra;
itxaropena degu hala ere
galtzen ez degun bakarra. (bis)

Gure etxean nausi arrotza
goiko mailara igota
gazte askotxok jipoi galantak
berekin dauzka jasota
etsai maltzurrek berea egin
bestek ez die inporta
baina benetan nik esango det
ta hartu zazue nota:
ezin gentzake horrela segi
anaiak anaien kontra. (bis)

Lehenago ere kalte haundia
daukagu hemen egina
batzuek preso bestek aberats
horrek ematen dit mina
ez litzateke horrelakorik
danok batuko bagina
eser gaitezen mahai batean
egin daigun esamina
eta ohartu España dela
gure etsairik haundina. (bis)

DONOSTIA (2007-12-16)

Gipuzkoako txapeldunaren agurra

A. Mendiluze

Neurria: hamaseiko berdina zortzi puntuz
Doinua: Baserrian jaio nintzan / Habanera

Aurrena aita zenari
ni nun nengoke bestela?
Etxekoei ta lagunei
ia zorretan bezela
bertso-eskolari noski
badakit hor dagoela
ta lagundu didan hari
nahiz jakin gogorra zela.
Guztioi dagokizue
itzalpe honen epela
baina ezin ditudanez
denak aipatu honela
nolabait maite hitzari
lotu nahi diot txapela:
ditudanek ta nautenek
bere senti dezatela.

GALDAKAO (2007-12-23)

Bertsolariak: A. Mendiluze, S. Colina, A. Egaña, O. Bartra, X. Paya eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Arkaitz Estiballes

Kultur etxean izan zen, arratsaldeko seietan. Jende asko elkartu zen bertsolariak entzutera.

S. Colina-O. Bartra-X. Paya

Gaia: Sustrai, Egaña, Oihana, Lujanbio eta Xabier Mendiluze zarete. Atzekoen semeak zarete. Udalekuetan begiraleak “nor da bertsolari onena?” galdetu duenean bakoitzak bere gurasoa aipatzen du.

Neurria: zortziko txikia
Doinua: Nere senarrarekin I

X. Paya: Galdera egin eta
jarrita alertan
onena zein ote da?
Bale, baina zertan?
Nire aita onena da
benetan-benetan!
Berak irabazi du
azken txapelketan. (bis)

O. Bartra: Beraz nik hasi behar
zuen aiten aurka
kontu nazkagarri honek
nazkatuta nauka.
Nahiz zuenak txapeldunak
izan eta aupa
nire amak gitxienez
ule apur bat dauka. (bis)

S. Colina: Ai Xabi Mendiluze
ze tipo nobela!
Zure aitak kantatzen du
militar bezela
ta zuk ahotsa duzu
xaloa, txepela...
Seguru ote zaude
zure aita dela? (bis)

X. Paya: Nire aita flekilodun
gaztetan izana
orain txapela dauka
da behar den dana.
Entzun Maialeni buruz
aitatxok esana:
rajatu hutsa dela
Oihanaren ama. (bis)

O. Bartra: Holako txorradarik
nik ezin dot jasan
neuk be milaka gauza
esango neutsazan;
amatxo egongo bazan
Illunbeko plazan
irabaziko eutsan
dudarik ez izan. (bis)

S. Colina: Nere aita txapeldun
maizenetan maizen
begira ni nortzuren
semetxoa naizen;
nere aita kristona
onena hain zuzen

pentsa zazu Illunben
palkoan egon zen! (bis)

X. Paya: Zure aita da onena
ta dauka txapela
ta bere semea da
benetan txepela;
nahiz flekiloa jarri
estalki bezela
zuri nabari zaizu
Egaña zarela. (bis)

O. Bartra: Bertsotan hasi zara
ta ez jata ahaztuko
hiru poto botata
ene zenbat truko;
beraz igerri deutsut
gaur entzun orduko
zure aitaren lekura
ez zara helduko. (bis)

S. Colina: Egia da aukerak
dihoaz murrizten
baina horri aterik
ez diogu ixten.
Zure amak esana
ez dugu sinisten;
zure aitak ez daki
zigarrorik pizten. (bis)

X. Paya: Baina aitak asko daki
ikasten du errez
ta Olentzero nor den
ezetz jakin ezetz!
Esan dit hemen dago
bizar luze ta beltz
eta esan dit dela
Arkaitz Estiballes. (bis)

O. Bartra: Hori esatea izan da
bere erabakia
keba hori izan da
soilik aitzakia.
Zure aitari dekotset
kriston errukia
bertsotan txar-txar-txarra
eta guzurtia. (bis)

S. Colina: Ba nere aitatxo da
sekulako perla

bertsotan egiten du
onenak bezela.
Mendiluzen semea
ze seme ergela!
Uste du Papa Noel
Amuriza dela. (bis)

M. Lujanbio

Gaia:  Zure alabak Olentzerori Play Stationa eta bideo jokoak eskatu zizkion. Opariak zabaldu dituenean argazki albuma eta hogei pintura aurkitu ditu. Negarrez joan da bere logelara.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak

Nik banekien zer idatzi zun
eta zer nahi zun eskatu
nik banekien nik zer nahi nion
haurrari erregalatu
Play Stationen maila daukate
euren eskalatan altu
ta egurrezko lapitz batzuek
zeinen errez mespretxatu;
besteen mundutan murgildu nahio
ta ez eurenak asmatu.

Izan nahiko zun bere gelako
ikaskideak bezin guay;
bideo jokutan puntuak batu
pantailaz pantaila jarrai
baina bere amak ez zun hori nahi
eta negarrez joan da, ai!
“Pedagogia aspergarri hori!”
pentsauko du baina lasai
gaur egun ez du apreziatuko
baina gero akaso bai.

Mundu osoan kontra borrokan
gurasoek nola ekin?
Pantailak dauzka marrazki pila
nahiz eta soilik lau erpin
haurren burua betetzen dute
jolas fantastikoekin
inpotentzia sentitzen dugu
ta ez dakigu zer egin...
Nik nere apurra jarri nahi nuen
kolorezko lapitzekin.

A. Mendiluze

Gaia: Aitor, Ataungo emakume gazte bat zara. Duela gutxi hiesaren frogak egin zenituen. Gaur ematen dizute emaitza.

Neurria: hamaseiko berdina zortzi puntuz
Doinua: Baserrian jaio nintzan / Habanera

San Martin bezpera eta
ohitura dedan bezala
barrara hurbildu nintzen
han parrandan genbiltzala;
mutil bat zegoen bertan
ikusi eta aibala!
“Jode ze tipo guapoa!”
pentsatu ta berehala
hurbildu egin nintzaion
kateatu ginen hala
momentu gozoa joan zen
hala nahi nuen, normala;
baina badakit berriro
fama izango dudala
ni edozein bat naizela
ta bera mutil formala.

Maiz hanka sartu ohi degu
San Miguel batzuk medio
ta ondorengo damuak
ez du askorik balio;
nik une juxtu hartantxe
horixe nuen desio
berak ere zeukan noski
neronek aina bizio.
Baina geroztik zalantza
bihurtu zait obsesio:
lasai nengoke kondoi bat
ipini izan banio
Beraz froga egin behar
ia ze erremedio!
Bera nerekin ez dakit
ni ez naiz berekin fio.
Sobre bat daukat eskutan
eta suabe-suabe
zabaldu nahi det ta egin
erantzun onaren galde;
zabaldu ta uf ze lasai!
Gaurkoz suertea det alde
hala ta guzti gai hura
ez zait atera debalde;
konturatzen naiz guztiak

honen arriskuan gaude
momentu hortan egia
hartu behar parez pare
beraz hurrengo batean
hontaz oroitzea hobe
ta ez dut ezer egingo
bi aldiz pentsatu gabe.

# BAT-BATEKO

# SARIKETAK

ORIXE SARIA

DONOSTIA (2007-03-11)

Bertsolariak: Mantxi,
N. Gabilondo, U. Agirre, I. Zubeldia,
I. Esoain eta I. Izagirre.

Gai-emailea: Unai Gaztelumendi.

Ohi bezala, hiru kanporaketa jokatu ziren afalosteko giroan, finalean zein sei bertsolarik kantatuko zuten erabakitzeko. Finala igande goizeko 11:00etan izan zen, Añorgako Antton Aiestaran kultur etxean.

U. Agirre, I. Zubeldia

Gaia: Bi dantzari zarete. Unaik aurresku lehiaketetan eta festetan baino ez du dantzatzen; Ikerrek Foru Aldundiaren ekitaldi ofizialetan.

Neurria: zortziko handia
Doinua: Ari naizela ari naizela

U. Agirre: Dantzarietan ere bagaude
hamaika nolabaiteko
lehiaketa ta festak nahikuak
neriari ekiteko.
Iker gorago ibili ohi da
gogua det jakiteko:
gogua nundik ateratzen da
hoiei dantza egiteko?

I. Zubeldia: Tipoa ere gorde behar da
ahal bada holakoetan
motil arina nago gorputzez
ez nabile berriketan
hanka zerura altxa dezaket
aurreskun bigarren bueltan
ta igual eunen baten joko diat
lehendakaria kopetan.

U. Agirre: Gure dantzari maitagarria
jarria da bero-bero
jira ta buelta ta hankak arin
badu hamaika endredo.
Ibarretxe hor eroitzen bada
pakerikan ez espero
bueltan hartzeko prestatu zaite
bera gogor jo ezkero.

I. Zubeldia: Halabeharrez nere maila're
gora joaten ari da
aurreskuakin ematen diot
ekitaldiai segida
politikoak ikusten ditut
eguzkiaren argira
pentsa San Gil'e engainatzen da
ipurdiari begira!

U. Agirre: San Gil esan du ta dantzaria
hemen jarri naiz trantzeko
azkenaldian somatzen degu
katu herrian antzeko.
Leheno esan du gogua dula
hanka gora altxatzeko
barrua behar du horren aurrian
txapela lasai kentzeko!

I. Zubeldia: Jaurlaritzaren aurrekaldean
a ze nahaste-borrastea!
Dantzari onak beti behar du
pauso lijer ta askea;
ta hankaz gora ipini ditut
behintzat hala ikuste'a
Begoñak ere eskatu baitit
agarratuan hastea.

U. Agirre

Gaia: Alaba txikia oheratzen ari zara. Azken musua eman ondoren hala galdetu dizu "Amatxo, aitatxo non dago?"

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Gaur arte egin ez dedan arren
orain behar det kontatu
gaur arte ez dizut azaldu izan
ta alabatxo barkatu.
Hartu ezazu pelutxea ta
lasai ohe hortan sartu
historia ez da horren samurra
eta arnas sakon hartu;
zeorrek galdetu didazun arren
ez naiz esaten ausartu. (bis)

Bizitzak sarri horrelakoak

ez dizkigunez igorri
nere barruan daukat guztia
ez diot esan inorri.
Orain bihotza taupaka daukat
eta aurpegia gorri
istripu batek eraman zuen
zer eingo diozu horri?
Biak batera gertatu ziran:
hura joan zan zu etorri. (bis)

Gogoan daukat istripu harek
utzi zuen ikusmira
baina opari zetorren gero
zerbait badegu sikira.
Gauez ohera zatozenean
erne jar zaitez begira;
ikus ezazu zure gainean
piztu litekeen dizdira
seguru nago ipuin txiki bat
esango'izu belarrira. (bis)

I. Zubeldia

Gaia: Alaba txikia oheratzen ari zara. Azken musua eman ondoren hala galdetu dizu "Amatxo, aitatxo non dago?"

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Nere alaba hamarretako
sartu izan det ohera.
Bertso bat bota muxu bat eman
ta hala egin dit galdera:
"Nere aitatxo nora joan zan?"
Hau da gure ibilera...
Gizon haundi ta goapoa zan
dirua zeukan sobera
astronauta ta bonberoa zan
ta futbolista gainera. (bis)

Baina izatez lotsatia zan
oso pertsona izua
nunbait ez zuen berekin hartu
aita izatean pisua
muxu ematen ta alde egiten
artista eta maisua...
Gauza bat garbi esango dizut
ta entzun gaurko kasua:
harek ez dizu emango eta

har’zazu nere muxua. (bis)
Akordatzen naiz gau ilun bat zan
ta abuztuko partea
neronek hala nahi izan ez ta
laburtu gendun tartea;
leku onak’e ugari ziren
sasie edo paitea...
Egun batean motxilarekin
aldegin zun nunbaitea;
neuk’e ez dakit ziur zein zan ta
lo egin zazu maitea! (bis)

XV. BBK SARIKETA

DURANGO (2007-03-23)

BBK sariketaren finala Plateruena Kafe Antzokian jokatu zen, arratsaldeko seietan. Jende asko elkartu zen Busturialdea eta Ipar-Uribe eskualdeen arteko saio entzutera.

Bertsolariak:

a) Busturialdea:
Txikiak:
A. Beitia, B. Romero eta A. Aurrekoetxea. Handiak:
A. Uribe, O. Ibarluzea eta A. Elortegi.

b) Ipar-Uribe:
Txikiak:
I. Uria, M. Markaida eta J. Uria.
Handiak:
A. Ilaro, P. Vidal eta I. Paia.

Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz.
J. Uria

Bukaerako puntua emanda

Neurria: zortziko handia
Doinua: Norteko trenarena

Aupa koadrila! Hor zabiltzate
jende artean gordeta
nahiz ta gabiltzan etxerako lan
ta azterketez beteta
segi horrela beti parranda
jarri behar da arreta;
hartu bizitza lasaitasunez
presarik ez dago eta.

J. Uria

Gaia: Zure herriko kale nagusian zaude, Korrika 15 noiz helduko zain. Badator; lekukoa eskuan hartu duzu

Neurria: hamabiko handia
Doinua: Abokatuak deitu berri dit

Institutoan gure euskera
erabili ohi da zero
ta horregatik nahikoa triste
noa klasera goizero.
Gaur lekukoa pozik hartu dut
ta korrika noa bero
baina une hau une bat bada
zer gertatuko da gero?
Berriz erderaz niri entzutetik
ez zazuela espero;
gure hizkuntzaren parte izan nahi dut
baina ahal bada egunero. (bis)

I. Paia

Gaia: Telefonoak jo eta hartu egin duzu. Pozez saltoka hasi zara.

Neurria: hamabiko handia
Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak III

"Ring-ring" entzun ta telefonora
hurbildu naiz ni horrela;
gizon ahotsa nahiko ozena
baina ere bai epela.
Aspaldi ni zain nengoen baina
orain jakin daitekeela
berri oso on bat eman didate
bai berri berri itzela;
ezin isilik mantendu jada
orain artean bezela
entzundakoa gorde ezkero
erotuko naiz bestela.

Lexuri lagun kartzelan dago
besteak beti kolpeka
urteetan hortxe ibili zara
ta manteduz berriketa
elkarri gutun pila bidaliz
mantenduz elkarrizketa.
"Ni zure bila joango naiz laster"
esaten nizun tarteka
telefonoak gaurkoz egin dit
bihotz barruan fereka:
nik ez dut joan behar zure bila
zu etorri zara eta.

OSINALDE SARIAREN FINALA

GABIRIA (2007-04-14)

Bertsolariak: A. Oiartzabal Xamoa, A. Martin, K. Mitxelena, A. Barandiaran,
U. Gaztelumendi eta B. Gaztelumendi.

Gai-emailea: Jokin Murua.

Urteroko moduan, Osinalde elkartea beteta eta bertsotarako giro paregabea. Saioa maila onekoa izan zen, eta orekatua oso. Uxue Alberdi eta Ander Lizarralde zeuden finalerako sailkatuta, baina ezin izan zirenez azaldu, Karmele Mitxelenak eta Unai Gaztelumendik kantatu zuten haien lekuan.

A. Oiartzabal-A. Martin

Gaia: Zu, Arkaitz, bizi guztian ikusi dugun Michelineko panpina biribil hori zara. Orain erabaki dute gizentasunaren kontrako kanpaina dela eta, argaldu egin behar duzula; Alaia da Michelinen panpina berri hori.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak

A. Oiartzabal: Nahiz nere ustez erabakia
izan den horren ergela
Michelin degu errueda marka
bikaina eta itzela.
Ez du ba usteko irudi hori
hain zoragarria dela?
Nere iguala da pintxatuta
baldin balego bezela.

A. Martin: Zuk buruan duzu haize gehiena
horregatik duzu ekin
harropuzkeriz oiloen gisan
beti egiten duzu berdin.
Ni hautatzea askoz hobe da
dena ondo joan dedin
zeren zurekin egin daitezke
hiru muñeko Michelin.

A. Oiartzabal: Michlelin dela gurpil marka bat
komentatu det lehenengo
baina ibiltzen da beti kotxeetan
ta kamioietan edo
beraz hain hautu txukuna denik

ezin liteke espero:
bizikletaren rueda dirudi
perfilez jarri ezkero.

A. Martin: Zurekin nola hitz egin majo
nik jada ez dut jakiten
beti hain harro eta xelebre
beti tonto astakirten.
Ni hautatzea hobe da beraz
zuk ez jarraitu ekiten
gurpila zu zeu izan zaitezke
kroketarena egiten.

A. Oiartzabal: Badakizu bai jan ditudala
lehendik kroketa mordoa
nere ustetan askoz hobe zen
pixkat borobilagoa.
Benga, lagunak egin gaitezen
hori da nere gogoa
nere kontura joango da-ta
lehenengo haize tragoa.

A. Martin: Zu isiltzeko nire desira
agoan ez da beteko
baina ni hautatu naute ta beraz
dena daukazu galtzeko
edo dieta egin ezazu
apurtxo bat argaltzeko
lehen ere nahiko problema zenun
argazkietan sartzeko!

A. Barandiaran

Gaia: Zure etxe ondoan gerra garaian lehertu gabe geratutako bonba bat aurkitu duzu. Zer gogoeta eragiten dizu?

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi

Sarri biziak jolasten digu
zoritxarraren aukeran
minaren haziz josi ziguten
gure zelai dena gerran
Orain aurkitu digute baina
nork daki noizko ote dan?
Hainbeste bizi jokoan zeuden
ta animoak gainbeheran;

orain ez dakit madarikatu
edota eskerrak eman. (bis)

Hegazkinetan hainbeste bonba
eta misilen garraio
egin zuenai nere zelaitik
kantari jarri natzaio;
inor ez ginen inori bere
bizia kentzeko jaio.
Mendekuzale ez naiz ni baina
gaurko hontan ze arrraio!
Poztuko nintzen kontzientzia
lehertuko balitzaio! (bis)

XXXI. LIZARDI SARIA

ZARAUTZ (2007-09-07)

Bertsolariak: M. Mateo, A. Barandiaran, B. Gaztelumendi, J. Labayen,
U. Muñoa eta O. Bartra.

Gai-emailea: Arantxa Laskibar.

Zinema pilotalekua jendez bete zen, urtero gertatzen den eran, aurtengo Lizardi sariaren finala ikusteko. Hamarrak eta laurden aldera hasi zen, eta maila oneko saioa izan zen, batez ere kartzelako lanean.

B. Gaztelumendi

Gaia: Asko kostatu zaizu atea igaro ala ez erabakitzea, baina, azkenean, igaro duzu.

Neurria: hamabiko handia
Doinua Abokatuak deitu berri dit.

Gazteok beti egiten degu
senak esaten diguna
baino gaur gauez gogorra egin
zait nere koltxoi biguna
azkenerako tokatu baitzait
denoi tokatzen zaiguna:
inortxo ez det adiskidea
inortxo ez det laguna.
Baina atea zeharkatu det
kopeta daukat iluna;
batzuentzako zein gogorra den
klaseko lehen eguna. (bis)

Oraindik ere oso gazte naiz:
bakarrik hamalau urte
baino gerria zabala daukat
askok hala dute uste.
Irakasleek klase barruan
hala esaten digute
errukia ta elkartasuna
omen direla bertute;
klasekideek burua gora
ta behera mugitzen dute
baino klasetik irtendakoan
jipoitu egiten naute. (bis)

Ikusirikan zein den eskolan

daramadan panorama
erdi laisterka egin det nere
etxerako bide dana;
sikologoak, hezitzaileak
familian dena drama...
Ederki dakit nere begiak
bustirikan dauzkadana;
giltza atean sartu det eta
hitz egiteko afana
besarkatuaz hala esan diot
“Dena ondo doa ama”. (bis)

U. Muñoa

Neurria: Hamabiko handia
Doinua Haizea dator ifarraldetik

Ezin egonaz urduri nago
erabaki bitartean
burruka daukat indarra eta
kontzientziaren artean
baina pausoa eman ezean
izan liteke kaltean
zergatik nauka nere buruak
hola loturik katean?
Kezkaz betea eta sufritzen
nago logelan atean;
barruak lehertzen zaizkit amaren
garrasiak entzutean.

Nere aitaren eskumuturrak
bere horretan dihardu:
masailean jo karraisi egin
ta papel guztiak galdu.
Urtetan zehar egia esan
ez da portatu ondradu
familiari inoiz ez dio
eta bihotza zabaldu.
Amak lehenbailehen beharko luke
aldamenetik bialdu
baina bakarrik ezin du eta
nere laguntza behar du.

Goizean jeiki ubelduekin
besarkatzen nau astiro
pentsatu ohi dut “Aita ziztrinak
merezi ditu bi tiro!”
baina pausorik eman ezinez
hori pentsatu aldiro

sentimentuak borborka dauzkat
beldurra burura igo
baina atea zeharkatzeko
badut nahikoa motibo.
Hau bukatu da, ama banoa
ez du egingo berriro.

O. Bartra

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Gurasoekin hainbat mobida
euki ditut mila aldiz
eurek “Hau egin” esanez gero
egiten dut alderantziz
baina azkena gehiegi izan da
ta nazkatu naute guztiz
maleta egin dut ta nire amak
oso serio egin dit hitz
“Zuk ate hori igaroz gero
ez zaitez itzuli berriz”. (bis)

Esan didate “Benga alaba
razionala izan zaitez
bizi osoan egon baikara
dana ematen ta maitez”.
Halan ta guztiz erabakia
aita-ama ez da hain errez
parkatu baina joan behar dut
behinepin denpora batez
nire bidea egin behar dut
zuei gustatu ala ez (bis)
“Alaba hemen geratu zaitez!”
eskatu dit belauniko
ta gero ere esan didate
“Bai, bai, zaitugu begiko”.
Halan ta guztiz erabakia
mantendu behar dut tinko;
nahiz esan duten joanez gero
joan behar dudala betiko
ederto dakit euren bihotza
ez didatela itxiko. (bis)

III. HERNANDORENA SARIA

AIHERRA (2007-12-08)

Denen Etxean izan zen azken saio hau, arratsaldeko zazpi eta erdietan. Aurretik lau kanporaketa egin zituzten, eta jarraipen ona izan zuten. Lehenik afaria eta ondoren izan zen bertso saioa. Mahaietatik entzun zuten afaltiarrek finala.

Bertsolariak: U. Gaztelumendi, J. Uria,
E. Zabaleta, P. Iriart, M. Arzallus, A. Illaro,
E. Erremundegi eta K. Txoperena

Gai-emailea: Joana Itzaina.

J. Uria-A. Illaro

Gaia: Zuek, bakoitzak bere bikotea izan arren, elkarrekin maitemindu zarete. Hemendik aurrera zer?

Neurria: zortziko handia
Doinua: Txoriak eta txoriburuak

A. Illaro: Gaur hilabetez ikusi eta
nahastu gara zeharo
nik zurekiko zerbait sentitzen
dut eta galduta nago.
Bikoteari esan aurretik
“Bukatu da ta akabo!”
probatu nahi dut hau izan dela
sexua baino gehiago. (bis)
J. Uria: Izan da baina ez zaitez hasi
horren gogor atakean
zure harremana ez zazu utzi
pentsatu ta bat-batean.
ez naiz errudun sentitzen eta
Ez da niretzat kaltean
ta bera ez da txarto egongo
ez dakien bitartean. (bis)

A. Illaro: Agian buru biak galduta
ditugu hego-haizean
baina burua zurekin daukat
ene aspaldi luzean;
murgildu nahi dut zure besotan
ta zure muxu hezean
maitasuna ez baita hain zaila
guk zaila egin ezean. (bis)

J. Uria: Nire ondora etorri zara
eskari baten eskeko

harremana hain errez uzterik
bada ez duzu usteko?
Esan didazu beste harremana
bertan behera uzteko
beharrezkoa al da maitatzen
zaitudala sinisteko? (bis)

A. Illaro: Eskatu ordez zure bikote
hori uzteko mesedez
egoera hau hartu nahi nuke
ahal bezain sinple ta errez:
nik bikotea ahaztuko dut
hilabete pare batez
eta orduan ikusiko dut
nor maite dudan ta nor ez. (bis)

J. Uria: Utziko duzu bi hilabetez
eta hainbeste istori
nor maite duzun edota nor ez
ta beste mila hitz lodi;
bi hilabetez uztearena
iruditu arren ongi
denok ez dugu norbait gure zain
egoteko aukera hori. (bis)

P. Iriart-K. Txoperena

Gaia: Bi lagun zarete. Gorpuzkera ezberdina izaganatik ere ez duzue zuen neurriko arroparik topatzen.

Neurria: hamarreko txikia
Doinua: Antton eta Maria

P. Iriart: Nik hala pentsatzen dut
bada gehiegia
aspalditik badakit
naiz lodiegia;
jauntziak hautatzean
a ze miseria!
Aterabiderik ez
hori da egia
nik bi behar ditut ta
zuk baten erdia. (bis)

K. Txoperena: Arropa aurkitzea
izaten da txarra
zu lodiegi zaude
eta ni meharra

baina halere badugu
arropa beharra
eta bat aurkitzeko
behar da indarra
soilik ez dugulako
gorputz estandarra. (bis)

P. Iriart: Zu haundi ta luzea
ni ttipi apala
zailtasunak ditugu
besteek ez bezala;
ni lodiegia naiz
ta izanen da hala
ez dut nehoiz utziko
edo ez berehala
nere gau erditako
jamon york kaxafla. (bis)

K. Txoperena: Jamon yorka eskuan
besteak ardoa
aizu beti bezela
daukazu ahoa
baina aizu baduzu
jarraitzen gogoa
ni arropekin zabal
zabalegi noa
ta hola ematen dut
oino meheagoa. (bis)

M. Arzallus

Gaia: Zure lehen liburua argitaratu duzu. Gaur, Durangon atera da, eta egun osoa promozioa egiten pasa duzu.

Neurria: hamarreko handia
Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Eskuak eta lumak zituen
haseran mila dardara
baina azkenik gainditu nuen
orri hutsaren ikara.
Bertan aipatzen ditut herria
naizena eta euskara...
Etor dedila nereganaino
hurbildu bedi bertara
barrutik nola sentitzen naizen
jakin nahi duenik bada. (bis)
Baina oraindik ez baitut lortu
idazle haundien fama
dirudienez ez du hauteman

## Izen eta izengoitien deskribapena

Zerrenda hau, liburuan agertzen diren izen laburdura eta izengoitiei dagokio.

| Liburuan | Izen-deiturak | Herria |
|---|---|---|
| Agirre, A. | Amaia Agirre Arrastoa | Villabona |
| Agirre, J. | Joxe Agirre Esnal | Azpeitia |
| Agirre, M. | Manex Agirre Arriolabengoa | Aramaio |
| Agirre, U. | Unai Agirre Goia | Hernani |
| Alberdi, U. | Uxue Alberdi Estibaritz | Elgoibar |
| Alustiza, I. | Iker Alustiza Lasa | Donostia |
| Arzallus, A. | Amets Arzallus Antia | Hendaia |
| Arzallus, M. | Maddalen Arzallus Antia | Hendaia |
| Barandairan, A. | Aitzol Barandiaran Munduate | Ataun |
| Barberena, J. | Jon Barberena Ibarra | Iruñea |
| Bartra, O. | Oihana Bartra Arenas | Bilbo |
| Colina, S. | Sustrai Colina Akordarrementeria | Urruña |
| Egaña, A. | Andoni Egaña Makazaga | Zarautz |
| Elortza, I. | Igor Elortza Aranoa | Durango |
| Enbeita, On. | Onintza Enbeita Maguregi | Muxika |
| Estiballes, A. | Arkaitz Estiballes Ormaetxea | Galdakao |
| Gaztelumendi, B. | Beñat Gaztelumendi Arandia | Añorga (Donostia) |
| Ibarra, I. | Iratxe Ibarra Foruria | Markina-Xemein |
| Illaro, A. | Arrate Illaro Etxebarria | Getxo |
| Irazu, J.M. | Jexux Mari Irazu Muñoa | Larraul |
| Iriart, P. | Patxi Iriart Hiribarren | Hiriburu |
| Iturriaga, U. | Unai Iturriaga Zuaza-Artaza | Durango |
| Juaristi, J.M. | Juan Mari Juarista Balentziaga | Gasteiz |
| Lazkano, I. | Imanol Lazkano Uranga | Azpeitia |
| Lekue, E. | Etxahun Lekue Etxebarria | Larrabetzu |
| Lizaso, S. | Sebastian Lizaso Iraola | Azpeitia |
| Lujanbio, M. | Maialen Lujanbio Zugasti | Hernani |
| Maia, J. | Jon Maia Soria | Zumaia |
| Mantxi | Iñigo Manzisidor Larrañaga | Zarautz |
| Mañukorta | Gregorio Larrañaga Mandiola | Markina-Xemein |
| Martin, A. | Alaia Martin Etxebeste | Oiartzun |
| Martin, J. | Jon Martin Etxebeste | Oiartzun |
| Mendiluze, A. | Aitor Mendiluze Gonzalez | Andoain |
| Muñoa, U. | Unai Muñoa Amundarain | Lasarte-Oria |
| Murua, I. | Iñaki Murua Jauregi | Gabiria |
| Oiartzabal, A. | Arkaitz Oiartzabal Agirre Xamoa | Oiartzun |
| Paia, F. | Alfredo Paia Ruiz “Fredi” | Algorta (Getxo) |
| Paia, I. | Itxaso Paia Ruiz | Algorta (Getxo) |
| Paya, X. | Xabier Paya Ruiz | Algorta (Getxo) |
| Peñagarikano, A.M. | Anjel Mari Peñagarikano | Anoeta |
| Perea, O. | Oihane Perea Perez de Mendiola | Gasteiz |
| Rezola, A. | Agin Rezola | Astigarraga |
| Sarriegi, A. | Aitor Sarriegi Galparsoro | Beasain |

| | | |
|---|---|---|
| Silveira, X. | Xabier Silveira Etxeberria | Lesaka |
| Sorozabal, J. | Jokin Sorozabal Ansa | Andoain |
| Txoperena, K. | Kristiñe Txoperena Iribarren | Hendaia |
| Ugartetxea, B. | Beñat Ugartetxea Ostolaza | Mallabia |
| Uranga, J. | Jokin Uranga Isuskiza | Azpeitia |
| Uria, J. | Jone Uria Albizuri | Getxo |
| Zelaieta, J. | Julen Zelaieta Iriarte | Bera |
| Zubeldia, I. | Iker Zubeldia Akarain | Zegama |